

**2019RAKO EAE-KO AURREKONTU OROKORREI BURUZKO
LEGE-PROIEKTUAREN GENERO-INPAKTUARI BURUZKO
TXOSTENA**

Ogasun eta Ekonomia Saila

2018ko urriaren 19a

AURKIBIDEA

1. ESPARRU ARAUEMAILEA	5
2. EUSKO JAURLARITZAREN 2019RAKO AURREKONTU OROKORREI GENERO IKUSPEGIA GEHITZEKO ESTRATEGIA.....	7
3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA.....	9
4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK	10
5. GASTUEN ANALISIA (I): EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURAKO LANGILEAK.....	11
6. GASTUEN ANALISIA (II): SAILAK ETA HORIEN GASTUKO AURREKONTU-PROGRAMAK.....	17
6.1. LEHENDAKARITZA.....	32
6.2. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.....	39
6.3. EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURAK SAILA	45
6.4. ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.....	52
6.5. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA	61
6.6. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA.....	66
6.7. HEZKUNTZA SAILA	75
6.8. OSASUN SAILA	82
6.9. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA	86
6.10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	91
6.11. SEGURTASUN SAILA.....	97
6.12. LAN ETA JUSTIZIA SAILA	104
7. ONDORIOAK	109

1. ESPARRU ARAUEMAILEA

Nazio Batuek, erakundea sortzeko gutunean jadanik, funtsezko printzipiotzat hartzen dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Horren ondorioz, hainbat tresna juridiko landu ditu, eta horiek, hain zuzen, eskualde-mailako eta tokiko ondorengo lege-garapenerako oinarriak ezartzen dituzte.

Nabarmentzekoa da emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW), oro har 1981 ezker indarrean dagoena eta Espainiak 1983ko abenduan berretsitakoa. Berori nazioarteko lehen lege-tresna da, unibertsalki aplikatzekoa, eta bidea ematen du bizitzaren esparru guztietan (zibila, kulturala, soziala, politikoa eta ekonomikoa) izatezko berdintasuna lortzeko neurri bereziak hartzeko, horrek berekin diskriminaziorik ekarri gabe.

Emakumeari buruzko Nazio Batuen Nazio Batuen IV. Mundu Konferentziak (1995ean egin zen Beijing-en) jauzi kualitatibo garrantzitsua ekarri zuen, tratamendu sektorialetik “gender mainstreaming” deritzon eta “genero-zeharkakotasuna edo -ikuspegia” izenaz ere ezaguna den ikuspegi funtsezko eta estrategikora igaro baitzen. Horrek eskatzen du berdintasunaren helburua herrialde kideetako politika publiko eta programa guztietan txertatzea. Geroago, zeharkakotasunaren printzipioa eta ekintza positiboak Europako ordenamendu juridikoari gehitu zitzaizkion 1999ko maiatzaren 1ean, Amsterdamgo Tratua indarrean jarri zenean (2. eta 3. artikulua), eta ordutik funtsezko elementua bilakatu da Europar Erkidegoko politika guztiak diseinatzeko. Nizan (2001), genero-zeharkakotasuna Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunean jaso zen, eta horrek aintzatespen juridikoa jaso zuen, bete-betean aplikatzekoa, Estrasburgon 2007an Lisboako Tratua sinatzearekin batera.

2006. urtean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere egin zuen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea funtsezko eskubide gisa. Horretarako, eskubide hori bermatzeko asmoz tratatuak interpretatu eta berrinterpretatu zituen.

Emakumeei buruzko NBren 2000ko Mundu Konferentziak —Beijing +5 izenaz ezaguna da— bere ebazpen orokorrean estatu kideak behartzen ditu genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzera, gobernu-maila guztietan, EBren aurrekontuan barne. Europar Batasuneko estatu kideek, horri erantzuteko, 2015. urtea epemuga gisa ezarri zuten, 2015ean administrazio-maila guztietan aurrekontuak genero-ikuspegiarekin abiarazteko.

Azkenik, gaurdaino, indarkeria matxistaren arloko trataturik garrantzitsuena gauzatu zen emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean. Istanbulko Hitzarmena izenaz ere da ezaguna, eta 2014tik dago indarrean Europan. Hitzarmen horretan, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larritzat aitortzen da, horren forma guztietan (fisikoa, psikologikoa eta sexuala, emakumeen mutilazio genitala, behartutako ezkontza, jazarpena, behartutako abortua eta behartutako esterilizazioa).

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoan, hau dugu funtsezko erreferentzia-esparrua: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Printzipio orokorrei buruzko 3. artikuluan, bi estrategia hauek jasotzen ditu:

- ❖ Batetik, genero-ikuspegia txertatzea euskal aginte publikoen politika eta ekintza guztietan; eta argiro adierazten du horiek guztiek ezarri behar dutela desberdinkeria ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

Lege horren ondorioetarako, genero-ikuspegia txertatzeak esan nahi du:

“emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea”.

- ❖ Bestalde, ekintza positiboko neurriak hartzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko. Lege horren arabera:

“herri-aginteei denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko”.

Gainera, 4/2005 Legeak honako hau ezartzen du 18.1 artikuluan:

“Arauek garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteei modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua”.

Lege horrek honela aintzatesten du Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea:

“Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, taxutu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak emateko ardura duena”.

Eta berdintasunerako unitateak sortzea aurreikusten du:

“saileko zuzendaritza eta arloak eta horri atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlanean aritzea, horrela lege honetan eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun-planean xedatutakoa betetzeko. Unitateok posizio organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute, bai eta beren helburuak bete ahal izateko aurrekontu-zuzkidura nahikoa ere”.

Azkenik, 19. artikulua hau ezartzen du euskal agente publikoei dagokienez:

“Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean”.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Ogasun eta Ekonomia Sailak txosten hau egin du, 2019rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Aurreproiektuari atxikitzeko. Horretarako, sailen ezinbesteko lankidetzak izan da, eta, oso bereziki, haien berdintasunerako unitate teknikoena.

2. EUSKO JAURLARITZAREN 2019RAKO AURREKONTU OROKORREI GENERO IKUSPEGIA GEHITZEKO ESTRATEGIA

Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren zati bat da politika publikoak ez direla generoari dagokionez neutroak, hau da, bestelako eragina izan dezaketela emakumeengan eta gizonengan, eta, beraz, ikuspegi kritikoa behar dutela, desberdinkerien murrizketan duten inpaktua zehazteko.

Esparru horretan, aurrekontuei genero-ikuspegia gehitzeak dakar honako hau kontuan izanda planifikatzea: politika publikoen hartzaile diren emakumeak eta gizonak ez dira abiatzen baldintza- eta aukera-berdintasunean, ez dituzte behar eta helburu berak eta, beraz, espero diren emaitzak aintzat hartuta kontuan izan behar da errealitate-aniztasun hori. Beraz, prozesu horrek zenbait fase ditu, eta, horien artean, nabarmentzekoa da aurrekontuen gainean generoak duen inpaktuari buruzko txostena. Izan ere, dokumentu horrek laburbiltzen du administrazio baten politika publikoetan generoa zein neurritaraino txertatuta dagoen, zein aurrerapen egin diren eta hurrengo ekitaldiari begira hobekuntza-proposamenak zein diren jakiteko.

Horrela, aipatutako txostena, gure Administrazioan nabarmentzen ari den bezala, baliagarria da politikaren arloko prozeduran, plangintzan eta ebaluazioan hobekuntzak bultzatzeko. Aldaketa sakonak dira, politika publikoak eraldatzen dituztenak eta epe luzerako horizonte bat eskatzen dutenak, genero-ikuspegiak egindako aurrekontu orokorrak diseinatu ahal izateko.

Eraldaketarako bide horrek sinergiak aurkitzen ditu apirilaren 10ean Gobernu Kontseiluak onartutako Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin. Bertan, honako hau jasotzen da berariaz:

“Gobernu-programan hartutako konpromisoek helburu horiei erantzuten diete, eta Gobernua saiatu da gobernu-programaren garapenari lotutako plangintza estrategiko osoa ere agenda honekin bat etorritasun eta plan estrategiko bakoitzak bertan bildutako helburuen lorpenean egindako ekarpena identifikatzen”.

“Basque Country 2030 Agenda honek lotu egiten ditu Eusko Jaurlaritzak bere gobernu-programan hartutako konpromisoak garapen iraunkorrerako 17 helburuekin¹ eta 2030 Agendaren xedeekin, eta aukera ematen du gure politika aktiboak lerrokatzeko agenda unibertsal horrekin, eta agerian jartzeko Euskal Autonomia Erkidegoak egiten duen ekarpena 2030 Agenda gauzatzeko eta garapen iraunkorraren helburuak lortzeko”.

Lerrokatze hori islatu egiten da, baita ere, 2018ko ekainaren 12an izandako Jaurlaritzaren Kontseiluaren bilkuran onartutako 2019ko Jarraibide Ekonomikoetan. Horiek oinarritzko dokumentua osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) 2019. urterako aurrekontu orokorrak prestatzeko prozesua abian jartzeko. Bertan, nabarmendu egiten da gobernu-programaren ekarpena garapen jasangarriko helburuetan; eta aurrekontuen lanketaren eta horien faseetako (diseinua, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa) plangintzaren artean dagoen lotura. Gainera, aurrekontuak emaitzetara bideratzeko oinarriak garatzea proposatzen da. Jardun-esparru horretan, aurrekontuak genero-ikuspegiak diseinatzeko erronkari koherentzia ematen ari ginateke.

¹ Garapen Iraunkorraren Helburua (GIH), 5.a: "Genero-berdintasuna".

Zehazki, Gobernu Programaren baitan, nabarmendu egiten dira haren euskarrietako bat, hau da, “berdintasuna”²; Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasuneko genero-berdintasunaren indizean Europako lehen 4 herrialdeen artean kokatzeko herrialde-mailako helburu estrategikoa³; eta EAerako Emakumeen eta Gizonen arteko VII. Berdintasun Plana⁴. Txosten hau idazteko garaian, sailak murgilduta daude euren berdintasun-planak prestatzen.

Sailek, beren politikak lantzeko, esleitu zaizkien aurrekontu-baliabideekin gauzatu beharreko helburu eta ekintza garrantzitsuenak zehazten dituzte. Plangintza-lan hori “aurrekontu-programak” izenekoetan islatzen da, eta horiek dira txosten honen funtsezko analisi-elementua.

Txosten hau lantzeko, Eusko Jaurlaritzako sailen laguntza ezinbestekoa izan da. Horietako bakoitzean, zuzendaritzek gogoeta egin dute beren aurrekontu-programek duten genero-inpaktuaren gainean, eta hobekuntza-neurriak ezarri dituzte berdintasuna lortzearen helburu orokorrera egokitzeke haien xedeak eta ekintzak. Ondoren, Ogasun eta Ekonomia Sailera bidali dute informazio hori; horrela, 2019ko Arau Teknikoen dokumentuan ezarritako prozedurari jarraituz.

2018. urtean, sailek barneko lan-prozesuak abiarazi dituzte; batzuk EHuren laguntzarekin, euren aurrekontu-programetan genero-ikuspegitik sakontzeko. Lan hori berdintasun-tekniken aholkularitza eta inplikazioarekin egiten ari dira. Horren ondorioz, programen idazketa, edukia eta aurrekontua hobetzeko prozesuak bultzatu dira.

² II. zutabea: “Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak”. II.4. ardatza: “Integraziorako eta berdintasunerako gizarte-agenda”.

³ Europar Batasuneko Genero Berdintasunaren Indizea: genero-berdintasunaren adierazle sintetikoa da Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) landutakoa, hainbat eragileren partaidetzaz. Horien artean daude estatu kideak. Metodologia horri jarraituz, EUSTATEk Euskal Autonomia Erkidegorako Genero Berdintasunaren Indizea argitaratzen du.

⁴ EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana, Gobernu Kontseiluan 2018ko ekainaren 19an onartua, Gobernu Egokirako Neurri gisa: “genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzea” (GE, 10).

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN DIAGNOSTIKO SOZIOEKONOMIKOA

Azken urteetan gizarteak emakumeen eta gizonen berdintasunerako bidean aurrera egin badu ere, lan-merkatuari, parte-hartze soziopolitikoari, etxeko lanei eta zainketari, emakumeen aurkako indarkeriari, pobrezari... buruzko datuek oraindik ere erakusten dute gizonen eta emakumeen arteko harremanetan eta posizio sozialean hierarkizazioa dagoela. Hierarkizazio horrek (desberdinkeriaaren erroa) sexuaren arabera jokabideko estereotipo eta patroiz soziokulturaletan du jatorria. Horiek emakumeei esleitzen die etxearen esparruko erantzukizuna, eta gizonazkoei esparru publikoaren ardura, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial oso desberdina oinarri hartuta. Interseksionalitate-ikuspegi batetik, gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea emakume askok diskriminazio anizkoitza jasaten dutela; izan ere, sexuaren ondoriozko diskriminazioarekin batera, beste diskriminazio batzuk jasaten dituzte, beste faktore batzuen artean, honako hauen ondoriozkoak: jatorri etnikoa, hizkuntza, adina, dibertsitate funtzionala, ondarea, sexu-orientazioa, etab. Horrek guztiak emakumeei baldintzatu egiten die, sarritan, herritartasunak berezkoak dituen eskubideak bete-betean baliatzea.

Errealitate horretatik abiatuta, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen egoera aztertzea; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoa baita euskal administrazioaren politika publikoak zuzentzen diren populazioa. Diagnostiko horiek abiapuntua dira EAEko emakumeen eta gizonen bizi-baldintzei buruzko aurrekontu-programek duten eragina ezagutzeko; hau da, gauzatzen ari diren jardunen bidez, jakiteko zein neurritan eragiten den emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaaren egiturazko fenomeno orokor eta unibertsal hori ezabatzen zereginean.

Helburu horrekin, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) —Ogasun eta Ekonomia Sailari atxikitako erakunde autonomoa da— zenbait estatistika-eragiketa bildu ditu, deskribapen labur batekin batera. Hori guztia jakitera eman da Eustaten “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna” web-atarian.

Bestalde, Emakundek, ohikoa duenez, urteko txosten hau argitaratu du: “Zifrak 2017. Emakumeak eta gizonak Euskadin”. Eusko Jaurlaritzako sailen estatistika eta erregistroak iturri nagusi gisa erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen egoera sakonean aztertzen du esparru hauetan: demografia, hezkuntza, lana, baliabide ekonomiko eta sozialak, osasuna, parte-hartzea eta emakumeen aurkako indarkeria.

Bi txostenetan informazio egiazkoena eta eguneratuena dagoela kontuan hartuta, iturrira jotzen dugu haiek irakurtzeko. Berori eskuragarri dago esteka hauetan:

http://es.eustat.eus/estadisticas/tipo_10/arbol.html

http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2017.pdf

4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORRAK

Urte naturalerako zenbatetsitako sarrerak eta aurreikusitako gastuak islatzen dituen tresna da aurrekontu publikoa. Haiek kontzeptuka banakatu eta zifra globaletan orekatzen ditu.

EA Eren Aurrekontu Orokorrei dagokienez, sarrerak hiru foru-aldundietatik jasotzen dira, funtsean. Horiek, era berean, dagozkien lurraldeetan zuzeneko eta zeharkako zergen bitartez biltzen dituzte funtsak. Beraz, zergak biltzeko eskumena foru aldundiei dagokie. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, baliabide horien zati bat zentralizatzen du, gero gastuko aurrekontu-programen artean banatzeko.

Nahiz eta biak, zerga-ezarpena eta gastua, gure erkidegoan modu bereizian eragin, txosten honen analisisa gastuko partidetan oinarrituko da, hori baita Eusko Jaurlaritzaren eskumen nagusia.

Egitura ekonomikoa 9 kapitulutan banatuta dago:

1. Langile-gastuak
2. Funtzionamendu-gastuak
3. Finantza-gastuak
4. Transferentziak eta diru-laguntzak, gastu arruntak
5. Sarrerak
6. Inbertsio errealak
7. Transferentziak eta diru-laguntzak, kapital-eragiketak
8. Finantza-aktiboen gehikuntza
9. Finantza-pasiboen murrizketa

Txosten honen ondorioetarako, bereziki interesgarria da kapitulu hauek aztertzea:

- ❖ Langile-gastuak: 1. kapitulua
- ❖ Funtzionamendu-gastuak: 2. kapitulua
- ❖ Gastu arrunteko diru-laguntzak: 4. kapitulua

1. kapitulua (langile-gastuak) bi ikuspegitik aztertzen da. Batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko langileak dauden egoerara hurbilketa bat eginez⁵ (txosten honen 5. atala). Bestetik, murgilduta dauden aurrekontu-programak gauzatzeko egiten duten lanaren bidez (6. atala).

⁵ Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikulua: Enpresek lan-esparruan tratu- eta aukera-berdintasuna errespetatzeko betebeharra dute, eta, helburu horrekin, neurriak hartu beharko dituzte emakumeen eta gizonen artean lan-izaerako edozein bereizkeria-mota saihesteko.

5. GASTUEN ANALISIA (I): EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURAKO LANGILEAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak abian jarri du, baliabide espezifikoekin, “Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana”⁶. Berori diseinatzeko, lehen diagnostiko bat egin zuen, genero-arrailak antzemateko asmoz. Gaur, pentsatzekoa da ondorioek, oro har, indarrean jarraitzen dutela:

1) Plantilla erabat feminizatuta dago.

Horrela, hurrengo taulan erakusten denez, Administrazioa oso feminizatuta dago.

1. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzurako langileak **esparruka eta sexuaren arabera** (2018ko ekaina)

LANGILE FUNTZIONARIOAK ETA LAN-KONTRATUDUNAK 2018ko ekainaren 30a			
	G	E	Emakumeen %
Administrazio Orokorra	2.625	4.518	% 63
Hezkuntza	6.642	18.823	% 74
Justizia	600	1.978	% 77
Herrizaingoa	6.401	861	% 12
OSAKIDETZA	7.312	27.311	% 79
	23.580	53.491	% 69

Oharra: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

Osakidetzaren kasuan, plantillaren feminizazioa langile funtzionarioen eta lan-kontratudunen baitan dago, osasun-arlokoak izan ala ez.

⁶ Onarpena Gobernu Kontseiluan: <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/34384-gobierno-vasco-aprueba-primer-plan-para-igualdad-mujeres-hombres-administracion-general-sus-organismos-autonomos-consejo-gobierno-2016>

Onartutako plana: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8537/I_Plan_Igualdad_AG-OO.AA_y_Anexos_es.pdf?1475679670

2. taula. Osakidetzako langileak

OSAKIDETZAKO LANGILEAK. 2018ko ekainaren 30a				
	G	E		GUZTIR A
Osasun-arloko langile funtzionarioak	3.488	14.948	81%	18.436
Osasun-arloko langile lan- kontratudunak eta bestelakoak	1.209	7.000	85%	8.209
Osasun-arloz kanpoko langile funtzionarioak	1.870	3.492	65%	5.362
Osasun-arloz kanpoko langile lan- kontratudunak eta bestelakoak	745	1.871	72%	2.616
	7.312	27.311	79%	34.623

Iturria: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

2) Ikusten da emakumeen eta gizonen arteko soldata-arraila % 8,5ekoa dela, familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko emakumeek duten pisu handiagoaren ondorioz.

Jarraian erakusten den taulan ikusten da uztartze-lan horren pisua, kolektiboa edozein izanik ere, oraindik ere emakumeek eramaten dutela.

3. taula. Baimen honi dagozkion 50 orduak erabili dituzten pertsonen kopurua

50 orduko baimena 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era			
KOLEKTIBOA (langile funtzionarioak eta lan- kontratudunak barne)	SEXUA	*Pertsona kopurua	Emakumeen %
Administrazio Orokorra	E	2026	% 71
	G	812	
		2838	
Hezkuntza	E	2464	% 85
	G	433	
		2897	
Herrizaingoa	E	115	% 68
	G	55	
		170	
Justizia	E	655	% 85
	G	117	
		772	
GUZTIRA		6677	% 79

Oharra: * Ebaluazioaldian zehar uneren batean baimen honen ondoriozko ordu kopurua baliatu duten pertsonen kopuruari buruzko datua. Iturria: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

3) Emakumeek gizonen baino lan-ezegonkortasun handiagoa jasaten dute, eta % 87,17k adingabeak edo senitartekoak zaintzeko uztartze-neurriak eskatzen dituzte.

Datuak 2018ra eguneratuz gero, honako hau topatzen dugu:

❖ Zaintzarako eszedentzien % 92 emakumeek eskatzen dituzte.

4. taula. Uneren batean eszedentzia-egoeran egon diren pertsonen kopurua

Eszedentziak 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era				
KOLEKTIBOA	ESZEDENTZIA MOTA	SEXUA	* Pertsona kopurua	Emakumeen %
Administrazio Orokorra	Senideen zaintza	E	6	
		G	2	
	Seme-alaben zaintza	E	31	
		G	5	
	Senideen elkartea	E	1	
		G	0	
	Egoera babestuak edo antzekoak	E	5	
		G	0	
			50	86%
Hezkuntza	Senideen zaintza	E	22	
		G	4	
	Seme-alaben zaintza	E	126	
		G	4	
	Egoera babestuak edo antzekoak	E	169	
		G	22	
			347	91%
Herrizaingoa	Senideen zaintza	E	0	
		G	1	
	Seme-alaben zaintza	E	5	
		G	1	
			7	71%
Justizia	Senideen zaintza	E	2	
		G	0	
	Seme-alaben zaintza	E	9	
		G	0	
			11	100%

Oharra: * Ebaluazioaldian zehar unerren batean eszedentzia-egoeran egon diren pertsonen kopuruari buruzko datua. Enplegatu bat ebaluatutako aldian behin baino gehiagotan eszedentzian egonda ere, behin bakarrik kontabilizatzen da. Iturria: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

- ❖ Emakumeek amatasuneko/aitatasuneko baimen gehiago eskatzen dituzte. Aipatzekoa da, bereziki, Hezkuntzako kolektiboaren kasua, baimen horiek baliatu dituzten pertsonen kopuruagatik.

5. taula: Mota honetako gutxienez baimen bat izan dutenen kopurua

Amatasunak/Aitatasunak 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era				
KOLEKTIBOA	BAIMEN MOTA	SEXUA	PERTSONA KOPURUA*	
Administrazio Orokorra	AMATASUNA	E	56	
		G	3	
	AITATASUNA	E	0	
		G	16	
	EDOSKITZEA	E	13	
		G	2	
			90	% 77
Hezkuntza	AMATASUNA	E	547	
		G	21	
	AITATASUNA	E	4	
		G	128	
	EDOSKITZEA	E	5	
		G	0	
			705	% 79
Herrizaingoa	AMATASUNA	E	17	
		G	2	
	AITATASUNA	E	0	
		G	58	
	EDOSKITZEA	E	10	
		G	2	
			89	% 30
Justizia	AMATASUNA	E	19	
		G	0	
	AITATASUNA	E	0	
		G	1	
	EDOSKITZEA	E	6	
		G	0	
			26	% 96
	PERTSONA KOP. GUZTIRA		910	

* Ebaluazioaldian mota honetan baimena gutxienez behin baliatu duten pertsonen kopuruari buruzko datua. Pertsona berbera baimen mota batean baino gehiagotan kontabilizatuta egon daiteke (adibidez: aitatasuna + edoskitzea). Iturria: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

- ❖ Zaintzarako murrizketen % 83 emakumeek hartzen dituzte.

6. taula. Lanaldi-murrizketako egoeran dauden pertsonak

Murrizketak 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era				
KOLEKTIBOA	MURRIZKETA MOTA	SEXUA	PERTSONA KOPURUA*	
Administrazio Orokorra	Seme-alaben zaintza	E	292	% 90
		G	32	
	Senideen zaintza	E	38	% 78
		G	11	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	0	
		G	0	
			373	
Hezkuntza	Seme-alaben zaintza	E	976	% 87
		G	141	
	Senideen zaintza	E	95	% 91
		G	9	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	3	
		G	0	
			1224	
Justizia	Seme-alaben zaintza	E	40	% 100
		G	0	
	Senideen zaintza	E	13	1
		G	0	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	0	
		G	0	
			53	
Herrizaingoa	Seme-alaben zaintza	E	10	% 100
		G	0	
	Senideen zaintza	E	1	% 50
		G	1	
	Pertsona desgaituen zaintza	E	1	
		G	0	
			13	
	PERTSONAK GUZTIRA		1663	

* Ebaluazioaldian zehar uneren batean lanaldi-murrizketako egoeran egon diren pertsonen kopuruari buruzko datua. Ebaluatutako aldian enplegatu bat behin baino gehiagotan murrizketan egonda ere, behin bakarrik kontabilizatzen da. Iturria: Funtzio Publikoko Zuzendaritzak emandako datuak. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

4) Berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroetarako bertaratzea erabat feminizatuta dago.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, berdintasun-ikastaroetan parte hartu duten pertsonen % 82 emakumeak dira.

7. taula. HAEK eskaintzen dituen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroetara bertaratzea. 2017

2017	HAEK-ESKAINITAKO BERDINTASUNAREN ARLOKO IKASTAROAK	GUZTIR A	EMAKUMEA K	GIZONA K
OTSAILA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO IKASTAROA	19	15	4
	HIZKUNTZAREN BERDINTASUNEZKO ERABILERA GURE KOMUNIKAZIOAN	45	39	6
MARTXOA	GENERO-IKUSPEGIA DUEN KOMUNIKAZIOA	12	9	3
	GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AZTERLAN ETA IKERKETA KUANTITATIBOAK	24	22	2
	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	37	29	8
	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	33	29	4
MAIATZA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO IKASTAROA	10	8	2
EKAINA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK	12	11	1
	GENERO-IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUEI BURUZKO LANTEGIA (2. EDIZIOA)	43	34	9
URRIA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK	20	16	4
	GENERO-INPAKTUAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA	8	7	1
	DENBOREN IKUSPEGI BERRIAK: ERANTZUNKIDETASUNA ETA BATERATZEA	36	30	6
AZAROA	EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK	33	24	9
	GENERO-IKUSPEGIA DUEN PERTSONEN KUDEAKETA ADMINISTRAZIOAN	43	3	10
	GUZTIRA	375	304	71

Iturria: HAEK emandako datuak.

6. GASTUEN ANALISIA (II): SAILAK ETA HORIEN GASTUKO AURREKONTU-PROGRAMAK

Jarraian, 2019rako EAEko Aurrekontu Orokorra banakatzen da:

8. taula. 2019ko aurrekontu bateratua

AURREKONTU BATERATUA ATALKA			
Atala	IZENA	€	Guztizko aurrekontuaren gaineko %
00	LEGEBILTZARRA	31.100.000	% 0,3
01	LEHENDAKARITZA	122.669.000	% 1,0
02	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	121.114.000	% 1,0
03	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	865.940.000	% 7,3
04	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	1.028.790.000	% 8,7
05	INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	223.390.000	% 1,9
06	OGASUNA ETA EKONOMIA	52.582.000	% 0,4
07	HEZKUNTZA	2.845.407.000	% 24,1
08	OSASUNA	3.800.123.000	% 32,2
09	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	41.167.000	% 0,3
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	260.137.000	% 2,2
11	SEGURTASUNA	658.215.000	% 5,6
12	LANA ETA JUSTIZIA	217.391.000	% 1,8
51	LAN-HARREMANEN KONTSEILUA	2.517.600	% 0,02
52	EUSKAL EKONOMIA- ETA GIZARTE-KONTSEILUA	1.426.192	% 0,01
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOI-KONTSEILUA	1.027.443	% 0,01
54	HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA	7.729.815	% 0,1
55	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA	1.752.705	% 0,01
90	ZOR PUBLIKOA	1.331.216.386	% 11,3
95	BALIABIDE ETA KONPROMISO INSTITUZIONALAK	80.074.555	% 0,7
99	HAINBAT SAIL	90.339.304	% 0,8
	Guztira	11.784.109.000 €	% 100,0

Aurrekontua 21 ataletan banatzen da:

- ❖ 1.tik 12.era bitarteko atalak Eusko Jaurlaritzaren egitura organikoa osatzen duten sailei dagozkie. Euren politika publikoak betetzeko, aurrekontu osoaren % 87 jasoko dute.
- ❖ Osasun eta Hezkuntza sailek batera aurrekontuaren % 56 batera jasotzen dute. Bere aurrekonturen ia osotasuna zuzenean kudeatzen duen Hezkuntzarekin alderatuz gero, Osasun Sailak % 77 transferitzen dio Osakidetzari.

- ❖ Osakidetza bereiz kontuan hartuta, ikus dezakegu erakunde horri bakarrik baliabideen % 25 eskaintzen zaizkiola.
- ❖ Aurrekontuaren % 1,83 atal hauetarako gordetzen dira: 0 (Legebiltzarra), 51 (Lan Harremanen Kontseilua), 52 (Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua), 53 (Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseilua), 54 (Herri Kontuen Euskal Epaitegia), 55 (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa), 95 (Baliabide eta Konpromiso Instituzionalak) eta 99 (hainbat sail). Gastua IV. kapituluan (gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak) dago nagusiki.

Aurreko aurrekontuen gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenetan azaldu denez, aurrekontuekin ezartzen diren politika publikoen analisia konplexua denez, epe luzerako hobekuntza-prozesu gisa planteatzen da berori. Eskatzen du:

- ❖ Aztertzea zen inpaktu duten aurrekontu-esleipenek emakumeen eta gizonen aukera sozioekonomikoen gainean, Euskal Administrazio Publikoaren jarduketa-esparru guztietan, eta plangintza, gauzatze eta ebaluazioko fase guztietan.
- ❖ Berregituratzea duten inpaktuagatik egungo diskriminazio-egoerei eusten dieten edo horiek areagotzen dituzten partidak, emakumeek eta gizonek gure gizartean duten egoera eta/edo posizioa dela eta.

Lehen fase honetan, Administrazio Orokorraren eta atxikitako erakunde autonomo eta partzuergoen aurrekontuak aztertzeke prozedura sakondu eta sendotu nahi da, eta 2019rako bateratutako aurrekontu osoaren % 69 eskatzen du horrek.

9. taula. Aurrekontu bateratu banandua

Atala	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA PARTZUERGOEN AURREKONTUA		GUZTIZKO AURREKONTUA SAILKA	Sailaren guztizkoaren gaineko % (gainerakoa erakunde, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazioentzak o transferentziak dira)
00	LEGEBILTZARRA	31.100.000	31.100.000	% 100
	1111. Legebiltzarra	31.100.000		
01	LEHENDAKARITZA	67.658.696	75.885.696	% 62
	1121. Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza	9.898.344		
	1311. Kanpo Harremanak	8.760.033		
	4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	8.450.319		
	5414. Berrikuntzarako Funtza	40.550.000		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	8.227.000		
	3223. EMAKUNDE	6.165.000		
	4622. GOGORA. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	2.062.000		
02	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	59.803.693	79.483.693	% 66
	1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	1.109.261		
	1211 - Gobernantza Publikoa eta Autogobernua. Egitura eta Laguntza	4.770.445		
	1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.725.076		
	1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	6.956.981		
	1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	7.466.041		
	1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	7.982.092		
	1217 - Erakunde Harremanak	2.625.941		
	1218 - Araubide Juridikoa	3.835.005		
	1219 - EAEko Administrazio Publikoaren Datuen Babesa	332.851		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	19.680.000		
	1216. HAE. Administrazio Publikoetako langileen Hautaketa eta Prestakuntza	8.949.944		
	4714. HAE. Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa	10.730.056		
03	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	526.040.117	526.040.117	% 61
	5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta	48.202.007		

	Kudeaketa			
	5135 - EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak	76.397.416		
	5141 - Garraioaren Plangintza	6.022.126		
	5151 - Portuak	18.290.498		
	5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko lkerketa eta Garapena	11.188.515		
	5413. Teknologia	153.621.872		
	5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda	6.067.057		
	7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena	75.793.378		
	7112. Arrantza	19.772.412		
	7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	17.627.867		
	7211. Egitura eta Laguntza. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak	14.771.864		
	7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	67.468.714		
	7213. Industria Segurtasuna	4.630.923		
	7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	1.542.461		
	7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena	4.643.007		
04	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	168.576.354	1.053.543.354	% 102
	3111. Enplegu eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	4.796.254		
	3121. Gizarteratzea	27.900.000		
	3122. Immigrazioa	6.346.607		
	3123. Gizarte Zerbitzuak	35.468.910		
	3124. Familia eta Komunitate Politika	83.789.240		
	3211. Enplegua	1.529.447		
	3222. Gazteria	8.745.896		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	884.967.000		
	3111. LANBIDE. Enplegu eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	28.105.848		
	3121. LANBIDE. Gizarteratzea	489.267.341		
	3211. LANBIDE. Enplegua	256.804.566		
	3231. LANBIDE. Prestakuntza	110.789.245		
05	INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	119.458.912	119.458.912	% 53
	4312. Etxebizitza	87.023.305		
	4313. Lurralde Antolamendua	8.495.603		
	4420. Egitura eta Laguntza	4.734.764		
	4421. Ingurumenaren Babesa	18.548.990		
	5414. Berrikuntzarako Funtza	656.250		
06	OGASUNA ETA EKONOMIA	35.030.827	49.900.827	% 95
	6110. Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza	3.493.710		
	6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.688.524		
	6112. Zerga Politika	3.273.638		

	6114. Ondarea eta Kontratazioa	8.176.287		
	6311. Finantza Politika	10.398.668		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	14.870.000		
	6115. Lehiaren Euskal Agintaritza	1.433.000		
	5513. EUSTAT. Estatistika Eragiketa eta Argitalpen Ofizialak	13.437.000		
07	HEZKUNTZA	2.780.381.007	2.836.291.007	% 100
	4211. Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	76.491.780		
	4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	953.673.991		
	4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.014.095.436		
	4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	330.541.024		
	4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak	48.130.535		
	4225. Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea	49.218.306		
	4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza (HHE)	34.300.516		
	4231. Hezkuntza Sustapena	175.865.093		
	4715. Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.566.641		
	5412. Ikerketa	55.497.685		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	55.910.000		
	4221. HAURRESKOLAK partzuergoa. Haur eta Lehen Hezkuntza	55.910.000		
08	OSASUNA	847.631.583	847.631.583	% 22
	4111. Osasuna. Egitura eta Laguntza	13.667.120		
	4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	248.679.318		
	4113. Osasun Publikoa	42.869.805		
	4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	7.150.811		
	4115. Farmazia	530.660.637		
	4116. Adikzioak	4.603.892		
09	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	26.908.445	33.644.445	% 82
	7510. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Egitura eta Laguntza	2.769.406		
	7511. Turismoa	7.475.621		
	7612. Barne Merkataritza	16.663.418		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	6.736.000		
	4432. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua	6.736.000		
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	72.351.543	116.199.543	% 45
	4511. Kultura eta Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	3.303.079		
	4512. Kirolak	7.118.450		
	4513. Kulturaren Sustapena	20.861.391		
	4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	21.573.488		
	4711. Hizkuntza Politika	19.495.135		

	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	43.848.000		
	4713. HABE. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	43.848.000		
11	SEGURTASUNA	636.158.232	654.018.232	% 99
	2211. Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	4.331.336		
	2221. Trafikoa	12.482.673		
	2223. Ertzaintza Zerbitzuan	604.496.933		
	2231. Larrialdiei Aurre Egitea	4.630.242		
	4611. Hauteskundeak	5.110.116		
	5512. Meteorologia eta Klimatologia	3.239.664		
	6113. Joko eta Ikuskizunak	1.867.268		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	17.860.000		
	2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	17.860.000		
12	LANA ETA JUSTIZIA	198.885.073	213.272.073	% 98
	1411. Justizia Administrazioa	138.345.084		
	1412. Justizia	37.629.490		
	3110. Lana eta Justizia. Egitura eta Laguntza	2.061.392		
	3112. Lana	15.722.917		
	3212. Gizarte Ekonomia	5.126.190		
	Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:	14.387.000		
	3113. OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	14.387.000		
51	LAN-HARREMANEN KONTSEILUA	2.517.600	2.517.600	% 100
	3131. Lan Harremanen Kontseilua. Gizarte Solaskidetzaren Garapena			
52	EUSKAL EKONOMIA- ETA GIZARTE-KONTSEILUA	1.426.192	1.426.192	% 100
	1124. Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua			
53	EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOI-KONTSEILUA	1.027.443	1.027.443	% 100
	3213. Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseilua			
54	HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIA	7.729.815	7.729.815	% 100
	1112. Herri Kontuen Euskal Epaitegia - HKEE			
55	DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA	1.752.705	1.752.705	% 100
	1113. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa - DBEB			
90	ZOR PUBLIKOA	1.331.216.386	1.331.216.386	% 100
	0111. Zor publikoa			
95	ERAKUNDEEN BALIABIDEAK ETA KONPROMISOAK	80.074.555	80.074.555	% 100
	9119. Bestelako finantza-harremanak Euskal Sektore Publikoarekin			
99	HAINBAT SAIL	90.339.304	90.339.304	% 100
	Guztira	8.152.553.482 €	8.152.553.482 €	% 69⁷

⁷ % 69 aurrekontu bateratuaren gainean (11.784.109.000 €).

0 atalaren eta 51.etik 99era bitarteko ataletako gastuaren osaerak generoari ematen dion garrantzi txikia dela-eta, ez zaie genero-inpaktuari buruzko analisirik eskatu. Hala ere, hurrengo txostenetarako interesgarritzat jotzen da honako hauen osaera aztertzea: Lan Harremanen Kontseilua, Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Euskadiko Kooperatiben Goi Kontseilua eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia; emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ordezkariak orekatuaren printzipio orokorra zaintzeko⁸.

Global horretatik, beraz, Administrazio Orokorrari dagokion zatia (kenduta 0 atala 55.etik 99era bitarteko atalak), erakunde autonomoak eta partzuergoak soilik aztertuko dira; hau da, 2019rako bateratutako aurrekontuaren % 56.

Laburbilduz, genero-inpaktuari dagokionez analiza daitekeen aurrekontua, aurrekontuko programen arabera banatua, honako hau da:

10. taula. Genero-ikuspegitik aztertu beharreko aurrekontua


2019ko AURREKONTU OROKORREN GAINEKO GENERI INPAKTUARI BURUZKO TXOSTENEAN AZERTU BEHARREKO AURREKONTUA		
Atala	AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK	
01	LEHENDAKARITZA	75.885.696
02	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	79.483.693
03	EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	526.040.117
04	ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	1.053.543.354
05	INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	119.458.912
06	OGASUNA ETA EKONOMIA	49.900.827
07	HEZKUNTZA	2.836.291.007
08	OSASUNA	847.631.583
09	TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	33.644.445
10	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	116.199.543
11	SEGURTASUNA	654.018.232
12	LANA ETA JUSTIZIA	213.272.073
	GUZTIRA	6.605.369.482 €

Beraz, EAerako aurrekontu orokorretatik, txosten honetan horien % 56 (6.605.369.482 €) aztertuko da. Ehuneko hori 99 aurrekontu-programetan banatuta dago, eta horietatik 15 (aurrekontuaren % 13) sailei atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak kudeatzen dituzte.

1. grafikoa. Txostena aztertzeko bereizitako aurrekontua

⁸ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. 3. artikulua. 7) Printzipio orokorrak. Ordezkariak orekatua: "Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan".

2019ko Aurrekontu Orokorrak



1: Administrazio Orokorraren (1.-12. arteko atalak), erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontua

2: 0 atalaren eta 51.-99. arteko atalen aurrekontua (erakunde, sozietate publiko eta sektore publikoko fundazioak)

GENERO INPAKTUA AZTERTZEKO TRESNA: P19-GEN

Gobernu Kontseiluak, 2018ko ekainaren 12an egindako bilkuran, onartu egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019rako Aurrekontu Orokorrak egiteko beharrezko jarraibide ekonomikoak, Ogasun eta Ekonomia Sailak prestatutako eta arau teknikoekin batera.

Ondoren, eta modu esplizituan, Aurrekontuetako Zuzendaritzak hamabi sailei eskatu zien “Aurrekontu-programen analisisa genero-ikuspegitik. P19-Gen”⁹ tresna bete zezaten, bi helburu hauekin:

- ❖ Hobekuntza-tresna gisa jardutea, jarduera publikoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna benetan lortzeko helburu globalera bideratzeko.
- ❖ Aurrekontu orokorren genero-inpaktuari buruzko txostena informazioaz elikatzea.

Tresna horrek, abian jarri berria denez, eskatzen du Euskal Administrazio Publikoa etengabe berrikustea eta errealitatera egokitzea. Horretarako, Ogasun eta Ekonomia Sailak Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) aholkularitza izan du, Emakunderen lankidetzaz eta Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen berdintasun-tekniken ekarpenez gainera.

Nobedade gisa, P19-Gen formularioari dagokionez, honako hau nabarmendu behar da:

- ❖ Hizkuntza argiagoa eta didaktikoagoa erabiltzen saiatu da.
- ❖ Horrez gain, eskatzen du berdintasunerako mandatu programatikoak (eta ez arauemaileak soilik) betetzen direla aztertzea. Bereziki, honako hauek aipatzen ditu: 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako VII. Plana; eta berdintasunerako sailen planak eta plan sektorialak, programen edukiari eragiten diotenak.
- ❖ Lehen aldiz, analisisan sartzen ditu prozesuan nahiz beren osotasunean genero-ikuspegiak diseinatuta dauden helburuak eta ekintzak.

⁹ 2019ko Aurrekontuen Liburua, Arau Teknikoak, 28. orrialdea.

- ❖ Alde batera uzten du funts publikoak jasotzen dituzten tarteko eta amaierako erakundearen barne-analisia; berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak jasotzean erakunde horiek hartzen duten konpromisoan sakontzeko.
- ❖ Bidea ematen du aurrekontu-programak jasotzen duen aurrekontua bereizteko, gero beste erakunde batzuek gauzatuko dutena.

P19-Gen formularioak bost atal eta zenbait azpiatal ditu:

1. Programa
2. Programak generoarekiko duen egokitasunari buruzko analisia
3. Programak generoarekiko duen garrantziari buruzko analisia:
 - 3.1. Programaren deskribapen orokorra egitea eta berdintasunerako mandatu arauemaile eta programatikoak betetzearekin alderatzea, berdintasunari buruzko gaiak barne hartzen dituzten mandatu sektorialak barne direla.
 - 3.2. Dagozkion programak sailkatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko duten garrantziaren arabera.
4. Programaren helburuei eta ekintzei buruzko analisia:
 - 6.1. Erakunde autonomoek eta Sailari atxikitako beste erakunde publiko batzuek kudeatutako programaren helburuen zerrenda
 - 6.2. Garrantzi txikikotzat edo ez-egokitatzat hartzen diren programaren helburuen zerrenda
 - 6.3. Programaren edukiei buruzko analisia zein populaziori eragiten dioten kontuan hartuta
5. Programari buruzko gogoeta eta hura hobetzeko proposamenak:
 - 5.1. Aurrerapenak aurreko ekitaldiekiko
 - 5.2. Hobekuntza-neurri zuzentzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko
 - 5.3. Programaren jarduketa-esparruari lotuta, ezagutzen al da genero-ikuspegia duen azterketa berriren bat? Zein?
 - 5.4. Kontuan hartzen al da genero-ikuspegia duen azterlanen bat egiteko aukera? Zein?
 - 5.5. Zuzenketa-proposamenak: hizkuntza ez-sexista erabiltzea eta estereotipo sexistak ezabatzea komunikazio-elementuetan

AURREKONTU-PROGRAMAREN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Arau teknikoaren arabera, aurrekontu-programa bat generoarekiko egokia da, baldin eta, irakurri ondoren, honako gai hauetako bati baiezkota erantzunez gero:

- ❖ Pertsona fisikoei, juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko beste erakunde batzuei zuzenduta al dago?
- ❖ Programaren ekintzek eragina dute emakumeen eta gizonen bitartekoaren sarbidean eta kontrolean?

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Administrazio Orokorrek, erakunde autonomoek eta partzuergoek duten aurrekontuaren % 99,87 generoarekiko egokitatzat jotzen da eta, beraz, txosten honetan analiza daiteke.

11. taula. Aurrekontu-programek generoarekiko duten egokitasunari buruzko analisia

AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN EGOKITASUNARI BURUZKO ANALISIA	
SAILKA	
ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK BARNE	EGOKITASUNA
LEHENDAKARITZA	% 100
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	% 95
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	% 99
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	% 100
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	% 100
OGASUNA ETA EKONOMIA	% 100
HEZKUNTZA	% 100
OSASUNA	% 100
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	% 100
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	% 100
SEGURTASUNA	% 100
LANA ETA JUSTIZIA	% 100
GUZTIRA	% 99,87

Adierazgarria da generoarekiko egokitasunaren arabera aztertutako aurrekontuaren portzentajea % 97tik % 99,87ra igotzen dela; hau da, ia %100era iristen da. Alde hori justifikatzen da, hain zuzen ere, P-Gen tresnak erabiltzen dituen kontzeptuei beraiei buruzko ezagutza handiagoko gauden prozesuaren esparruan. Hala, adibidez, generoarekiko egokitatzat jotzen dira dagoeneko aurrekontu-programa hauek: 1125 "Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa" edo 2224 "Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia".

Hamar sailek euren aurrekontua generoarekiko %100ean egokitatzat jotzen dute. Gobernantza Publikoa eta Autogobernua eta Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak sailei dagokienez, ehunekoa murriztu egiten da, kasu bakoitzean aurrekontu-programa bat ez-egokitatzat jotzen baita.

Sail bakoitzari buruzko ataletan, zehatzago aztertuko da bere programen egokitasuna generoarekiko.

AURREKONTU-PROGRAMAREN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Atal honetan, generoarekiko duten garrantziaren arabera aurrekontu-programak aztertzea eskatzen da. Horretarako, bi irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- ❖ Helburu-populazioa (1. irizpidea): generoarekiko garrantzia baloratzen da, programak jardun dezakeeneko helburu-populazioaren izaera estrategikoaren eta/edo lehentasunaren arabera.

❖ Aldaketa-ahalmena (2. irizpidea): genero-desberdinkeriak murrizteko gaitasuna neurtzen du.

Beste txosten batzuei dagokienez, aipatzekoa da generoari dagozkion aurrekontu-programen % 100 kalifikatu direla beren garrantziaren arabera. Oro har, aurreko ekitaldietarako egindako balorazioei eusten zaie.

Jarraian erakusten den taulan, sail bakoitzak (erakunde autonomoak eta partzuergoak barne) aurrekontu-programei eman dien garrantzia aztertzen da:

12. taula. Aurrekontu-programek generoarekiko duten garrantziari buruzko analisia

AURREKONTU-PROGramek GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIARI BURUZKO ANALISIA SAILKA			
ADMINISTRazio OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK	GARRANTZI HANDIA	GARRANTZI ERTAINA	GARRANTZI TXIKIA
LEHENDAKARITZA ¹⁰	% 45	% 55	% 0
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	% 37,2	% 25,2	% 37,6
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	% 0	% 67	% 33
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	% 97	% 3	% 0
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	% 12	% 88	% 0
OGASUNA ETA EKONOMIA	% 26	% 27	% 47
HEZKUNTZA	% 80	% 18	% 2
OSASUNA	% 35	% 65	% 0
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	% 50	% 50	% 0
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	% 81	% 19	% 0
SEGURTASUNA	% 99,70	% 0,30	% 0
LANA ETA JUSTIZIA	% 100	% 0	% 0
AURREKONTUAREN %-A GENEROAREKIKO GARRANTZIAREN ARABERA	% 72	% 24	% 4

Aurrekontu-programak garrantzi handikotzat kalifikatzeko joera ikusten da. Izan ere, 2018ko aurrekontuekin alderatuta, % 28 igo da garrantzi handiko aurrekontua; % 25 dagokio garrantzi ertainari, eta % 3, berriz, garrantzi txikiari. Garrantzi handiko eta ertaineko aurrekontua guztizkoaren % 94ra igo da. Garrantzi txikiko aurrekontua hiru sailetan banatzen da nagusiki (Gobernantza Publikoa eta Autogobernua, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak eta Ogasuna eta Ekonomia).

¹⁰ "5414. Berrikuntzarako Funtsa" programa ez da kontuan hartu generoarekiko garrantzia aztertzeko. Hurrengo aurrekontu orokorreari begira analisia egitea aurreikusita dago.

Atal honetan, aurrekontu-programen arduradunei eskatzen zaie berdintasun-ekintza espezifikoak zerrendatu ditzaten —bai aurrekontu-memoretan jasota daudenean, baita ez daudenean ere—, eta ekintza horiei gutxi gorabeherako edo esleitutako aurrekontu bat ezar diezaieten. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Printzipio Orokorrei buruzko 3. artikularen jarraipena egin nahi da; hain zuzen, artikulua horren 4. eta 5. atalena:

(4) – Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Euskal herri-aginteei genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

(5)– Ekintza positiboa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteei denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

Genero-ikuspegiaren diseinatutako ekintzatzat ulertzen da: emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak kontuan hartuta diseinatuta dagoena; baliabideetara baldintza berdinetan sartzeko aukera bermatzen duena; eta benetako berdintasunerantz aurrera egitean izandako emaitzak eta eraginak identifikatu eta ebaluatzen duena.

Ekintza positibotzat ulertzen dira emakume eta gizonentzako desberdinak diren neurri espezifikoak eta denborazkoak, bizitzaren esparru guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko desberdinkeriak ezabatzera edo murriztera bideratutakoak. Horien artean daude, adibidez, aitatasun-baimen berdina eta besterenezinak.

Txosten honetan, berdintasunerako ekintza positiboek dagokien informazioa aipatuko da. Genero-ikuspegiari jarraituz diseinatutako ekintzei buruzko analisia ezin da egin aurrekontu-programa bakoitzerako erabilitako irizpideetan arteko desberdintasunaren arabera. Arazo hori konpontzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak lantalde bat koordinatuko du Gobernuaren eta erakunde autonomoen berdintasun-teknikekin, Emakunderen lankidetzarekin, 2018-2019 aldirian. Espero da 2020ko aurrekontuetan genero-ikuspegiaren diseinatutako ekintzak irizpide adostuekin aztertu ahal izatea.

Jarraian, sailek identifikatu dituzten berdintasun-ekintzetarako aurrekontu espezifikoa azaltzen da.

13. taula. Berariaz berdintasun-ekintzetara bideratutako aurrekontua sailka

AURREKONTU ESPEZIFIKOA DUTEN IDENTIFIKATUTAKO BERDINTASUN-POLITIKAK SAILKA	AURREKONTUA (€)	%
LEHENDAKARITZA		
LEHENDAKARITZA	64.038	
Emakunde (aurrekontu osoa)	6.165.000	
GUZTIRA	6.293.075	% 9,37
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	176.540	
HAEE. Berdintasunerako Administrazio Unitatea sortzea	56.000	
GUZTIRA	232.540	% 0,35
EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK		
GUZTIRA	192.810	% 0,29
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	55.514.285	
LANBIDE	106.156	
GUZTIRA	55.620.441	% 82,80
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA		
GUZTIRA	273.266	% 0,41
OGASUNA ETA EKONOMIA		
OGASUNA ETA EKONOMIA	116.039	
EUSTAT	102.208	
GUZTIRA	218.247	% 0,32
HEZKUNTZA		
GUZTIRA	909.562	% 1,35
OSASUNA		
GUZTIRA	1.394.504	% 2,08
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA BERDINTASUN POLITIKA ESPEZIFIKOAK		
GUZTIRA	714.200	% 1,06
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	461.072	
HABE	58.039	
GUZTIRA	519.111	% 0,77
SEGURTASUNA		
SEGURTASUNA	64.861	
AKADEMIA	15.000	
GUZTIRA	79.861	% 0,12
LANA ETA JUSTIZIA		
LANA ETA JUSTIZIA	425.000	
OSALAN	202.000	
GUZTIRA	729.150	% 1,09
GUZTIRA	67.176.767	% 100

Zenbateko hori aurreko txostenetakoa (hamar bat milioi) baino askoz ere handiagoa da; batez ere, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bateragarritasunerako neurriak hartu direlako. Hala ere, azpimarratu beharra dago emakumeen bizitzan neurri horiek duten benetako eraginari buruz gogoeta egitea eta sortu duten eragin maltzurra neutralizatzea komeni dela. Egiaztatuta dago batez ere emakumeak biltzen direla neurri horietara, eta, beraz, haiek ikusten dituztela murriztuta euren aukerak lan-esparruan, emakumeen eta gizonen arteko soldata-arraila are gehiago sakonduta.

Gainerako sailetan ere nabaritu da berdintasun-politika espezifikoetara zuzendutako baliabideen gehikuntza. Oraingo honetan, horren arrazoia da sailen berdintasun-planak egiteko prozesua bera, eta, besteak beste, berdintasunaren arloan langileek duten prestakuntza handiagoa, txosten hau informazioz elikatzen duten P-Gen formularioak betetzen parte hartzen duten langileena, hain zuzen.

Hurrengo taulan, 2019an identifikatutako aurrekontuaren eta 2018koaren arteko konparazioa ageri da.

AURREKONTU OROKORRAK	BERDINTASUN-POLITIKEN EHUNEKOAK	
	dagokion aurrekontuaren gainean	aurrekontu bateratuaren gainean
2018	% 0,11	% 0,09
2019	% 1	% 0,60
gehikuntza	% 0,89	% 0,51

Ia sail guztiek HAEEko ikastaroetara joateko langileentzako jarraibideetan sartu dute berdintasunari buruzko ikastaroak ez zenbatzea baimendutako prestakuntza-ikastaroen gehieneko kopurua kalkulatzeko. Gainera, berdintasun-unitateak buru direla, askotan, prestakuntza sektoriala ematen die Administrazioari langileei. Horrela, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 17. artikulua betetzen ari da:

17. artikulua. – Euskal herri-administrazioetako langileen gaikuntza

1. – Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko. Izan ere, horrela, lege honetan biltzen diren xedapenak beteko dira eta, gainera, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatuko.

Txosten honen ondorioetarako, sailei eskatu zaie 2019rako berdintasun-klausulak izango dituzten litzkeen kontratu, hitzarmen, diru-laguntza eta bestelako laguntzei buruzko aurrekontua aurreikustea. Ildo horretatik, espero zen informazioa irauli ez denez, hurrengo P-Gen formularioari begira, interesgarria litzateke gogoeta egitea programen arduradunek informazioa betetzean izan dituzten zailtasunen inguruan. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2. artikulua jarraipena egin nahi da.

4/2005 LEGEA. 2. ARTIKULUA. – APLIKAZIO-EREMUA. 3. PUNTUA. – Lege honetako 3. artikuluko eta 16, 18.4 eta 23. artikuluetako printzipio orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginte

guztiei aplikatuko zaizkie. Erakunde pribatuei ere aplikatuko zaie, baldin eta Erkidegoko herri aginteetako batekin kontratuak edo lankidetza-hitzarmenak sinatzen badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira.

Azkenik, Gobernu Programak XI. legegintzaldirako hartutako konpromisoen artean, nabarmentzekoa da soldata-diskriminazioari aurre egiteko eta lan-ingurunean gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra bultzatzeko konpromisoa (10. konpromisoa); baita lansarien arloko berdintasunean aurrera egiteko, enpresetan soldata-gardentasuna sustatzeko eta soldata-diskriminazioari aurre egiteko neurri ekonomiko eta sozialak bultzatzeko konpromisoa ere.

Ildo horretatik, Lehendakaritza, Emakunderekin batera, koordinatzen eta bultzatzen ari da *EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN SOLDATA-ARRAILA MURRIZTEKO ESTRATEGIA ETA EKINTZA-PLAN OPERATIBOA*.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sailen eta erakunde autonomoen inplikazioa du, baita eragile ekonomiko eta sozialen eta, oro har, herritarren lankidetza ere. Estrategia 2018aren amaiera aldean onartzea eta 2019ko urtarrilean abian jartzea aurreikusi da.

Planteatzen den erronka funtsezkoa da berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, eta, beraz, egokia da generoarekiko oso garrantzi handiarekin.

Estrategia lantze-fasean dagoenez, ezin da txosten honetan zehaztu zein zenbateko erabiliko diren hura ezartzeko. Era berean, onartuta ez dagoenez, ezin da aztertu hura osatuko dute neurriak eta ekintzak zein izango diren.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoan soldata-arraila murrizteko Estrategiari zuzendutako aurrekontu osoaren genero-ikuspegia urteko plan operatiboen bidez aztertuko da, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta inplikaturako erakunde autonomoekin elkarlanean.

Sail bakoitzari buruzko ataletan zehaztasun handiagoz aztertzen da aurrekontu-programen inguruko informazioa.

6.1. LEHENDAKARITZA

Jaurlaritzaren politikak koordinatzen ditu Lehendakaritzak, eta gobernu-programa garatu eta betetzeaz arduratzen da. Gainera, bere gain hartzen ditu arlo hauek: Kanpo Ekintza, Bakea eta Bizikidetza, Garapen Lankidetza, Herritarren Partaidetza eta Berdintasun Politikak. Lehendakaritzaren mende dago, halaber, Jaurlaritzaren bozeramailearen arloa.

Bere eginkizunak betetzeko, aurrekontu orokorraren % 1 du, 7 programatan banatuta, taula honetan ikus daitekeenez:

15. taula. Aurrekontu bateratua. Lehendakaritza

LEHENDAKARITZA	AURREKONTU BATERATUA
1121. Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza	10.968.644
1311. Kanpo Harremanak	8.760.033
1312. Garapen Lankidetza	46.200.000
3221. Emakumeen Aukera Berdintasuna Sustatzea	5.688.004
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	8.450.319
4622. Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Institutua	2.052.000
5414. Berrikuntzarako Funtsa	40.550.000
GUZTIRA	122.669.000

Zenbateko horretatik, % 45 Emakunde eta Gogora erakunde autonomoei eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoari transferitzen die.

Kontuan izanik txosten honetan aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoei eta partzuergoei dagokiena soilik aztertzen dela, aztertu beharreko aurrekontua 75.885.696 € da; hau da, Lehendakaritzari esleitutako guztizkoaren % 62. Aldea, % 38, Lankidetzaren Euskal Agentziari transferitutako aurrekontuari dagokio (1312. Garapen Lankidetza programa).

16. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Lehendakaritza

LEHENDAKARITZA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
1121. Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza	9.898.344
1311. Kanpo Harremanak	8.760.033
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	8.450.319
5414. Berrikuntzarako Funtsa	40.550.000
<i>Lehendakaritzari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
3223. EMAKUNDE	6.165.000
4622. GOGORA. Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Institutua	2.062.000
GUZTIRA	75.885.696

Guztira, 6 aurrekontu-programa aztertuko dira hurrengo ataletan.

Emakunde¹¹ Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, berdintasun politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzen dituen, EAEn emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko. Bi jarduera-esparru nagusi hauek ditu:

- ❖ Administrazio publikoekin egiten duen lana, berdintasunaren aldeko egiturak sendotzeko eta politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jar daitezen bultzatzeko; eta
- ❖ gizartearekin oro har egiten duen lana, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, enpresetan berdintasuna sustatzeko, emakumeekiko indarkeria prebenitzeko, diskriminazio-kasuetan aholkularitza eta defentsa eskaintzeko, eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatzeko.

Beraz, programa hau Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politiken ardatz nagusia da.

Gogora erakundearen funtsezko eginkizuna da dibulgazio- eta pedagogia-helburuekin memoria kritikoa zaintzea eta transmititzea. Horretarako, lankidetzak eta elkarlana sustatzen ditu memoriaren esparruan, giza eskubideen sustapenean eta hezkuntza-esparruan lan egiten duten beste gizarte-instituzio eta -erakunde batzuekin, gizartearekin ahalik eta harreman handiena izateko bidea bermatzeko.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

“5414. Berrikuntzarako Funtza” programa, lehen aldiz, generoarekiko egokitzat hartzen da. Horrela, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokia da.

17. taula. Generoarekiko egokitasuna Lehendakaritza

LEHENDAKARITZA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
1121. Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza	9.898.344	BAI
1311. Kanpo Harremanak	8.760.033	BAI
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	8.450.319	BAI
5414. Berrikuntzarako Funtza	40.550.000	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
3223. EMAKUNDE	6.165.000	BAI
4622. GOGORA. Memoria, Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Institutua	2.062.000	BAI
GUZTIRA	75.885.696	% 100

¹¹ Otsailaren 5eko 2/1988 Legearen bidez sortutako erakunde autonomoa. Emakunderi buruzko informazio gehiago esteka honetan: <http://www.emakunde.euskadi.eus/inicio/>

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

“5414. Berrikuntzarako Funtsa” programak generoarekiko duen garrantzia —haren konplexutasuna dela eta— datorren ekitaldian zehar egingo da, 2020ko aurrekontuetako generoari buruzko txostenean sartzeko helburuarekin. Hori dela eta, ez dago jasota jarraian ageri den garrantzien taulan.

18. Generoarekiko garrantzia. Lehendakaritza

LEHENDAKARITZA				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
1121. Lehendakaritza. Egitura eta Laguntza	9.898.344	6		
1311. Kanpo Harremanak	8.760.033		4	
4621. Biktimak eta Giza Eskubideak	8.450.319		4	
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
3223. EMAKUNDE	6.165.000	6		
4622. GOGORA. Memoria, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Institutua	2.062.000		4	
GUZTIRA	35.335.696	% 45	% 55	% 0

“5414. Berrikuntzarako Funtsa” programak aurrekontuaren % 53 duenez, aztertu beharreko Lehendakaritzaren guztizkoa nabarmen murrizten da: % 47, hau da, 35.335.696 €.

Hain zuzen ere, berdintasun-politiketan eginkizunak dituzten bi programek (“Egitura eta Laguntza”; bertan dago berdintasunerako administrazio-unitatea) eta Emakundek, jakina, garrantzi handiena dute.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikotarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

19. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Lehendakaritza

LEHENDAKARITZA BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	59.038
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
Emakunde	6.165.000
GUZTIRA	6.229.038

Emakunderen aurrekontua zertxobait igo da.

Aurrekontu espezifikoa duten berdintasun-politiken pisuaren ehunekoa kalkulatzeko, kontuan hartu da, erreferentzia gisa, generoarekiko garrantzitsua den aurrekontua; hori baita, hain zuzen, benetan xehetasunez aztertzen dena. Hori adierazita, esan dezakegu aurrekontuaren % 17,63 berdintasun-ekintza espezifikoetara zuzentzen dela.

Hauek dira aurrekontu espezifikorik ez duten identifikatutako berdintasun-ekintza espezifiko batzuk:

❖ “Egitura eta Laguntza” programa:

- Aurreko legegintzaldiko Gobernuaren plan estrategikoetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txostena egitea (Koordinazioko Zuzendaritzak emandako datuen bidez).
- Zenbait prestakuntza-ekintza antolatzea BERDIN Blai Gela programaren barruan (etengabeko prestakuntzarako programa, Lehendakariitzako langileei zuzendua berdintasunaren arloan karrera profesionala garatzeko), plantilla osoarentzat landutako prestakuntza-planaren arabera.
- Lehendakariitzako web-orriak berrikustea eta hainbat elementu gehitzea, genero-ikuspegitik begiratuta: BASQUE COUNTRY, REVIE...
- Genero-ikuspegitik arauak aztertu, horien inguruan aholkatu eta egokitzea, Lehendakariitzaren urteko plan arauemailearen arabera.

❖ “Kanpo Harremanak” programa:

- Garapen Iraunkorrerako Helburuen ezarpenaren jarraipena egitea Gobernu Planetan, GENERO BERDINTASUNERAKO 5. helburuari dagokionez.
- NBE Emakumeak erakundearekin lankidetzaren jarraipena egitea.
- Berdintasunaren arloan Jaurlaritzak egiten duen lana ordezkariitzetan proiektatzea.
- Euskal Gizataldeen 2016-2019 aldirako ekintza instituzionaleko lau Urteko Planean aurreikusitako jarduerak genero ikuspegitik egitea.

Bestalde, 2019rako, Lehendakariitzak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 25.084.546 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 20. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua.

20. taula. Berdintasun-klausulak. Lehendakariitza

LEHENDAKARITZA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	guztiak	8.520.240
Aurreikusitako hitzarmenak	guztiak	2.256.500
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	guztiak	11.865.000
EMAKUNDE		
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	8	986.253
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	19	1.456.553
GUZTIRA		25.084.546

Gainera, Emakunde azterlan propioak eta ikerketa-bekak aurrera eramatea aurreikusita dauka, errealitatea hobeto ezagutzen eta berdintasun-politikak hobetzen laguntzeko.

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Ahalegin handia egin da programetako helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- ❖ Horren arabera, oro har, Lehendakartzaren jarduna eta hari atxikitako erakunde autonomoena (Emakunde eta Gogora) genero-ikuspegitik gauzatzen dela jotzen da, nahiz eta askotan ez dagoen horren berariazko adierazpenik aurrekontu-memoretan.
- ❖ Aurrekontuak genero-ikuspegi aztertzeari dagokionez, HAEEK emandako prestakuntzan parte hartzen jarraitu da.
- ❖ “Egitura eta Laguntza” programa: programaren helburu-populazioan dauden genero-desberdinkeriak aztertu dituzte. Aipatu beharra dago, programa honen kasuan, Lehendakartzako eta berori osatzen duten zuzendaritzetako langileen laguntza eta koordinazio zerbitzuak errazteaz gain, egiturari eta laguntzari buruzko gainerako programekin gertatzen den bezala, eragin handia duela gizartean eta gainerako sailetan. Izan ere, bereziki arduratzen da herritarrei zuzendutako komunikazio-jarduerak gauzatzeaz eta Jaurlaritzaren gainerako sailekin koordinatzeaz. Beraz, hautemandako desberdinkeriekiko haren erantzun-maila aldatu egiten da helburu duen kolektiboaren arabera.
 - Komunikazioaren esparruan, kontzientziazioan hobekuntza bat antzeman dute, komunikazioaren esparruaz arduratutako zuzendaritzekin kontratatze lizitatzea erabakitzen duten enpresek berdintasunaren arloan neurriak hartzeak duen garrantziaren inguruan. Hala ere, oraindik hobetzeko puntuak antzeman dira.
 - Azterlanen esparruan, Kabineteak egindako iritzi soziopolitikoko azterlan guztiek sexua aldagaia jasotzen dute eta datu bereziak aurkezten dituzte. Gainera, azterlanak egitean genero-ikuspegia txertatzen da; bereziki, iritzi-inkestetan (galdeketa egitea eta datuak ustiatzea). Kabineteak egindako iritzi-azterlanak egokitzeak bidea ematen du hobeto ezagutzeko emakumeen eta gizonen bali, rol, egoera, baldintza, asmo eta premien arteko desberdintasunak, eta aztertzen den errealitatean horiek duten agerpena eta elkarrekintza.
- ❖ Genero-ikuspegia duten honako azterlan hauek kontratatzea aurreikusi da:
 - Azterlan soziologikoak: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna – Soldata-arraila
 - IKUSKERAK 11
- ❖ Emakunde: EAEren esparruan berdintasun-politikak bultzatu, horien inguruan aholkatu, planifikatu eta ebaluatzeaz arduratzen den organo gisa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplika dadin sustatzea dagokio. Haren aurrekontu-programak lortu nahi dituen helburuak ardatzetik kateatzen dira bai 4/2005 Legearen ondoriozko mandatuekin, bai XI. legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programan jasota dauden emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko konpromiso guztiekin —XI. legegintzaldiko Gobernu Planaren bigarren zutabeari dagokionez—, baita Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planaren osotasunarekin ere.

Hobetzeko esparrutzat, batez ere honako hauek antzeman ditu:

- Erakunde autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasunerako unitateak sor daitezzen sustatzen jarraitzea, baldin eta erakunde horien eskumen-esparruak berdintasunerako politiken aurrerapenean eragin argia eduki badezake. Halaber, formula egokiak bilatu behar dira eta berdintasunerako unitateak sor daitezzen sustatu behar da udal-esparruan; batez ere, udalerrri txikienetan.
- Koordinazio-arloan hobetzeko prozesuak planteatzea, sortutako egiturak gelditu ez daitezzen eta egitura horiei buruzagitza-ahalmen handiagoa emateko.
- Politika publikoen multzoan berdintasunaren helburua txertatzeko sakontzen jarraitzea, foru- eta udal-esparruetara indar handiagoaz eta gehiago zabaldua.
- Esku-hartzearen xede diren politikak sektore anitzekoak eta zeharkakoak direnez, berdintasunean adituak diren langileen prestakuntza zabaltzeko eta sakontzeko beharra egiaztatu da.
- Berdintasun-politiken bilakaeraren hobekuntzak egitea. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta arreta eskaintzeko programen eta baliabideen esparruan bereziki, intersektionalitatea hobeto landu behar da.
- Emakumeen autonomiaz eta generoaz jabetzeko prozesuetan sakontzea; baina, batez ere, gizartearen eta politikaren arloetan ahalduntzeko prozesuetan oraindik gehiago aurrera egitea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabatzeko prebentzioan hobetzea, arreta jarrita gure gizartean azaltzen ari diren beste indarkeria-moduei; eta emakume biktimak eta horien zaintzapean dauden pertsonak —bereziki, emakume horien seme-alabak— goiz hautematea eta arreta integrala ematea; seme-alaba horiek, era berean, euren amen aurka erabilitako indarkeriaren biktimak ere badirelako.
- P-Gen formularioa hobeto betetzeko, beharrezkoa da barruko lan-estrategia bat, koordinazio politiko eta teknikoko espazioak sortuta, datuak biltzeko tarteko prozesu koordinatuak sortuta eta, aldi berean, analisi horietan parte hartuko duten pertsona guztientzako prestakuntzako/ekintzako estrategiak bultzatuta. Estrategia zehaztu bitartean, hiru elkarriketa-ildo hauek ezarriko dira: Emakundeko zuzendaritzak eta buruzagitzen multzoak parte hartzen duten zuzendaritza-taldearekin; aurrekontuak lantzeko prozesua eta generoaren arabera aldez aurreko inpaktu-ebaluazioa (administrazioa eta azterlanak, dokumentazioa eta plangintza) zentralizatzeaz arduratzen diren hiru arloekin; eta, azkenik, diru-laguntza lerroen arduradunekin.

Etengabe ari dira azterlanak eta ikerketak egiten generoaren inguruan edo genero-ikuspegiaz. Nolanahi ere, aldizkakotasuna izateagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoetarako duten garrantziagatik batzuk aipatzearen, honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeei eta gizonei buruzko zifren txostena: urtero prestatzen da, eta bidea ematen du euskal gizarteko esparru sozial, ekonomiko eta politikoetan emakumeen eta gizonen errealitatea modu eguneratuan deskribatzeko: <http://www.emakunde.euskadi.eus/servicio/-/cifras/>
- Berdintasunerako Legearen ebaluazioa: Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak bost urtean behin egin behar du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bete, garatu eta aplikatzearren jarraipena. Berrienak eta erabateko gaurkotatuta dutenak (2015), aurrez aipatu bezala, hauek dira:
 - Ebaluazio kuantitatiboa (bigarren bosturtekoa, 2010-2015), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzearen inguruan (PDF, 3 MB).

- Ebaluazio kualitatiboa (bigarren bosturtekoa, 2010-2015), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzearen inguruan (PDF, 2 MB).
- Euskal administrazio publikoen kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko ebaluazioa (PDF, 3,5 MB).
- Generoaren arabera inpaktua aurretiaz ebaluatzeko prozesuen ebaluazioa EAEn (PDF, 3,5 MB).

Aurreko azterlan eta ebaluazioei buruzko informazio gehiago:
<http://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-/informacion/evaluaciones-politicas/#EVALUACION>

- Azkenik, Emakundek urtero egiten du Berdintasunerako Plana gauzatzeko botere publikoen jardunari buruzko memoria. Halaber, azken txosten bat egiten du, Planaren indarraldiari buruzkoa. Txosten horietan biltzen da euskal administrazio publikoek eta horien erakunde eta organismo publikoek emandako informazioa, baita haien jardunen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa ere: <http://www.emakunde.euskadi.eus/politicas-publicas/-/informacion/evaluaciones-politicas/>
- Emakundek egiten dituen gainerako txostenak eta azterlanak (gutxi-asko berriak) web-orri honetan daude eskuragarri: <http://www.emakunde.euskadi.eus/documentacion-publicaciones/-/informacion/informes/>
- Halaber, Emakundek diruz lagundutako argitalpenak eta bekak web-orrian daude eskuragarri: <http://www.emakunde.euskadi.eus/documentacion-publicaciones/-/informacion/publicaciones-subvencionadas/>

6.2. GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari honako eginkizun eta jardun-arlo hauek dagozkio: Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko harremanak; autonomia garatzeko politika eta koordinazioa; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria; funtzio publikoa; Autonomia Estatutuaren defentsa juridikoa; Euskal Gobernantza Publikoa aplikatzeko eredu diseinatzea; Jaurlaritzaren informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak eta argitalpen-jarduera; eta Jaurlaritzaren jardura legal, juridiko eta administratiboa kudeatzearen ondoriozko askotariko eginkizunak. Horretarako, 9 aurrekontu-programa ditu. Horiek hurrengo taulan banakatuta agertzen dira.

21. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	AURREKONTU BATERATUA
1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	1.109.261
1211 - Gobernantza Publikoa eta Autogobernua. Egitura eta Laguntza	11.146.548
1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.725.076
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	13.326.814
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	33.423.663
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	15.340.349
1217 - Erakundeen Harremanak	2.625.941
1218 - Araubide Juridikoa	3.835.005
1219 - EAEko Administrazio Publikoaren Datuen Babesa	332.851
GUZTIRA	121.114.000

Horren guztiaren % 44 transferitzen die EJE eta ITELAZPI sozietate publikoei eta "Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea – HAAE" erakundeari.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea – HAAE Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako erakunde autonomoa da. Hiru jardura-esparru nagusi hauek ditu:

- ❖ Giza baliabideak hautatzea eta prestatzea.
- ❖ Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen euskalduntzea, baita administrazio-hizkeraren itzulpena, interpretazioa, terminologia eta normalizazioa ere.
- ❖ Eta Administrazioaren inguruko ikerketa eta irakaskuntza, oro har, eta euskal autonomiaren berezitasunei buruzkoa, zehazki; baita liburu, bai aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Beraz, aztertu beharreko aurrekontua 79.483.693 € da; hau da, Sailaren aurrekontu osoaren % 66. Hortaz, % 44 EJE eta ITELAZPI sozietate publikoei zuzentzen zaie.

Hurrengo taulan ikus daiteke aurrekontua programen arabera banakatuta.

22. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	1.109.261
1211 - Gobernantza Publikoa eta Autogobernua. Egitura eta Laguntza	4.770.445
1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.725.076
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	6.956.981
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	7.466.041
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	7.982.092
1217 - Erakundeen Harremanak	2.625.941
1218 - Araubide Juridikoa	3.835.005
1219 - EAEko Administrazio Publikoaren Datuen Babesa	332.851
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
1216. HAAE. Administrazio Publikoetako langileen Hautaketa eta Prestakuntza	8.949.944
4714. HAAE. Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa	10.730.056
GUZTIRA	79.483.693

Guztira 11 aurrekontu-programa dira eta hurrengo ataletan aztertuko dira.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

"1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa" programa generoarekiko egokitzat jotzen da lehen aldiz. Orduan, "Araubide Juridikoa" programa besterik ez da geratzen ez-egokitzat. Laburbilduz, 75.648.688 €-ko zenbatekoa (hau da aurrekontuaren % 95) generoarekiko egokia da, taula honetan ikus daitekeenez:

23. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	1.109.261	BAI
1211 - Gobernantza Publikoa eta Autogobernua. Egitura eta Laguntza	4.770.445	BAI
1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.725.076	BAI
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	6.956.981	BAI
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	7.466.041	BAI
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	7.982.092	BAI
1217 - Erakundeen Harremanak	2.625.941	BAI
1218 - Araubide Juridikoa	3.835.005	EZ
1219 - EAEko Administrazio Publikoaren Datuen Babesa	332.851	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
1216. HAAE. Administrazio Publikoetako langileen Hautaketa eta Prestakuntza	8.949.944	BAI
4714. HAAE. Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa	10.730.056	BAI
GUZTIRA	79.483.693	% 95

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.


24. taula. Generoarekiko garrantziaren analisisa. Saila

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA					
AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIARI BURUZKO ANALISIA					
AURREKONTUA ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA			AURREKONTU A
		HANDI A	ERTAIN A	TXIKI A	
1125 - Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa	1.109.261			2	
1211 - Gobernantza Publikoa eta Autogobernua. Egitura eta Laguntza	4.770.445	5			
1212 - Zerbitzu Orokorrak	24.725.076			2	
1213 - Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza	6.956.981	5			
1214 - Informatika eta Telekomunikazioak	7.466.041	6			
1215 - Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa	7.982.092		4		
1217 - Erakundeen Harremanak	2.625.941			2	
1219 - EAEko Administrazio Publikoaren Datuen Babesa	332.851		3		
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>					
1216. HAAE. Administrazio Publikoetako langileen Hautaketa eta Prestakuntza	8.949.944	5			
4714. HAAE. Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa	10.730.056		4		
GUZTIRA	75.648.688¹²	% 37,2	% 25,2	% 37,6	% 100

Aurrekontuaren % 62,4 garrantzi handi eta ertainekotzat jo da; hau da, eragina izan dezake emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lorpenean modu esanguratsuan, helburu duen populazioaren baitan.

¹² "1218. Araubide Juridikoa" programan minoratua, "ez-egokitza" kalifikatu izateagatik.

2. grafikoa. Aurrekontua generoarekiko garrantziaren arabera. Saila



BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da.

25. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua (bi lagun)	115.540
BAU politikak bultzatzeko aurrekontua (aholkularitza, azterlan... gastuaren 2. kapitulua)	12.000
I. Planeko ekintzak gauzatzeko aurrekontua	43.000
Berdintasunaren arloko prestakuntzarako partida	6.000
GUZTIRA	176.540
HAE. Berdintasunerako Administrazio Unitatearen (BAU)	56.000
GUZTIRA	56.000
GUZTIRA	232.540(*)

2018ko aurrekontuei buruzko txostenean aurreratu den bezala, Sailean lanpostu bat bete da Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana abiarazteko teknikari batekin.

Gainera, nabarmentzekoa da lehen aldiz 6.000 €-ko partida espezifiko bat erreserbatu dela berdintasun-ikastaroetarako, prestakuntzarako ohiko partidatik bereizita. Ekitaldi honen aurrerapen bat izan da, eta Zerbitzuetako Zuzendaritzaren konpromiso bat ere, ez bakarrik agerian jartzeko, baizik eta, halaber, areagotzeko Saileko langileak berdintasunaren arloan prestatzeko zuzentzen den aurrekontua.

Oso positibotzat jo da HAEEn berdintasunerako administrazio-unitate bat sortzeko izapideak hastea. Horrela, bermatu egiten da 4/2005 Legearen 11. artikuluko eta 213/2007 Dekretuaren 3. artikuluko mandatuak beteko

direla. Dekretu hori zentrala da erakunde autonomoaren politiketan berdintasunarekin lotutako mandatuak betearazteko.

Berdintasuna lortzera berariaz zuzendutako aurrekontua dagokion aurrekontuaren % 0,29 da (*), 2018ko ekitaldirako aurrekontuaren bikoitza, hain zuzen.

Bestalde, 2019rako, aurreikusi da berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 34.763.037 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 29. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

26. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	12	31.329.587
Aurreikusitako hitzarmenak	1	53.400
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	2	3.102.000
HAEE		
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	5	278.050
GUZTIRA		34.763.037

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Ahalegin handia egin da programetako helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- ❖ "1211. Egitura eta Laguntza" programarako, Saileko langileen egoerari buruzko 2017ko diagnostiko eguneratua eta xehatua hartu da oinarri. Adierazleetako batzuk Administrazio Orokorraren adierazleen antzekoak dira, hala nola: plantillaren feminizazioa, lanpostu teknikoetan eta goi-mailakoetan okupazio-bereizketa horizontala izatea emakumeen kalterako eta emakumeen gehiengoa berdintasunaren arloko ikastaroetara joan direnen artean. Hala ere, Sailerako beste adierazle batzuk antzeman dira. Adibidez, nahiz eta A1 eta A2 kidegoetako funtzionario-postuen % 56 emakumeek estaltzen dituzten, horien % 7k bakarrik betetzen dituzte arloko edo zerbitzuko buruzagitza-postuak. Analisi horien ondorioz, sakondu beharreko gaiak antzeman dira. Horietako batzuk hauek dira:
 - Emakumeek eta gizonek egiten duten prestakuntza motaren, ikastaro kopuruaren eta abarren artean egon daitekeen lotura, eta, besteak beste, aldagai hauek: lanpostu mota, bateratze-neurrien aldiberekotasuna, etab.

- Emakumeek eta gizonak egiten dituzten euskara-ikastaroen eta abarren artean egon daitekeen lotura, eta, besteak beste, aldagai hauek: lanpostu mota, bateratze-neurrien aldiberekotasuna, etab.
- Bateratze-neurrien aplikazioa eta horren eragina egon daitekeen soldata-arrailean.

2017 ezkerro, ahalegina egiten ari dira aurrekontu-memorian sexuaren arabera banakatutako adierazleak sartzeko. Lan horren ondorioz, aurrekontu-ekitaldi honetan lehen aldiz, 2018ko aurrekontu-memorian jasotako adierazleak ustiari ahal izan dira, eta aurreko urteetakoekin eta Administrazio Orokorren gainerakoekin alderatu. Hala ere, berdintasun-mandatuari hobeto erantzun dieten adierazleen zerrenda berri batean lan egitea planteatu da.

Hobetzeko planteatu den beste proposamen interesgarri bat da neurri berriak hartzeko beharra baloratzea ahalbidetuko duten bateratzeari buruzko datu banakatuagoak lortzea.

- ❖ “1213. Funtzio Publikoa, Langileen Hautaketa eta Prestakuntza” programan, nabarmendu egiten dira Berdintasuneko Batzorde Iraunkorraren ekintzen esparruan egindako azterlanak, Enplegu Publikorako Planaren eta Administrazio Orokorreko eta horren erakunde autonomotako Berdintasunerako I. Planaren barruan.
- ❖ Hizkuntzaren eta/edo komunikatzeko beste elementu batzuen erabilera ez-sexista egokitzeko maila hobetzea, eta dokumentu eta euskarri guztiak prestatzean irudiak sartzeko, “1214. Informatika eta Telekomunikazioak” programaren barruan. Hala ere, eguneroko lanean hizkuntzaren erabilera inklusiborako langileei laguntzeko tresnak emateko beharra antzematen da.

Aurrekontu-memorian hobekuntzak egin dira eta, berdintasun-printzipioa sustatzeari dagokionez, eguneroko lanean hizkuntza inklusiboa sartzeko zirkular bat egiten ari dira.

KZgunearen lokalei buruzko azterlan bat egitea aurreikusi da, genero-ikuspuntutik prebentzio-neurriak hobetzeko.

- ❖ “1215. Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa” programan, aipatzekoa da 2019an zerbitzu elektronikoak eskatzen dituzten pertsonak sexuaren arabera identifikatzea ahalbidetuko dela.
- ❖ HAEERI dagokionez, nabarmentzekoa da:
 - 2019rako, berdintasunerako administrazio-unitate propioa sortzea.
 - Bermatu egin da HAEERIren diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundearen prestakuntza-planetan berdintasun-printzipioak sartzeko.
 - Programen helburuak aurrekontuaren aldetik banakatzeko egindako ahalegina.
 - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrera egiteko proposatutako hobekuntza-neurriak, hala nola:
 - Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze deialdietan gizonen eta emakumeen presentzia parekidea ziurtatzea, baita hautaketa-prozesuetako epaimahaietan eta ikerketarako sarien eta diru-laguntzen epaimahaietan ere.
 - Prestakuntzan parte hartzen duten gizon eta emakumeen presentziari buruzko estatistikak egitea, eta sexuaren aldagaiaren pisua aztertzea sarbide-proben emaitzetan.
 - Erakundearen argitalpenetan hizkuntza ez-sexista bermatzea.
 - Administrazioa sartzeko probetan genero-berdintasunari buruzko gaiak sartzeko.

6.3. EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURAK SAILA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari honako eginkizun eta jardun-arloak dagozkio: berrikuntza eta teknologia; enpresen nazioartekotzea; industriaren eta energiaren arloko politika; informazioaren eta ezagutzaren gizartea; lehen sektorea eta elikagaien sektorea; landaren, itsasertzaren eta basoen arloko garapeneko politikak; nekazaritza-ikerketak eta ikerketak ozeanografikoa; eta trenbideak, bide-sarea, garraiobideak, aireportuak eta portuak. Horretarako, 17 aurrekontu-programa ditu, taulan deskribatzen den moduan banakatuta.

27. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	AURREKONTU BATERATUA
5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa	238.699.007
5135 - EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak	99.447.416
5136 - Bilbo Hegoaldeko Tren Saihesbidea - Kudeaketa Kredituak	3.930.000
5141 - Garraioaren Plangintza	6.022.126
5151 - Portuak	21.750.498
5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerketak eta Garapena	20.038.239
5413. Teknologia	157.599.240
5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda	19.897.715
7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena	83.321.746
7112. Arrantza	20.255.098
7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	25.899.140
7211. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak. Egitura eta Laguntza	19.220.213
7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	108.870.639
7213. Industria Segurtasuna	5.324.521
7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	7.828.856
7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena	4.643.007
7613. Nazioartekotzea	23.192.539
GUZTIRA	865.940.000

2019rako aurrekontu orokorren % 7,3 kudeatzea dagokio. Zenbateko horretatik, % 39 transferitzen die Sailari atxikita dauden zuzenbide pribatuko bi erakunde publikoei eta 29 sozietate publiko eta fundazioei. Atxikitako erakunde autonomorik ez duten sailetakoa da.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Beraz, hurrengo taulan ikus daitekeenez, aztertu beharreko aurrekontua sail osoaren % 41 da, eta 15 programatan banatuta dago.

Aztertu beharreko aurrekontua 2018ko aurrekontuen gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenean aintzat hartutakoa baino nabarmen txikiagoa da. Horren arrazoia da orduan ez zela deskontatu erakunde, sozietate eta fundazioei egindako transferentzia.

28. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa	48.202.007
5135 - EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak	76.397.416
5141 - Garraioaren Plangintza	6.022.126
5151 - Portuak	18.290.498
5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerketa eta Garapena	11.188.515
5413. Teknologia	153.621.872
5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda	6.067.057
7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena	75.793.378
7112. Arrantza	19.772.412
7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	17.627.867
7211. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak. Egitura eta Laguntza	14.771.864
7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	67.468.714
7213. Industria Segurtasuna	4.630.923
7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	1.542.461
7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena	4.643.007
GUZTIRA	526.040.117

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

2019ko aurrekontu horietarako, “7213. Industria Segurtasuna” programa ez-egokitzat jo da. Horren ondorioz, aurrekontuaren % 99 generoarekiko egokitzat jo da eta, beraz, generoaren ikuspegitik analiza daiteke.

29. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa	48.202.007	BAI
5135 - EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak	76.397.416	BAI
5141 - Garraioaren Plangintza	6.022.126	BAI
5151 - Portuak	18.290.498	BAI
5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerketa eta Garapena	11.188.515	BAI
5413. Teknologia	153.621.872	BAI
5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda	6.067.057	BAI
7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena	75.793.378	BAI
7112. Arrantza	19.772.412	BAI
7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	17.627.867	BAI
7211. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak. Egitura eta Laguntza	14.771.864	BAI
7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	67.468.714	BAI
7213. Industria Segurtasuna	4.630.923	EZ
7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	1.542.461	BAI
7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena	4.643.007	BAI
GUZTIRA	526.040.117	% 99

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

30. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK				
AURREKONTU-PROGramek GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIAREN ANALISIA				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDI A	ERTAINA	TXIKIA
5131 - Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa	48.202.007			2
5135 - EAEko Trenbide Sare Berria - Kudeaketa Kredituak	76.397.416			2
5141 - Garraioaren Plangintza	6.022.126		4	
5151 - Portuak	18.290.498			2
5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerketa eta Garapena	11.188.515			2
5413. Teknologia	153.621.872		3	
5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda	6.067.057		3	
7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena	75.793.378		4	
7112. Arrantza	19.772.412		4	
7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	17.627.867			2
7211. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak. Egitura eta Laguntza	14.771.864		4	
7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza	67.468.714		3	
7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia	1.542.461		3	
7311. Energia eta Meatze Politika eta Garapena	4.643.007		3	
GUZTIRA	521.409.194	% 0	% 67	% 33

Deigarria da garrantzi handiko programarik identifikatu ez izana, eta % 33 garrantzi txikikotzat jotzen dela.

2018ko aurrekontuekin alderatuz, lau programek jaitsi egin dute garrantziaren kalifikazioa: handitik ertainera “5415. Berrikuntza Digitalaren Agenda” eta “7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena” programek; eta ertainetik txikira “5411. Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Ikerketa eta Garapena” eta “7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea” programek.

Sailaren hiru jardun-arloetatik (Industria, Nekazaritza eta Garraioa), Industriak garrantzi-maila ertainaz kalifikatzen ditu bere programa guztiak.

Nekazaritzaren arloan, Sailburuordetzaren lau programetatik hiruk jaitsi dute generoarekiko garrantzia, eta horietatik bik txikitzat kalifikatu dute garrantzia. Irizpide horri eutsiz gero, egokia litzateke analisiari dagokion justifikazioa eranstea.

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

31. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	60.010
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	6.800
Kabineteko Zuzendaritzan berdintasun-ekintzetarako erreserbatutako funtsa	600
Landa Emakumeen Batzordea abiaraztea	17.900
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Emakunderen eta Munduko Landa Foroaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena	107.500
GUZTIRA	192.810

Berariaz berdintasun-ekintzei zuzendutako aurrekontua nabarmen handitu da. Hala ere, generoarekiko aurrekontu egokiaren % 0,04 da.

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 16.809.009 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 69. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

32. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikositako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	5	1.842.000
Aurreikositako hitzarmenak	1	500.000
Aurreikositako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	23	14.467.009
GUZTIRA		16.809.009

- ❖ Ahalegin handia egin da programetako batzuen helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.

- ❖ Saileko berdintasun-unitateak haren langileen artean genero-ikuspegia duten aurrekontuen sorrera bultzatu du. Horretarako, bi lantegi egin ditu, azkena irailean, P19-Gen formularioak hobeto bete daitezen. Prestakuntzak gogoetatarako gunek bat sortu du zuzendaritzen jardueraren, berdintasun-aginteeikiko jardura horien egokitzapenaren eta hobetzeko aukeren inguruan:
 - 5413. Teknologia:
 - Teknologia-zentroen patronatuetan emakumeen eta gizonen osaerari buruzko datuak jaso dira. Horiek gerora aztertuko dira.
 - Bikaintek-ek ekintza positibo bat gehitu du emakumezko ikertzaileak kontratatzearen alde, arlo zientifikoan genero-arraila murrizteko.
 - 7211. Egitura eta Laguntza
 - Genero-ikuspegia duten aurrekontuetan aurrera egiten jarraitzea. Lantegietan parte hartu zuten pertsonen hala eskatuta, lantalde bat sortuko da aurrekontu-memoriak betetzeko arduradunekin. Taldekideek Saileko Talde Teknikoan beren zuzendaritzak ordezkatzeko dituztenekin duten lotura indartuko dute, planifikazioak hobetzeko.
 - Sailaren laguntzak aztertzen jarraitzea, horiek Berdintasunerako Legearen eta, hala badagokio, Emakume Nekazarien Estatutuaren mandatuetara egokitzeak.
 - “7212. Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza” programa:
 - Informatika-aplikazioak aldatzea, sexuen bereizketa jasotzeko eta etorkizunean ustiatzea ahalbidetzeko.
 - Datuak bereiz daitezen eskatzea, ez bakarrik plantillei buruzkoak; baita sortutako enpleguei dagozkienak ere.
 - Laguntzekin zerikusia duten prestakuntza-jardunaldietara joaten diren enpresak 4/2005 Legea betetzeari buruz sentsibilizatzea.
 - “7214. Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia”: kudeaketari generoaren ikuspegitik balioa emateko gida identifikatu dute: kudeaketa aurreratuko eredua. Egilea: Silvia Muriel Gómez. Emakunde 2017 (programaren jardun-eremuarekin lotuta).
 - “5141. Garraioaren Plangintza” programa: hobetzeko neurri gisa, proposatzen dute sektoreko langileei buruzko datuak Garraioaren Behatokiaren estatistikei eta azterlanei gehitzea.
 - “5151. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza” programa:
 - Aurkezten diren eskabide eta formulario guztietan sexuaren arabera bereizitako datuak eska daitezten ziurtatzea; gerora, genero-azterlanak zailtasunik gabe egin ahal izateko.
 - Sektoreko elkarleen administrazio-kontseiluak osatzen dituzten langileen informazio zehatza lortzea.
 - Unibertsitateko Masterrean, ikasleen sexuaren arabera bereizitako datuak gutxienez biltzea.
 - “7111. Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena programa: genero-ikuspegiak, laguntzen inpaktu bereziari buruzko ikerketa bat egitea aurreikusten du. Nekazaritzako elikagaien sektoreko eta

landa-inguruneko enpresa-jardueri laguntzeko neurrietan, lehentasuna emango zaie aipatutako jardueren xede diren proiektu moten barruan dauden emakumeek sustatutako proiektuei eta laguntza hori lortzeko gainerako betekizunak betetzen dituztenei.

- “7112. Arrantza” programa:
 - Arrantza-sektorerako diru-laguntza programetan informazioa sexuaren arabera bereizita hobeto jasotzea lortu da. Todas las convocatorias de ayuda aprobadas por la Dirección de Pesca y Acuicultura incluyen en el modelo de solicitud la variable sexo.
 - Era berean, komeni da aipatzea euskadi.eus web-orrian atal bat dagoela arrantza-sektoreko emakumezko langileen kolektiboak, horien elkarteak eta jarduketak agerian jartzeko.
http://www.euskadi.eus/web01-a2arraku/es/contenidos/informacion/mujeres_mar/es_def/index.shtml.
 - Emakumeen kolektiboen lan-baldintzak hobetzera zuzendutako instalazioen kopurua handitzen jarraitzen da (saregileentzako ekipamenduak).
 - Partaidetzazko Toki Garapenaren esparruan, emakumeei zuzendutako lanpostuak sortzeko neurri positiboak gehitu dira.
 - Laneko osasunaren inguruan aplikatutako genero-ikuspegia duen azterlan bat identifikatu dute: arrantza-sektorea.
http://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/informacion/ponencias_jt151104_pesquero/es_def/adjuntos/ponencia_arrate_padilla_pesca.pdf
 - Arrantzarako eta Akuikulturako Euskadi 2020 Plan Estrategikoak arrantza-sektorean genero-ikuspegia zeharkako bihurtzen laguntzen du. Plan hori hemen jasota dago:
http://www.euskadi.eus/contenidos/proyecto/plan_pesca_acuicultura2020/es_def/adjuntos/Plan_Estrategico_Pesca_%202020.pdf
- “7113. Elikagaien Sustapena eta Kalitatea” programa: 75201 kapituluan (Basque Label Harategiak. Laguntzak) gogoetari eta hobekuntzari ekitea planteatzen da.

6.4. ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailari honako eginkizun eta jardun-arlo hauek dagozkio: enplegu-politika; lan-harremanen arloko legeria betearaztea; gizarte-zerbitzuak eta egoera ahulenean dauden pertsonen arreta integrala; herritarrek etxebizitzara eskuratzea; lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea; eta zailtasun handienak dituzten kolektiboak lan-munduan sartzeko gaitasuna.

33. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	AURREKONTU BATERATUA
3111. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	24.299.477
3121. Gizarteratzea	500.017.341
3122. Immigrazioa	6.346.607
3123. Gizarte Zerbitzuak	35.548.910
3124. Familia eta Komunitate Politika	83.789.240
3211. Enplegua	257.906.013
3222. Gazteria	8.745.896
3221. Prestakuntza	112.136.516
GUZTIRA	1.028.790.000

Aurrekontuaren guztizkotik, % 84 nagusiki Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari transferitzen dio eta, kopuru txikiagoan, Hobetuz Fundazioari. Biak Departamentuari atxikita daude. Guztira, Sailak 168.576.354 € atxikitzen ditu (aurrekontu bateratuaren % 16).

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Aztertu beharreko aurrekontua Sailaren bateratua baino are handiagoa da, Lanbidek bere eginkizunen jardunean lortzen dituen diru-sarrera gehigarriengatik.

34. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	AZERTU BEHARREKO AURREKONTUA
3111. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	4.796.254
3121. Gizarteratzea	27.900.000
3122. Immigrazioa	6.346.607
3123. Gizarte Zerbitzuak	35.468.910
3124. Familia eta Komunitate Politika	83.789.240
3211. Enplegua	1.529.447
3222. Gazteria	8.745.896
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
3111. LANBIDE. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	28.105.848
3121. LANBIDE. Gizarteratzea	489.267.341
3211. LANBIDE. Enplegua	256.804.566
3231. LANBIDE. Prestakuntza	110.789.245
GUZTIRA	1.053.543.354

Aurrekontu horretatik, Lanbidek % 84 kudeatzen du.

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburua da enplegu egonkor eta kalitatezkoako eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen beharrianak asetzea, baita gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren xedea da bere zerbitzuen erabiltzaileak artatzeko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Aurreko txostenekiko koherentziaz, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokia da eta, beraz, generoaren ikuspegitik duen inpaktua analiza daiteke.

35. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

SAILA ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
3111. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	4.796.254	BAI
3121. Gizarteratzea	27.900.000	BAI
3122. Immigrazioa	6.346.607	BAI
3123. Gizarte Zerbitzuak	35.468.910	BAI
3124. Familia eta Komunitate Politika	83.789.240	BAI
3211. Enplegua	1.529.447	BAI
3222. Gazteria	8.745.896	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
3111. LANBIDE. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	28.105.848	BAI
3121. LANBIDE. Gizarteratzea	489.267.341	BAI
3211. LANBIDE. Enplegua	256.804.566	BAI
3231. LANBIDE. Prestakuntza	110.789.245	BAI
GUZTIRA	1.053.543.354	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

36. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIAREN ANALISIA				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
3111. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	4.796.254	5		
3121. Gizarteratzea	27.900.000	6		
3122. Immigrazioa	6.346.607	6		
3123. Gizarte Zerbitzuak	35.468.910	6		
3124. Familia eta Komunitate Politika	83.789.240	6		
3211. Enplegua	1.529.447	6		
3222. Gazteria	8.745.896	6		
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
3111. LANBIDE. Enplegua eta Gizarte Politikak. Egitura eta Laguntza	28.105.848		4	
3121. LANBIDE. Gizarteratzea	489.267.341	5		
3211. LANBIDE. Enplegua	256.804.566	5		
3231. LANBIDE. Prestakuntza	110.789.245	5		
GUZTIRA	1.053.543.354	% 97	% 3	% 0

Oraingo honetan, Lanbideren Egitura eta Laguntza programa garrantzi handikoa izatetik garrantzi ertaina izatera pasatu da. Datu deigarria da, erakunde autonomoaren berdintasun-unitatea hor baitago. Hala ere, ez du eraginik txosten honen analisian, informazio bera eskatzen baitu garrantzi handiko eta ertaineko programetatik.

Laburbilduz, aurrekontuaren % 100ek du generoarekiko garrantzi handia eta ertaina.

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

37. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK		AURREKONTUA (€)
3111. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	60.760
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	10.000
3122. Immigrazi oa	Berdindu Zerbitzua	215.000
	Unibertsitate Masterra, sexu, familia eta genero dibertsitateari buruzko irakasgaia (gutxi gorabeherako kostua)	2.765
	Afektibitate eta sexu, familia eta genero-dibertsitateari buruzko sentsibilizazio-programa	109.000
	Zinegoak zinemaldia (gutxi gorabeherako kostua)	27.900
	Biltzen	37.457
3123. Gizarte Zerbitzua k (generoar ekiko garrantzi handiena dutenak soilik)	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta egiteko telefonoa	1.100.000
	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako diru-laguntzak	411.928
	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzu espezializatuko langileak (langileen kostua)	109.729
	Esku-hartze asoziatiborako hirugarren sektoreari zuzendutako laguntzen esparruan, emakume ijitoei diruz laguntzea (gutxi gorabeherako kostua)	45.636
	Hirugarren sektoreko erakundeei zuzendutako urteko ohiko deialdiaren bidez, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden emakumeentzako esku-hartze asoziatiboko programak edo proiektuak sustatzea (gutxi gorabeherako kostua)	135.776
	Prostituzioaren esparruan, gizarte esku-hartzeko jardueretarako laguntzen barruan proiektuei diruz laguntzea (gutxi gorabeherako kostua)	83.466
	Guraso bakarreko familientzako zaintzari laguntzeko proiektuen gizarte esku-hartzeko proiektuen hirugarren sektorerako diru-laguntzak ematea (gutxi gorabeherako kostua)	64.205
	Emakumeen arloko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari eta hain bizi-baldintzetan gaineko eraginari buruzko txostena (gutxi gorabeherako kostua)	21.000
3124. Familia eta Komunita te Politika	Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin gizarte-eskuhartzeko hirugarren sektoreko proiektuei zuzendutako laguntzen esparruko diru-laguntzak (gutxi gorabeherako kostua)	54.163
	Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeako laguntzak	400.000
	Trebetasunak eta konpetentziak garatzeko gurasotasun positiboa. Familiekin harremanetan dauden profesionalentzako online ikastaroa	18.000
	Kontziliazio erantzunkidea (BATERATU +) Enpresa eta langileentzako aholkularitza-tresna berriak sartzea.	13.500
	Berdintasunezko aitatasun-ereduak eta beste pertsona batzuk zaintzeko jarrerak sustatzea, baita familien baitako erantzunkidetasuna ere. Gurasotasuna web-orria	54.000

	Familiekin harremanetan dauden profesionalentzako online ikastaroak	30.000
	Atxikimendu segurua sustatzeko eta guraso-sentiberatasuna eta -erresponsibitatea hobetzeko programa pilotua	30.000
	Programak, ikerketak eta esperientziak ezagutzera emateko jardunaldia	20.000
	Sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak, hezkuntza-esparruan eta komunikabideetan gurasotasun positiboak duen garrantziaren inguruan	10.000
	Kontziliazio erantzunkidean programak, ikerketak eta esperientziak ezagutzera emateko jardunaldia	10.000
	Enpresetan kontziliazio erantzunkidea sustatzeko neurriak abiaraztea	40.000
	Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak. Zaintzarako kontratazioa	400.000
	Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak. Seme-alaben zaintza	50.500.000
	Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak. Mendekotasuna duten pertsonen zaintza	1.500.000
GUZTIRA		55.514.285
Lanbide	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	56.156
	Plana ebaluatzeko eta kudeatzeko aurrekontua	50.000
GUZTIRA		55.620.441

Aurrekontu espezifikoak duten berdintasun-politikek Sailaren aurrekontu osoaren % 5,27 hartzen dute.

Ez da informaziorik bidali berdintasun-klausulak dituzten kontratu, hitzarmen, diru-laguntza eta bestelako laguntzetarako aurrekontuaren inguruan.

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Zerbitzu Zuzendaritzako, Enplegu Zuzendaritzako eta Gazteria Zuzendaritzako langileak HAEEn "Aurrekontuak genero-ikuspegiaz" izeneko prestakuntza-ikastaroetara joan dira.
- ❖ Berdintasunerako administrazio-unitatean langileak aldatu izanak berekin ekarri du aurrerapauso nabarmenik eman ez izatea formularioak egitean (berdintasunerako administrazio-unitateak badu ezagutza berdintasunaren arloan, baita esperientzia zabala ere; alabaina, denbora gutxi daramanez, ez du behar adinako ezagutza Sailaren edo aurrekontuekin lotutako gaien inguruan, eta, horregatik, bere aholkularitza-ahalmena mugatu egin da ezarritako epeetan). Ildo horretatik, aurreikusi da berdintasunerako administrazio-unitateak parte hartzea genero-ikuspegia duten aurrekontuekin lotutako prestakuntzan eta, halaber, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorrak genero-ikuspegitik begiratuta aztertzeari dagokionez hobetzeko parte-hartze prozesuan. Ogasun eta Ekonomia Sailak gidatzen du prozesu hori.
- ❖ "Saila. Egitura eta Laguntza" programa. Hobetzeko neurri hauek proposatu dira:
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean aurreikusitako neurriak betetzeko eta eginkizunetan jarduteko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen aurrekontuetan urteko kontsignazio eta zehaztapenean aurrera egiten jarraitzea.
 - Zerbitzuek aditzera ematea, aurrekontu-memoriaren dagozkion ataletan, zein neurritan laguntzen duten genero-zeharkakotasuna ezartzen: neurrien garapenean behar bezalako jarraipena egiteko

adierazleak ezartzea eta prozedura komunak finkatzea formularioetan planteatutako analisisa betetzeko behar den informazioa biltzeko.

- ❖ “3121. Gizarteratzea” programa: gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun diren etxeetako pertsonei buruzko datuak lortu nahi dira, sexuaren arabera bereizita.
- ❖ “3122. Immigrazioa” programa: hainbat diskriminaziori erantzun ahal izateko, ERABEREAN sortu da — tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sarea—, baita honako hauek ere: Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza; BILTZEN eta BERDINDU zerbitzuak; eta hirugarren sektoreko 11 erakunde, antena gisa dihardutenak diskriminazio-egoerak antzemateko, eta litezkeen biktimei zuzeneko arreta ziurtatzen dietenenak. Sare horretatik, prebentzioaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren arloko jarduerak egiteaz gain, aurrera egingo da arrazaren, etniaren edo nazioaren arrazoiengatik eta sexu-orientazio eta -identitatearen eta genero-identitatearen arrazoiengatik diskriminazioa jasan duten biktimen arretan, aholkularitzan eta laguntzan.

Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuak (BILTZEN) genero-eremu bat du, helburu hauek dituzten hainbat jardura egiten dituen: emakume immigranteen integrazioa hobetzea; horien ahalduntzea bultzatzea; erakunde publiko eta sozialak aholkatzea beren esku-hartzean, immigrazioaren eta kulturartekotasunaren arloan, genero-ikuspegitik; osasun, polizia eta abarren esparruko langileak prestatzea kulturartekotasunaren eta genero-indarkeriaren inguruan; eta emakumeen mutilazio genitalaren arloko informazio, prestakuntza eta aholkularitzako jardunak bultzatzea. Era berean, emakume ijitoen kolektiboarekin lan egiten da, haien ahalduntzea bultzatuz eta emakume ijitoen elkarleen partaidetza soziopolitikoa sustatuz.

Sexu- eta genero-dibertsitatearekin zerikusia duten gaiei buruzko informazio- eta arreta-zerbitzuak (BERDINDU) LGTBI kolektiboekin lan egiten du, besteak beste, honako hauek jasotzen dituzten estrategia anitzak erabiliz: prestakuntza/sentsibilizazioa dibertsitatean eta identitate afektibo-sexualean, irakasleei, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta Ertzaintzako langileei zuzenduta; dibertsitatearen eta LGTBifobiaren aurkako borrokaren arloko ikusgaitasuna eta sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak (Zinegoak zinema eta arte eszenikoek jaialdia, Trans Biltzarra).

- ❖ “3123. Gizarte Zerbitzuak” programa: Aurrekontu-programak 1/2004 Lege Organikoaren legezko mandatuari erantzuten dio. Lege horren 27. artikuluan ezartzen da genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei diru-laguntzak eman beharko zaizkiela. Genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeei arreta emateko zerbitzuak jasotzen dituzten biztanleak honako kolektibo hauetakoak izan daitezke nagusiki:
 - Indarkeria jasaten duten emakumeak eta beren seme-alabak.
 - Aurrekoen hurbileko pertsonak (gainerako familiakoak, lagunak...).
 - Emakume horiek zaintzen dituzten gizarte-zerbitzuetako profesionalak.
 - Beste esparru batzuetako (hezkuntza, osasuna, justizia...) profesionalak, era berean, emakume horiei arreta ematen dietenak.

Segurtasun Saileko iturrien arabera (Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritza*), 2017an 3.758 alditan erregistratu ziren emakumeen aurkako indarkeriazko ekintzak, haien bikotekideek edo bikotekide ohiek gauzatutakoak (erregistratutako biktimizazio guztien % 75,2), eta 2.905 emakumek kalteak jasan zituzten (emakume guztien % 72,3). Indarkeria mota hori jasan zuten emakumeen % 56k 31 eta 50 urte bitartean zituzten, baina 30 urtetik beherakoak % 33,5 dira.

Mota horretako laguntzak genero-indarkeriaren biktimei zuzentzen zaizkie, baldin eta baliabide ekonomiko nahikorik ez badute eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak badituzte, adinagatik

edo prestakuntzarik ezagatik. Laguntza horien bidez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek bizirauteko gutxieneko baliabideak lortzen dituzte; horien bidez, erasotzailearengandik independizatzeko eta haien egoera egonkortzeko. Horien zenbatekoa 2.556 eta 10.224 euro bitartekoa da, emakume bakoitzaren egoera pertsonalaren eta familiarren arabera.

Ordainketa bakarreko diru-laguntza jasotzen duten emakumeen kolektiboaren ezaugarriak (2016).

38. taula. Ordainketa bakarreko laguntzen datuak (2016)

ZENBATEKOARI buruzko datuak	€
EAEn laguntzetara bideratutako guztizko zenbatekoa	1.100.000
EAEn gauzatutako guztizko zenbatekoa	1.068.408

Horrez gain, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko arreta eta informazio espezializatua ere badu Sailak (SATEVI). Telefonoak 900 840 111 zenbakia du eta 51 hizkuntzatan erantzuten du. Senideek eta hurbilekoek ere telefono horretara jo dezakete, baita emakume horiek zaintzen dituzten profesionalak ere. SATEVI 2017 urteko txostenaren arabera, 2017. urtean artatutako pertsonen % 66,5 indarkeria-egoera jasaten duten emakumeak berak izan dira (arreten % 72,8).

Zerbitzuak egindako esku-hartzearen esparruan, biktimei beraiei zuzenean arreta emateaz gain, emakumeenganako indarkeria-egoerei aurre egiteko laguntza-lana egiten da hurbileko pertsonen eta profesionalen zuzenduta, kasu jakin batekin lotuta nahiz biktimekiko zuzeneko harremanik ez dagoenean, baina, nolana ere, arlo horretako informazioa eskatzen denean.

Illo horretatik, artatutako pertsonen % 27,9 (% 21,2 emakumeak / % 6,8 gizonak) biktimen hurbilekoak dira, kontzientziazio-prozesuan biktimei adre emateko eta/edo laguntzeko informazioa eta orientazioa eskatzen dituztenak, baita tratu txarren egoeratik irtekeko urratsak sustatzeko jarraibideak ere. Hurbileko pertsonen talde berean, biktimen senideak eta lagunak bereziki nabarmen dira.

Guztira 103 irudi profesional artatu dira (% 5,71), 77 kasutan biktima zehatzekin lotutako eta 67 profesionalak egindako kontsultetarako (% 3,7) eta 43 kasutan 36 profesionalak egindako kontsultetarako (% 2,01); kasu horretan, emakumeenganako indarkeriarekin lotuta, baina jakin batekin zuzenean zerikusirik izan gabe.

Zerbitzu horrek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako genero-indarkeriaren biktima diren emakumei arreta emateaz gain, helburu ditu, baita ere, familia barruko generoko indarkeria-kasuak, sexu-jazarpenekoak eta/edo lan-eremuko sexu-arrazoiekin lotutakoak, sexu-erasoetakoak, behartutako prostituzioak eta sexu-esplotazioa helburu duten giza-erabakiek salerosketakoak, besteak beste.

2016an, guztira 2.845 arreta-eskaera jaso dira, eta horietatik 2.511 dei egokiak dira.

- ❖ **“3124. Familia eta Komunitate Politika” programa:** bi helburu biltzen dituen aurrekontu-programa honetako P19-Gen formularioaren ondorioetarako, analisi honetan erabaki da bateratze-politikari buruzko helburuaren zati bat soilik lehenestea, kontuan izanik gai hori emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko ardatza dela. Zehazki, programa honetan proposatutako helburuen etorkizuneko analisietarako, programan jasotako gainerako helburuetan aurrera egitea proposatzen da. Horretarako, analisisia egin behar duten langileen prestakuntza behar da, eta lan hori haien lan-kargan aurreikusi behar da. Gainera, eta hurrengo ekitaldiei eta informazio erreala lortzeki begira, sistematizatu egin beharko litzateke erakundeetatik behar den informazioa, eta, aldi berean, kontratatzen direnean edo diru-laguntza ematen zaienean bete beharko duten formulario bat prestatu beharko litzateke.

- ❖ “3211. Enplegua” programa: 2019an EGFren 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboaren komunikazio-estrategiari buruzko ebaluazio bat kontratatuko da genero-ikuspegia barne hartuta.
- ❖ “3222. Gazteria” programa: Gazteen Euskal Behatokiak aurreikusi du gazteei buruzko 4 azterlan egitea, guztietan genero-ikuspegia barne hartuta.
- ❖ LANBIDE. “3121. Gizarteratzea” programa: Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema izenekoak programa hau du oinarri. Programaren helburu-populazioaren deskribapena dakar. Datu batzuek aukera ematen dute EAEk emakumeen autonomia ekonomikoari dagokionez abiapuntu duen egoera identifikatzeko. “Zifrak 2016. Emakumeak eta gizonak Euskadin” txostenetik —2015. urteko informazioetatik abiatuta— eta “Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta 2016” inkestatik—ERRENTArekin lotuta— erauzi dira. Hona hemen aipatutako datuak:
 - EAEko emakumeen batez besteko errenta pertsonala 14.711 eurokoa da, gizonen batez besteko errenta pertsonalarekiko ia 10.000 €-ra.
 - 2016an, emakumeak buru dituzten etxeek EAEko pobrezia errealeko kasu guztien % 49,7 biltzen dituzte, 2008ko % 33,9aren 15 puntu gehiago gainera.
 - 18 urtetik gorako emakumeen % 33,4k ez dute errentarik edo urteko 4.500 eurotik gorako errenta dute, gizonen % 18,8aren aldean.
 - Emakumeen % 45,3k 9.000 eurotik beherako batez besteko errenta dute (gizonen % 25,4aren aldean), eta 18.000 €-tik beherako batez besteko errenta 10 emakumetik 7k (% 69,3). Gizonen artean, berriz, portzentaje hori ez da % 44ra iristen.
 - Enpleguaren bidez jasotako batez besteko irabaziei dagokionez, Estatuko soldata-sarreraren buruan daude EAEko emakumeak.
 - Emakumeen soldata gizonen soldataren % 76 da EAEn.
 - EAEko emakume pentsiodunen artean, talderik ugariena da alarguntasun-pentsioa jasotzen dutenena, % 47,2. Gizon pentsionisten kasuan, talde ugariena, % 82,4k, erretiroagatik jasotzen du pentsioa.
 - Emakumeek pentsio txikiagoak jasotzen dituzte tipologia guztietan, alarguntasunekoetan izan ezik. Horietan islatzen da, halaber, emakumeen erretiro-pentsioak txikiagoak direla beren bikotekideak alarguntzen direnean.
 - 10.010 alarguntasun-pentsio 300 € baino txikiagoak ziren —hau da, muturreko pobreziaren mugatik behera zeuden—, eta 48.903 pentsio gehigarrik hileko 648,59 €-tik beherako kopuruak zituzten.

2018ko urtarrilean, Lanbiden emakumeen 34.303 DSBE espediente irekita zeuden, gizonen 25.611 espedienteen aldean.

Enplegu-zerbitzura jotzen duten emakumeen artean, genero-indarkeriaren biktimak daude. Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak hainbat neurri aurreikusten ditu, eta horien artean daude enplegu-zerbitzu publikoetan izena emanda dauden biktima langabeei zuzendutakoak.

2017an, genero-indarkeriaren biktima direla salatu duten 4.519 emakumeetatik 700 LANBIDEn erregistratuta daude lan-eskatzaileria gisa, eta horietatik 659, % 94,2, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dute.

Biktima gehienak 45 urtetik beherako gazteak dira. 35 urtetik 44rako tartea da ugariena, guztizkoaren % 42,5; eta 25 eta 34 urte bitartean daude biktimen % 30,7. 45 urtetik gora, biktimen % 19,6 baino ez daude. Batez besteko adina 37,24 da.

DSBEaren titularren artean, adin-egitura askoz zahartuagoa da: erdiak baino gehiago 44 urtetik gorakoak dira.

Emakume pentsiodunen kolektiboa oso txikia da: % 2,8 soilik daude egoera horretan. DSBeko kolektiboaren osotasunean, portzentaje hori % 20,0 da (emakumeen artean, % 22,7). Emakumeen kolektibo horren % 66,2k guraso bakarreko familiaren osagarria kobratzen dute. Portzentaje hori DSBEaren titular guztiei dagokiena (% 15,9) baino askoz altuagoa da, baita titularra emakumea denean ere (% 27,6). Izan ere, % 74k (lautik hiruk) adingabeak dituzte beren ardurapean. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular guztiei dagokienez, portzentaje hori % 31,6koa da, eta % 42,3 titularra emakumea denean. Bi kasuetan, portzentaje horiek genero-indarkeriaren biktimen kolektiboari dagokion portzentajearen oso azpitik daude. Egoera horietan, familia-erantzukizunak emakume horien egoera zailari gehitutako arazoa dira.

- ❖ LANBIDE. “3231. Prestakuntza” programa: programaren helburu den populazioari buruzko diagnostikoa egiten du. Ondorio nagusien artean, generoaren arabeko diskriminazio bertikala eta horizontala dagoela egiaztatu da. Emakume gehienek hezkuntza-jarduerak, osasunekoak eta mendekotasuna duten pertsonak (haurrak eta adinekoak) zaindu eta artatzekoak, administrazioakoak... egiten dituzte. Laburbilduz, zaintzaile gisa duten rola funtzio nagusiaren ondorio diren lanbideetan dihardute. Aldaketarako funtsezko alderdi bat da estereotipo bai maskulinoak, bai femeninoak ezabatzea edo aldatzea da. Helburua da bai gizonezkoak tradizionalki “femeninoak” diren lanetan sartzea, bai emakumezkoak “maskulinotzat” jo ohi diren enpleguetan sartzea. Horretarako, funtsezkoa da belaunaldi berriak berdintasunean hezteak, eta, hezkuntza-etapetan, lanbidearen hautaketa oinarritzea ikasleen trebetasun, kidetasun eta itxaropen pertsonaletan, eta ez, ordea, gizarte-estereotipoetan. Izan ere, estereotipo horiek ikasleen garapen eta hazkunde pertsonal eta profesionaleko aukerak mugatu besterik ez dute egiten.

Emakumeen kasuan, heziketan, prestakuntzan eta enpleguan dauden genero-estereotipoek gain, eta etxeko eta zaintzako erantzukizunaren gainkarga ez ezik; enpleguan irauteko, promozionatzeko eta finkatzeko garaian gizonen eta emakumeen partaidetzaren arteko desoreken arrazoi diren desberdinkeria-faktoreen artean daude enpresen eta erakunde sexisten kultura eta enplegu-politiken genero-ikuspegirik eza. Hona aipatutako desberdinkeria-faktoreak: emakumeen lan-jardueraren tasa txikiagoa, soldata-arraila, bereizketa horizontala eta bertikala, emakumeen lan-ezegonkortasun handiagoa, emakumeen presentzia txikiagoa ordezkatzeko eta erabakitzeko lanpostuetan, denboraren erabilera desberdina.

- ❖ LANBIDE. “3211. Enplegua” programa: programaren helburu den populazioari buruzko diagnostikoa egiten du. Laburbilduz, emakumeek lan-merkatuan duten partaidetza gero eta garrantzitsuagoa bada ere, emakumeen enpleguak eragozpenak eta diskriminazioak jasaten ditu oraindik ere; eta horiek emakumeak bultzatzen dituzte pobrezia-egoera gero eta handiagora gizonen aldean, eta galarazi egiten dute EAEko gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Planen helburuak lortzea. EAEko emakumeek diskriminazioa jasaten dute alderdi hauetan: kontratazio-baldintza okerragoak, lanaldi okerragoak eta soldata txikiagoak. Gizarte-estereotipoek eta ugalketa-lanean eta zainketetan dedikazio txikiagoa izateak ere eragina dute okupazio-banaketan. Halaber, lanaldi partzialeko lanetarako emakumeen ustezko joerari buruzko aurreiritziak ere badira.

6.5. INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari honako eginkizun eta jardun-arlo hauek dagozkio:

- ❖ Ingurumena.
- ❖ Urak.
- ❖ Kanalak eta sail ureztatuak.
- ❖ Baliabide naturalak antolatzea eta natura kontserbatzea.
- ❖ Lurraldea eta itsasertza antolatzea.
- ❖ Lurzorua eta hirigintza.
- ❖ Etxebizitza eta urbanizazioa.
- ❖ Arkitektura, eraikuntza, iraunkortasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntzaren kalitatea.
- ❖ Irisgarritasuna sustatzea.
- ❖ Hiri-birgaitzea, haren hiru alderdietan: eraikinak birgaitzea, berritzea eta hiri-berroneratzea.

Bere politikak garatzeko, 6 aurrekontu-programa ditu, taula honetan erakusten den moduan banatuta:

39. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	AURREKONTU BATERATUA
4312. Etxebizitza	141.806.292
4313. Lurralde Antolamendua	8.775.603
4420. Egitura eta Laguntza	6.337.410
4421. Ingurumenaren Babesa	28.272.243
5121. Uraren Plangintza eta Administrazioa	37.542.202
5414. Berrikuntzarako Funtza	656.250
GUZTIRA	223.390.000

Zenbateko horretatik, % 47 transferitzen die Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den URA Uraren Euskal Agentziari eta, era berean, atxikita dauden sozietate publikoei: Ihobe (Ingurumen Kudeaketa), VIVESA (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra) eta Alokabide (Alokairuko Etxebizitza).

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Beraz, azertu beharreko aurrekontua 119.458.912 €-ra murrizten da, 5 programatan banatuta.

40. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
4312. Etxebizitza	87.023.305
4313. Lurralde Antolamendua	8.495.603
4420. Egitura eta Laguntza	4.734.764
4421. Ingurumenaren Babesa	18.548.990
5414. Berrikuntzarako Funtza	656.250
GUZTIRA	119.458.912

“5414. Berrikuntzarako Funtza” programa zuzendutako dago “4313. Lurralde Antolamendua” programaren 4. helburua zati batean finantzatzera; zehazki, “4.3. Gidatze-taldea. Hiri-habitata” helburua. Beraz, programa horren analisia, ondorio guztietarako, 4313 programaren zati gisa egin da.

Aztertu beharreko aurrekontua 2018ko aurrekontuen gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenean aintzat hartutakoa baino nabarmen txikiagoa da. Horren arrazoia da URA agentziari transferitutako funtsak bakarrik deskontatu izana aurrekontutik.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Aurreko txostenetan bezalaxe, aztertu beharreko aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokia da. Sailaren aurrekontu osoaren % 53 da.

41. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
4312. Etxebizitza	87.023.305	BAI
4313. Lurralde Antolamendua	8.495.603	BAI
4420. Egitura eta Laguntza	4.734.764	BAI
4421. Ingurumenaren Babesa	18.548.990	BAI
5414. Berrikuntzarako Funtza	656.250	BAI
GUZTIRA	119.458.912	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

42. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA GENEROAREKIKO GARRANTZIAREN ANALISIA				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
4312. Etxebizitza	87.023.305		4	
4313. Lurralde Antolamendua	8.495.603	5		
5414. Berrikuntzarako funtsa	656.250	5		
4420. Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza. Egitura eta laguntza	4.734.764	5		
4421. Ingurumenaren babesak	18.548.990		3	
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	119.458.912	% 12	% 88	% 0

Generoarekiko garrantziari emandako balorazioa aurreko ekitaldietan emandako bera da. Aurrekontu-mailan adierazgarria da % 88 garrantzi ertaineko gisa kalifikatzea. Datu horrek ez du eraginik analisisan, garrantzi handiko eta ertaineko programetarako informazio bera behar baita.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikotarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

43. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	AURREKONTUA (€)
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	59.038
Plana ebaluatze eta kudeatzeko aurrekontua	6.000
Udalerrietako hiri-plangintzetan genero-ikuspegia barnean hartzeko udalerriei zuzendutako diru-laguntza	200.000
Hiri-berroneratzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko azterketa	8.228 ¹³
GUZTIRA	273.266

¹³ Aurrekontuak guztira 10.285 €-ko kostua du eta 2018ko eta 2019ko ekitaldien artean banatu behar da. Taulan 2019ko ekitaldiaren kargurako aurrekontua soilik jaso da, hau da, kostu osoaren % 80.

2018ko aurrekontuetan mantendu egin da berdintasun-politika espezifikoetarako aurrekontua. Aurrekontu osoaren % 0,23 besterik ez da.

4312 Etxebizitza programan, hobekuntza-neurri gisa, proposatzen dute aztertzea Etxebizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egiten den lana gehiago bistartzeko moduak (esate baterako, Erakunde Arteko II. Akordioan izandako parte-hartze zuzenaren aipamena, antolatzen den arlo horretako prestakuntzaren aipamena, ekintza horietarako partida txiki bat sortzeko aukera aztertzea....). Analisi horri esker, segur aski, berdintasun-politika espezifikoetara zuzendutako aurrekontuaren zati bat bistaratuko da.

Bestalde, 2019rako Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 18.237.500 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 8. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldiari behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

44. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	3	405.000
Aurreikusitako hitzarmenak	2	375.000
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	5	17.487.500
GUZTIRA		18.267.500

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Ahalegin handia egin da programetako batzuen helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- ❖ Sailaren etengabeko hobekuntzaren parte da genero-desberdinkerien analisisan sakontzea eta langileen artean berdintasunaren arloko prestakuntza bultzatzea.
- ❖ 4313 Lurralde Antolamendua programa. Hirigintzan eta lurralde-antolamenduan genero-ikuspegia barnean hartzeko kontuan izan beharreko alderdien analisia egiten du. Zehazki alderdi hauei buruz:
 - Genero-rolen inpaktua, ordaindu gabeko lanaren inpaktua eta sexuen arteko lanaren banaketaren inpaktua, betiere gizonen eta emakumeen egiten duten hiriaren erabilera bereizian.
 - Gizonen eta emakumeen arteko segurtasunaren arloko pertzepzio desberdina espazio publikoan eta garraioan, eta horrek duen inpaktu negatiboa emakumeen egiten duten hiri-ondasunen eta hiri-zerbitzuen erabileran.
 - Emakumeen pobrezia erlatiboa eta faktore horrek diskriminazio potentzialeko beste ezaugarri batzuekin duen lotura, hala nola egoera zibilaren arabera familia-kargekin (batik bat guraso bakarreko eta pertsona bakarreko etxeetan), arrazarekin, adinarekin, ahalmen funtzionalarekin edo genero-indarkeriaren biktimekin.

- Emakumeen presentzia urria hiriaren eraikuntzarekin lotzen diren lanbideetan eta lurralde-gobernuaren egituretan; eta generoaren arloko ezagutza aditurik eza.
- “Zaintzaren hirigintzarako” hiri-eredua.

Horrez gain, 4313 Lurralde Antolamendua programan aldatu egin da genero-ikuspegia plangintzan barnean hartzeko laguntzari buruzko aipamena, eta indar eta ikusgarritasun handiagoa eman zaio.

Bestalde, memoriaren lehen atalean genero-ikuspegia txertatzeari buruzko aipamen bat gehitu da.

Aintzat hartu da hiri-berroneratzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko azterketa kontratatzea.

- ❖ 4313 Lurralde Antolamendua eta 4312 Etxebizitza programetan, honako neurri zuzentzaile hauek gehitu dira:
 - Lan-prozesu zehatza eta egituratua proposatzea P20G egiteko, epe egokiekin eta parte-hartze teknikoarekin eta politikoarekin.
 - Inplikatura dauden langileen artean sustatzea HAEEk 2019rako eskaintzen duen aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko prestakuntza.
 - 2020ko memorian aldaketak aztertzea eta planteatzea, sexuen arabera datu bereziak txertatzeko eta gizonen eta emakumeen artean hautemandako desberdinkeria adierazgarrienen aipamena txertatzeko.
- ❖ 4420 Egitura eta Laguntza programa. Barneko lan-prozesu bat hasi da genero-ikuspegia izango duten aurrekontuen formulazioan aurrera egiteko. Prozesu horren ondorioz, 2019an honako neurri hauek abian jartzea aurreikusi da, P20G egiteko:
 - Lan-prozesu zehatza eta egituratua proposatzea P20G egiteko, epe egokiekin eta parte-hartze teknikoarekin eta politikoarekin.
 - Inplikatura dauden langileek, 2019an, HAEEk eskaintzen duen aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko prestakuntza sustatzea.

Gainera, 2018an, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU/UPV) prestakuntza-jardunaldi bat egin du Saileko kargu publikoei eta zerbitzu-burutzei zuzenduta. Bestalde, Saileko berdintasun-teknikaria zuzendaritzetako langile teknikoekin bildu da, eta bilera horietara aurrekontu-programa bakoitzeko arduradunak ere bertaratu dira.

- ❖ 4421 Ingurumenaren Babesa programan helburu-populazioaren analisisian sakontzen da. Horretarako, Emakunderen 2014ko “Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa ingurumenean” txostenaren laburpena gehitu da. Esteka honetan eskura daiteke txostenaren informazio osoa: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ipp_adm_general/es_emakunde/adjuntos/materiales_sectoriales.medio.ambiente.pdf
- ❖ 2018an, Sailak emakumeari eta etxebizitzari buruzko txosten bat argitaratu du. Esteka honetan eskura daiteke txostena: http://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovpe02/es/contenidos/informacion/ovv_mujer17/es_ovv_ana/index.shtml

6.6. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

Ogasun eta Ekonomia Sailak prestatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak, eta Sail horri dagokio barne-kontrol ekonomikoa eta gobernuaren finantza-politika. Sailak 7 aurrekontu-programa ditu bere eginkizunak betetzeko, hurrengo taulan ikus daitekeen banaketarekin.

45. taula. Sailaren aurrekontu bateratua

SAILA OGASUNA ETA EKONOMIA	AURREKONTU BATERATUA
5511. Eustat	12.696.173
6110. Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza	7.141.710
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.688.524
6112. Zerga Politika	3.273.638
6114. Ondarea eta Kontratazioa	8.176.287
6115 Lehiaren Euskal Agintaritza	1.207.000
6311. Finantza Politika	10.398.668
GUZTIRA	52.582.000

Sail honi atxikitzen zaizkio Euskal Estatistika Institutua (EUSTAT) eta Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoak eta Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Ogasun eta Ekonomia Sailaren kasuan, beraz, aurrekontu osoa aztertzen arituko ginateke, salbu Finantzen Euskal Institutuaren aurrekontua.

46. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
6110. Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza	3.493.710
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.688.524
6112. Zerga Politika	3.273.638
6114. Ondarea eta Kontratazioa	8.176.287
6311. Finantza Politika	10.398.668
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza	1.433.000
5513. EUSTAT. Estatistika- eragiketa eta -argitalpen ofizialak	13.437.000
GUZTIRA	49.900.827

Lehiaren Euskal Agintaritzaren helburu nagusia da merkatuko gardentasunaren eta lehia librearen baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-esparruan gauzatzen diren ekonomia-jarduerari dagokienez, eta Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legean xedatutakoaren arabera. Lehiaren Euskal Agintaritzak, bere helburuak betetzeko, egikaritzen ditu zehapen-eskumenak, sustapenekoak, aurka egitekoak, irizpenekoak, kontsultakoak eta arbitrajeak.

EUSTAT da Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-informazio ofiziala garatzen, sortzen eta hedatzen duen erakunde ofiziala. Otsailaren 18ko Legeak definitzen ditu gaur egun emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko nazioartean egokientzat jotzen diren bi printzipio edo estrategia osagarriak: genero-ikuspegia barnean hartzea eta ekintza positiboa. Lege horrek, halaber, estrategia horien aplikazio efektiborako oinarriak ezartzen ditu, eta horien artean dago estatistikak eta azterketak hobetzea.

Estatistikaren jardueran oinarrituta, Lege horren 5. artikulua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko erakunde komunen eskumenen artean sartzen du: “Estatistikak berdintasun-printzipioari egokitzeko metodologia diseinatzea eta horri buruzko plangintza egitea, bai eta estatistikak egokitu eta eguneratzea ere, horien bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak esku hartzen duen eremu guztietan emakumeek eta gizonak bizi duten egoeraren ezberdintasunak ezagutu ahal izateko”.

Ildo horretan, 4/2005 Legearen II. Kapituluak, 16. artikuluan, ezartzen ditu euskal botere publikoek zer jarraibide jarraitu behar dituzten haien azterketak eta estatistikak egiteko. Jarraibide horien artean nabarmentzen da, estatistika-jardueraren ondorioetarako, estatistiketan sistematikoki barnean hartzea sexuaren aldagaia, baina, baita adina, prestakuntza-maila, bizikidetasun-unitatea, enplegu mota eta abar ere. Edonola ere, ezaugarri espezifikoak dituzten kolektiboak —batzuetan zaurgarritasun handiagoko jatorrikoak (bizitokia, lanbidea, desgaitasuna, immigrazioa...)— kontuan hartuko dira, baina soilik estatistika-eragiketetan hain bistakoak ez direnak edo batera bistakoak ez direnak, pisu demografiko txikia izateagatik. Zeregin zail horrek gobernuetako estamentu guztiak hartzen ditu, orokorrak zein tokikoak, eta halaxe adierazten dute arauak eta gomendioak. Haatik, EUSTATen esku dago zeregin nagusia —haren egitekoei jarraituz—, eta, ildo horretan, EUSTATEk ibilbide oparoa du sexuen arabera banakatutako estatistiketan.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

2018ko aurrekontuetarako txostenean bezalaxe, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokitzen da eta, horrenbestez, jardunek genero-ikuspegitik duten inpaktua azter daiteke.

47. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

SAILA OGASUNA ETA EKONOMIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
6110. Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza	3.493.710	BAI
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.688.524	BAI
6112. Zerga Politika	3.273.638	BAI
6114. Ondarea eta Kontratazioa	8.176.287	BAI
6311. Finantza Politika	10.398.668	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza	1.433.000	BAI
5513. EUSTAT. Estatistika- eragiketa eta -argitalpen ofizialak	13.437.000	BAI
GUZTIRA	49.900.827	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

48. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

OGASUNA ETA EKONOMIA AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
6110. Ogasuna eta Ekonomia. Egitura eta Laguntza	3.493.710	6		
6111. Ekonomia eta Gastu Publikoa	9.688.524	6		
6112. Zerga Politika	3.273.638			2
6114. Ondarea eta Kontratazioa	8.176.287			2
6311. Finantza Politika	10.398.668			2
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
6115. Lehiaren Euskal Agintaritza	1.433.000			2
5513. EUSTAT. Estatistika-eragiketa eta -argitalpen ofizialak	13.437.000		4	
GUZTIRA	49.900.827	% 26	% 27	% 47

2018ko aurrekontuetarako txostenaren balorazioak mantentzen dira. Aurrekontuaren % 53 garrantzi oso handikotzat jotzen da, zehazki Aurrekontu Zuzendaritzako, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako eta Berdintasunerako Administrazio Unitateko eginkizunak kokatzen diren arloetan.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

49. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

SAILA OGASUNA ETA EKONOMIA		
6110. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	58.039
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	35.000
	Berdintasunaren arloko prestakuntzarako partida	8.000
6112. Zerga Politika	Zerga-politikari eta berdintasunari buruzko jardunaldia	15.000
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
5513. EUSTAT	Berdintasun-eginkizunak dituen estatistika eta teknika. Kostuak	56.708
	Web-gunean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-ataleko estatistika-eragiketa	45.500
GUZTIRA		218.247

2018ko aurrekontuei dagokienez, 6112 Zerga Politika programak zerga-politikari eta berdintasunari buruzko jardunaldi baterako gorde duen partida nabarmentzen da.

Berdintasun-ekintza espezifikoetara zuzendutako aurrekontu osoa Sailaren aurrekontuaren % 0,44 da.

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 96.000 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 1. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

50. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

OGASUNA ETA EKONOMIA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikositako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	2	96.000
GUZTIRA		96.000

- ❖ Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko prestakuntza-saio bat egin da Saileko kargu publikoentzat.
- ❖ Genero-ikuspegia duten aurrekontu-programak formula daitezen sustatu da, baita berdintasunaren arloko ekintza positiboak bistara daitezen ere. Administrazio Orokorrak, Erakunde Autonomoek eta Partzuergoek diseinatu beharreko aurrekontuak prestatzeko arau teknikoek bitartez lortuko da hori.
- ❖ 6110 Egitura eta Laguntza programa. Aurrerapen hauek aurkeztu dituzte:
 - Lehen aldiz zuzkitu da langileentzako (kargu publikoentzako barne) berdintasunaren arloko prestakuntza-jardueretarako aurrekontu espezifiko bat.
 - Sailean berdintasun-politikak bultzatzeko aurrekontua handitu da, 25.000 €-ko aurrekontua izatetik 35.000 €-ko aurrekontua izatera pasa da.
 - Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko prestakuntza-saio bat egin da, Saileko langileei zuzendua.
 - Berdintasuneko teknikariek osatutako sailarteko lantaldea osatu da, formulario honen alderdi teknikoak adosteko, betiere Emakunderekin elkarlanean (2018-2019). Talde hori dinamizatzeko baliabideak esleitu dira.
 - P-Gen formularioaren behin betiko bertsioa egin aurretik aurkeztu zitzaion formularioa Berdintasunerako Sailarteko Talde Teknikoari, eta talde horrek hobekuntzak ekarri zizkion tresna horri. Aurrez, eta ohikoa denez, Emakunderekin egiaztatu zen zirriborroa.
 - Zerbitzu Zuzendaritzak Sailarteko Berdintasun Plana (2018-2021) sustatzen dihardu, eta, horri esker, sakontzen ari da Sailaren jardunetan genero-ikuspegia barnean hartzeko prozesua —zehazki, programaren eskumen-esparruan—.
 - Aurrekontu-memoriaren hizkuntza aldatu da, azken bertsioaren aurretik.

Hobekuntza-neurri hauek proposatu dituzte:

- Saileko langileen datuak sistematizatzea, formularioaren 4.3.2. puntua behar bezala betetzeko moduan.
- Saileko langileentzako berdintasunaren arloko prestakuntza-beharak diagnostikatzea.
- Emakunderekin lankidetzat instituzionaleko hitzarmen bat bultzatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak sustatzen dituen kanpainak babesteko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 26. artikulua).
- Datuak sexuaren arabera bereizita ustiatzen saiatzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 16. artikulua), batik bat langileen, euskararen eta berdintasunaren arloetan eta Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzan.

- Memorien formulazioa hobetzea, berdintasunaren lorpenean egindako ekarpena bistartzeko eta, hortaz, ebaluatzeko moduan.

❖ 6111 Ekonomia eta Gastu Publikoa programa. Aurrerapen hauek aurkeztu dituzte:

- Aurrekontu Zuzendaritza:
 - Aurrekontu Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza (bertan kokatuta dago Berdintasunerako Administrazio Unitatea) eta EJE elkarrekin aztertzen ari dira P-Gen formularioa nola txertatu aurrekontua prestatzeko informatika-aplikazio berrian.
 - Soldata-arrailearen aurkako Gobernu Planaren aurrekontu-jarraipen espezifikoa egiteko, ezaugarri bat sortu da 2019ko aurrekontuan, eta, bertan, Plan horri atxikitzen zaizkion aurrekontu-partidak identifikatuko dira.
 - Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko HAEEn ikastaroetan Zuzendaritza honetako kide batek parte hartu zuen.

Hobetzeko neurri hauek proposatu ditu Zuzendaritzak:

- Genero-inpaktua duten aurrekontu-memorien formulazioa bultzatzea.
- Langile teknikoak, administrazioak eta politikoak genero-ikuspegia duten aurrekontuetan trebatzea.
- Berdintasunaren arloko partidei buruzko informazio espezifikoa lortzeko aukera aztertzea, eta, hartara, aurrekontuak prestatzeko aplikazio berrian jarraipena eta ebaluazioa erraztea.
- Berdintasunaren arloko ekintza espezifikoetarako aurrekontu-esleipena erraztea, bereziki berdintasuneko administrazio-unitate berriak sortzeko behararen ondorioz.
- Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza:
 - Aurreikuspen- eta simulazio-eredu berriaren ezaugarriak eta kontratazioa. Datuak ematen dituzten tresnek arduratu beharko dute ereduaren barne-funtzionamenduan genero-ikuspegia barnean hartzeaz, genero-ikuspegi horretan aldagaien sekzioarteko izaera gehitzearren.
 - *Ekonomiaz* aldizkarian genero-ikuspegiarekin lotzen diren gaiak jorratzen jarraitzea.
 - Generoaren arloko prestakuntza egokia ematea dokumentuak eta txostenak prestatzen dituen lantaldeari, nahiz eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzan lan egiten duten pertsona guztiei eman beharko litzaiekeen prestakuntza hori.

❖ 6112 Zerga Politika programa. Aurrerapen hauek aurkeztu dituzte:

- 6112 programaren esparruan egindako estatistiken eta azterketen iturri diren beste Administrazio batzuek emandako informazioa, modu progresiboan, sexuen arabera bereizita prestatzea eskatu da. Zehazki, Euskal Ogasuneko Urteko Txosten Integratua. Hartara, Foru Aldundiak informazio hori ematen hasi dira.
- Komunikazioetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak hedatu dira, eta idazki eta komunikazio ofizialetan kontrol-prozedurak normalizatu dira.
- Egiaztatu da zerga-hezkuntzako zerbitzu-kontratuaren esleipendunak sexuen araberako bereizketa hartzen duela aintzat proiektuaren ezarpen-mailari buruzko aurrerapen-txostenean zein eman beharreko azken memorian —halaxe jasoarazi da kontratazio-espedienteen agirietan—.

- Pertsona anitzeko organoetan parte hartzen duten gainerako erakundeei eta organismoiei ohartarazi zaie komeni dela genero-ikuspegia barnean hartzea organo horietako parte-hartzaileen hautespenean eta izendapenean (4/2005 Legearen 20.4. artikulua).

Hobekuntza-neurri hauek proposatu dituzte:

- Berdintasun-politiken arloko ikastaroen berri ematea.
- Jasotako prestakuntzari dagokionez, jakintzaren hedapena bermatzea.
- Zerga-politikaren ikuspuntutik emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak balioztatzeko jarduerak egitea.
- Zerga Administrazioako Zuzendaritzak argitaratzen duen *Zergak* aldizkarian —azterketei eta lankidetzeari buruzko atalean—, urtean, zerga-politikarekin lotzen den generoaren arloko artikulua bat, gutxienez, txertatzea.
- Bi Zuzendaritzetan berdintasuna bultzatzeko arduradunak izendatu dira, Saileko Talde Teknikoa osatzeko eta berdintasunerako plangintza koordinatzeko. Langileak, oro har, organo horietako parte izateko prest ez daudenez gero, arduradunak ia behartuta hautatzen ari dira.

❖ 6114 Ondarea eta Kontratazioa programa:

- P18-Gen formularioan aurreikusi diren informatika-garapenak inplementatu dira, eta, hartara, administrazio-kontratazioan, berdintasun-klausulak hedatu eta barnean hartuko dira, baita informazio bereizi gehiago lortu ere.
- Helburuak eta ekintzak hobetzeko gogoeta-prozesuari ekin zaio.
- Batzordeko aholkularitza juridikoko arduraduna aurrekontuen arloko berdintasunean trebatu da, eta ikaskuntza hori aurrekontuaren prestaketara eraman da.
- Emakunderekin elkarlanean, bidezko hobekuntzak ari dira egiten web-gunean, betiere kontratazio publikoan berdintasun-klausulak gehiago bistaratzearren eta ondorengo analisi baterako informazio interesgarria lortzearren. Bi bilera egin dira, eta bilera horietan parte hartu dute kontratazio elektronikoko arduradunak, Emakundeko bi ordezkariak eta Saileko berdintasuneko teknikariak.
- 2019rako planifikatu da kontratazioan berdintasun-klausulak barnean hartzeko gomendioen dokumentu bat prestatzea. Kontratazio Batzordeari aurkeztuko zaio. Sailek ondoren egingo dituzten kontratuetan berdintasun-klausulak txerta daitezen sustatu nahi da.

❖ 6311 Finantza Politika programa:

- Euskadin Gizarte Aurreikuspen Osagarriari buruzko urteko txostenean generoari buruzko beste kapitulu bat txertatu da. Gaur egun onarpen-fasean dago. Esteka honetan aurki daiteke: http://www.euskadi.eus/web01-a2finan/es/contenidos/informacion/informe_prev_soc_compl_2016/es_def/index.shtml

- Generoaren aldagaia txertatu da kontabilitateko informazio estatistikoan.
 - Gizarte Aurreikuspeneko Plan berria egiteko lanetan laguntzen ari da, Mendekotasuneko (Bizkaia) zaintzaileen kontingentziak estaltzeko funtsen ekarpen publikoekin.
 - Hobekuntza-neurri gisa proposatzen da Gizarte Aurreikuspen Osagarrian zerga-neurri pizgarriak txertatzeko aukera aztertzea, betiere premia handieneko kolektiboetarako.
- ❖ LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. 2018an, genero-berdintasunaren arloko neurriei buruzko dokumentazioa berraztertzeko eta hausnartzeko prozesu bat hasi zen. Abiapuntutzat hartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzak ez duela genero-berdintasunean eragina izan dezaketen zuzeneko politika publikorik egiten eta, hartara, haren generoarekiko garrantzia oso-oso txikia dela.

Testuinguru horretan aldaketa-ahalmenik handiena komunikazioarekin lotzen da (argitalpenekin, komunikazioekin eta abar), zehazki komunikazio horietan egiten den hizkuntzaren erabilerarekin eta irudiekin. Hori dela eta, langileak berdintasunean pixkanaka prestatzea sustatuko da.

2018an, Lehiaren Euskal Agintaritzako bi kide sartu dira Sailaren Talde Teknikoan.

- ❖ EUSTAT. Erakundeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak dira:
- 2018-2022 aldirako EUSTATen Berdintasun Plana prestatzea.
 - Planaren 2019rako ekintzak planifikatzea, bultzatzea eta gauzatzea.
 - Hizkuntza ororen erabilera sexista saihestea kontratueta eta hitzarmenetako dokumentuetan eta euskarrietan.
 - Eragiketako proiektu teknikoak arian-arian eguneratzea, hedapenerako txertatzen diren sexuen araberako taulak barnean hartuta.
 - EUSTATen web-orrian berdintasun-atalari protagonismoa ematea, eta garrantzizko edukiak nabarmentzea sare sozialen bidez.
 - Eragiketa estatistikoaren urteko ebaluazioan, genero-ikuspegia barnean hartzea hobekuntza gisa.
 - Berdintasun-atalean eragiketa berrien informazioa gehitzea.
 - Aurrez dauden tauletan sexuaren aldagaia txertatzea.
 - Aurrez dauden tauletan sexua eta adina gurutzatzea. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta.
 - EUSTATen 2015-2020 aldirako prestakuntza-plana: EUSTATEko langile guztien oinarritzko prestakuntzan, genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza-ekintzak antolatzea.
 - EUSTATen web-gunean hizkuntza berrikusten jarraitzea.
 - Definizioetako hizkuntza genero-ikuspegitik berrikustea, langile teknikoek eragiketa estatistikoaren web-elementuak berraztertzea.

- Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko edukia duten prentsa-oharren kopurua gehitzea.
- Interneten berdintasun-atalari protagonismoa ematea, eta garrantzizko edukiak nabarmentzea sare sozialen bidez. Prentsa-teknikariak, bere taulak oinarri hartuta, astean behin hedatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko estatistika-edukia duen mezu bat —Berdintasunerako Administrazio Unitateak landua—.
- Argitalpen digital espezifikoa urtero eguneratzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren atalean biltzen den informazioarekin.

6.7. HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Sailari honako eginkizun hauek esleitu zaizkio:

- ❖ Autonomia Estatutuaren ondoriozko irakaskuntzaren arloko ahalmenak —erregimen orokorrekoak zein erregimen berezikoak—, barnean direla etapa eta maila desberdinak eta goi-mailako heziketa, baita bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo gehitzea ekarriko duten ikaskuntza-jarduerak ere.
- ❖ Bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo gehitzea ekarriko duen lanbide-heziketa osoaren plangintza estrategikoa, diseinua eta jarraibideak, LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzaren estuarekin, betiere haren erantzukizunaren barruan.
- ❖ Politika zientifikoa: ikerketa teorikoa eta aplikatua sustatzea eta koordinatzea.

Sailak, bere politikak garatzeko, 10 aurrekontu-programa ditu, honela banatuta:

51. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

HEZKUNTZA SAILA	AURREKONTU BATERATUA
4211. Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	80.604.080
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	1.002.486.185
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.014.952.270
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	331.861.024
4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak	57.325.200
4225. Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea	49.238.306
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	34.610.516
4231. Hezkuntza Sustapena	175.865.093
4715. Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.966.641
5412. Ikerketa	55.497.685
GUZTIRA	2.845.407.000

Sailaren aurrekontu osotik, zati txiki bat besterik ez zaie transferitzen Unibasque erakunde publikoari, Musikene fundazioari eta Haurreskolak partzuergoari. Sailak ez du erakunde autonomo atxikirik.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Hezkuntza Sailaren kasuan, ia aurrekontu osoa da, zehazki, aurrekontu osoaren % 99,98. Datu hori berez da adierazgarria, kontuan hartzen badugu 2019rako aurrekontu orokorren % 24 dela.

Aurrekontuaren bolumenak lotura estua du lantaldearen bolumenarekin; izatez, 2018ko ekainaren 30ean Administrazio Orokorreko, erakunde autonomoetako eta partzuergoetako langile guztien % 20 hartzen ditu Sailak (funtzionarioak, aldi baterakoak, lan-kontratudunak eta abar). Lan-kontratadunen kolektiboa izan ezik, gainerako kolektiboak oso feminizatuta daude. Oro har, Hezkuntza Saileko lantaldearen % 62 emakumezkoa da.

Hurrengo taulan, aztertu beharreko aurrekontua programen arabera banakatuta ikus daiteke:

52. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA HEZKUNTZA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
4211. Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	76.491.780
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	953.673.991
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.014.095.436
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	330.541.024
4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak	48.130.535
4225. Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea	49.218.306
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	34.300.516
4231. Hezkuntza Sustapena	175.865.093
4715. Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.566.641
5412. Ikerketa	55.497.685
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
4221. HAURRESKOLAK partzuergoa. Haur eta Lehen Hezkuntza	55.910.000
GUZTIRA	2.836.291.007

Guztira 11 programa dira, Haurreskolak partzuergoa gehitu ondoren bat gehiago.

Haurreskolak partzuergoaren helburua da haurreskolen kudeaketa integrala gauzatzea eta hiru urtetik beherakoei zuzendutako laguntza- eta hezkuntza-arreta eskaintzea, betiere partzuergoa osatzen duten udalerrien lurralde-esparruan.

Sailak P19-Gen formulario guztiak bidali ditu, “4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak” programari dagokiona izan ezik. Kasu zehatz horretan, soilik eman da P17-Gen formulariorako bete den garrantziari eta egokitasunari buruzko informazioa, P18-Gen formularioa ere ez baitzen eman.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Sailaren aurrekontu-programen % 100 egokiak dira generoarekiko.

53. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

HEZKUNTZA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
4211. Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	76.491.780	BAI
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	953.673.991	BAI
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.014.095.436	BAI
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	330.541.024	BAI
4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak	48.130.535	BAI
4225. Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea	49.218.306	BAI
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	34.300.516	BAI
4231. Hezkuntza Sustapena	175.865.093	BAI
4715. Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.566.641	BAI
5412. Ikerketa	55.497.685	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
4221. HAURRESKOLAK partzuergoa. Haur eta Lehen Hezkuntza	55.910.000	BAI
GUZTIRA	2.836.291.007	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

2018ko aurrekontuei buruzko txostenari dagokionez, generoarekiko programen egokitasunaren gero eta balorazio hobea nabarmentzen da. Sei programek lortzen duten garrantzi maximoa eta lauk garrantzi ertaina. “4223. Unibertsitate Irakaskuntza” programa garrantzi txikia izatetik garrantzi ertaina izatera pasa da. Guztira, aurrekontuaren % 98,8k du generoarekiko garrantzi handia edo ertaina.

54. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

HEZKUNTZA					
AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO					
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA			AURREKONTUA
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA	
4211. Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	76.491.780	6			
4221. Haur eta Lehen Hezkuntza	953.673.991	6			
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	1.014.095.436	6			
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	330.541.024		4		
4224. Araubide Bereziko Irakaskuntzak	48.130.535		ertaina		
4225. Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea	49.218.306	6			
4226. Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	34.300.516		4		
4231. Hezkuntza Sustapena	175.865.093	6			
4715. Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.566.641			2	
5412. Ikerketa	55.497.685		4		
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>					
4221. HAURRESKOLAK partzuergoa. Haur eta Lehen Hezkuntza	55.910.000	6			
GUZTIRA	2.836.291.007	% 80	% 18	% 2	% 100

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

55. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

HEZKUNTZA		AURREKONTUA (€)
4211. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	60.010
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	15.000
4222. Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	2019-2020 ikasturtean, industria-zikloetako ikasleen % 12 emakumezkoak izatea lortzeko ekintzak	100.000
4223. Unibertsitateko Irakaskuntza	Genero-indarkeriaren biktimek EHUn ikasteko diru-laguntzak	79.357
	Genero-indarkeriaren biktimek Deustuko Unibertsitatean ikasteko diru-laguntzak	10.174
4225. Hezkuntza Berritzea eta Lanbide Heziketa	Hezkidetzako II. Plana	645.021
GUZTIRA		909.562

- ❖ Identifikatutako aurrekontua 2018koa baino handiagoa da. Nolanahi ere, Sailaren osotasunaren aurrekontuarekin alderatuta, minimoa da (% 0,03).
- ❖ Oso modu positiboan balioztatu da Berdintasunerako Administrazio Unitatean izandako 4.000 €-ko gehikuntza, sailaren politikak sustatzera bideratuko dena.
- ❖ Industria-zikloetan, 2019-2020 ikasturterako, ikasle emakumezkoen kopurua gehitzeko bideratuko den aurrekontua % 9 izatetik % 12 izatera pasako da.
- ❖ Hezkidetzako II. Planari dagokion partida honela banakatzeko da:
 - Prestakuntzarako: 150.000 €
 - Materialetarako: 30.000 €
 - Irakasleen ordutegi-krediturako: 465.021 €

Orain arte, “4225. Hezkuntza Berritzea eta Lanbide Heziketa” programari dagozkion formularioetan ez da eman 4/2005 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarria betetzen den balioztatze aukera emango duen informaziorik. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, Laugarren Xedapen Gehigarriak hau dio:

“Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berritzatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dira”.

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 15.707.961 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 0,6. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

56. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

HEZKUNTZA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	2	1.230.838
Aurreikusitako hitzarmenak	4	578.670
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	24	13.898.453
GUZTIRA		15.707.961

- ❖ Hezkuntza-sektorearen diagnostikoak gehitu dira. Hauek dira ondorioetako batzuk:

Lanbide Heziketaren alorrean: ikasleen artean emakumezkoen proportzioa txikia da (Erdi-mailako Lanbide Heziketan % 35,1 eta Goi-mailako Lanbide Heziketan % 38,3).

Erdi-mailako Lanbide Heziketan, “Elektrizitatea eta elektronika” eta “Garraioa eta ibilgailuak mantentzea” gisako lanbide-arloetan ikasleen % 97,3 gizonetzkoak dira —oraindik ere mantentzen den bereizketa horren adibiderik adierazgarrienak dira—.Lanbide-arlorik feminizatuena, berriz, “Irudi pertsonala” da, ikasleen % 97 emakumezkoak dira.

Goi-mailako Lanbide Heziketan, halaber, Erdi-mailako Lanbide Heziketako lanbide-arlo berak dira feminizatuena eta maskulinizatuena.

Banaketa desberdin horrek eragin argia du lan-merkatuan: Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezko ikasleek ez dituzte aukeratzeko lan-merkatuko enplegu-eskaintzari erantzuten dioten lanbide-kualifikazioak, eta, aukeratzeko dituztenean, ez dira sektore estrategikoetan prestatzen ari, edo lan-eskaintza gehien duten lanpostuetarako prestatzen ari (esate baterako, industriarekin lotzen diren zikloetan).

Ordainsariei dagokienez, eta lanaldi osoan lan egiten duten pertsonen ordainsariak kontuan hartuta, 2016ko abenduan, hauek dira lanaldi osoan hobe ordainduta dauden lanbide-arloak: Energia eta ura; Instalazioa eta mantentze-lanak; Fabrikazio mekanikoa; eta Elektrizitatea eta elektronika. Aitzitik, azken posizioetan daude: Irudi pertsonala; Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; eta Komunitaterako zerbitzu soziokulturalak.

Lanbide Heziketako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan 17.000 ikasle inguru daude industria-espezialitateetan, eta espezialitate horietan lan-munduratzeko % 90 eta % 100 artekoa da. Ziklo horietan emakumeen kopurua ez da 1.500era iristen, % 8 baino zertxobait gehiago, eta ehuneko hori txikiagoa da enpresen lan-eskaintza handiena duten modalitateetan, hala nola Fabrikazio mekanikoan, Mantentze-lanetan edo Automozioan. Horrenbestez, sektore hori indartuko bada, ezinbestekoa izango da jardun eta ekintza positiboak egitea emakumeak presta daitezkeen sektore horietarako kualifikatzen duten adarretan.

Unibertsitate-esparruan, emakumeen presentzia zertxobait handiagoa da jakintza-arlo guztietan (% 52,6 batez beste). Dena dela, emakumezkoen presentzia nabarmen handiagoa da emakumeen tradizioz esleitu zaizkien roletan bat datozen diziplinetan, hala nola Osasun Zientzietan (% 74,7) eta Arte eta Giza Zientzietan (% 61). Aitzitik, presentzia askoz ere txikiagoa da Ingeniaritzetan eta Arkitekturan —arlo horietako titulazioen eta zikloen osotasunerako, emakumeen presentzia ez da % 29ra iristen—.Titulazio feminizatuena artean daude Erizaintza, Pedagogia, Haur-hezkuntza, Hizkuntza modernoak eta kudeaketa eta Itzulpen gintza eta Interpretazioa —horietan ikasleen % 80 baino gehiago emakumezkoak dira—.

Hau da emakumeen eta gizonen presentzia unibertsitateko langileen artean:

- 2015-2016 ikasturtean, irakasle gehienak gizonetzkoak ziren (% 56).
- Irakasle-ikertzaileen % 44,7 emakumezkoak dira.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean % 65,9 emakumezkoak dira.

- ❖ 2018ko aurrekontuen inguruko genero-inpaktuari buruzko txostenean aurreratu zen bezalaxe, P-Gen formularioen betetze-maila hobetzeko neurriak ezartzea aurreikusi da. Neurri horien artean dago, Saileko langileei berdintasunaren arloko prestakuntza sektoriala eskaintzea.

- ❖ 5412 Ikerketa: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 33.4. artikuluan¹⁴ ezarritakoari jarraituta, hobekuntzak sartu dira bi deialdiren balorazio-irizpideetan. Zehazki, biltzarrak eta bilera zientifikoak antolatzeke laguntzetan eta unibertsitate-sistemako irakasleen eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko programan.

Horrez gain, Ikerketa Zuzendaritzak estatistikak eta azterketak egokitzeko eta genero-ikuspegia barnean hartzeko lanean jarraituko du, eta barruan zein kanpoan landutako txostenetan eta estatistiketan sexuen araberrako bereizketa egitea sustatuko du. Ildo horretan, arreta berezia jarriko da sortzen diren dokumentuak eta euskarriak idaztean; izatez, hizkuntzaren erabilera sexistara saihestuko da eta diru-laguntzetan, beketan eta sarietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko klausulak barnean har daitezzen sustatuko da.

Era berean, eta orain arte egin den bezalaxe, Zuzendaritzako langileak berdintasunaren arloan treba daitezzen errazteko konpromisoari eutsi zaio.

- ❖ 4715 Hezkuntza sistemaren euskalduntzea programa: deialdi guztietan berdintasunaren aldeko klausulak sartu dira —hein batean edo bestean—, betiere laguntzen ezaugarrien arabera.
- ❖ 4225 Hezkuntza berritzea eta Lanbide Heziketa programarako honako neurri hauek diseinatu dira:
 - Industria-zikloetan emakumeen matrikulazioak gehitzeko sentsibilizazio-kanpainak.
 - Lan-esperientziaren bitartez, edo prestakuntza-bide ez formaleen bitartez, lortutako lanbide-konpetentziak egiaztatzeke eta ebaluatzeke deialdi baliatuta, esperientzia egiaztatu ahal izango duen kolektiboa, batez ere femeninoa.
 - Ikastetxe-sarean berdintasun-planak ezartzea.
 - 2019-2020 ikasturtean industria-zikloetan ikasleen % 12 emakumezkoak izan daitezzen lortzea (abiapuntua % 9).
 - Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako langileen prestakuntza-konpromisoa, zehazki HAEK antolatutako genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko ikastaroan parte hartzeke konpromisoa.
- ❖ 4211 Haurreskolak partzuergoa: eskaria beteta ez duten zonetan “haurreskolak” irekitzea proposatu da.

¹⁴4/2005 Legea. 33 artikulua. 4. atala.— Prestakuntza eta ikerketaren aldeko deialdietan, Hezkuntza Administrazioak batik bat honako ezaugarriak betetzen dituzten proiektuak baloratuko ditu:

- a) Proiektuen buru emakumeak izatea, emakumeen ordezkariak txikia den ikerketa-eremuetakoak badira.
- b) Ikerketa-taldean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea.
- c) Emakumeen eta gizonen ezberdintasunarekin eta sexuen arteko hierarkia-harremanarekin zerikusia duten arazoak ulertzen laguntzea.
- d) Ezberdintasunak ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzea.

6.8. OSASUN SAILA

Osasun Sailari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztien osasuna zaintzea. Horretarako, zenbait osasun-alorretan lan egiten du Sailak egunero: osasun publikotik eta pertsonen zerbitzurako osasunaren arloko berrikuntzatik eta ikerketatik, farmaziara, osasunaren arloko plangintzara eta ebaluaziora. Era berean, Osakidetzan kalitateko osasun-zerbitzu publikoa eskaintzeko lan egiten du Sailak. Horretarako, 6 aurrekontu-programa ditu Sailak, taulan deskribatzen den moduan banatuta:

57. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA OSASUNA	AURREKONTU BATERATUA
4111. Osasuna. Egitura eta Laguntza	18.522.120
4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	3.193.060.073
4113. Osasun Publikoa	42.869.805
4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	10.406.473
4115. Farmazia	530.660.637
4116. Adikzioak	4.603.892
GUZTIRA	3.800.123.000

Kontuan izanik txosten horretan soilik aztertzen direla aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena, eta aintzat hartuta Sailaren baliabideen zati handi bat —Sailaren aurrekontuaren % 78 hain zuzen ere— Osakidetzari transferitzen zaiola, nabarmen murrizten da aztertu beharreko aurrekontua (aurrekontu osoaren % 22 da), hurrengo taulan ikus daitekeen bezalaxe.

58. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA OSASUNA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
4111. Osasuna. Egitura eta Laguntza	13.667.120
4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	248.679.318
4113. Osasun Publikoa	42.869.805
4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	7.150.811
4115. Farmazia	530.660.637
4116. Adikzioak	4.603.892
GUZTIRA	847.631.583

2018ko txostenean aztertu beharreko aurrekontuarekin alderatzen badugu, nabarmen txikiagoa da. Izan ere, orduan, ez zen OSAKIDETZArako transferentzia kendu.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, aztertu beharreko Osasun Sailaren aurrekontuaren % 100 egokia da generoarekiko.

59. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

SAILA OSASUNA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
OSASUNA	847.631.583	% 100
4111. Osasuna. Egitura eta Laguntza	13.667.120	BAI
4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	248.679.318	BAI
4113. Osasun Publikoa	42.869.805	BAI
4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	7.150.811	BAI
4115. Farmazia	530.660.637	BAI
4116. Adikzioak	4.603.892	BAI

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

60. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

OSASUNA				
AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
4111. Osasuna. Egitura eta Laguntza	13.667.120		3	
4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa	248.679.318	5		
4113. Osasun Publikoa	42.869.805	5		
4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	7.150.811	5		
4115. Farmazia	530.660.637		4	
4116. Adikzioak	4.603.892		4	
GUZTIRA	847.631.583	% 35	% 65	% 0

Deigarria da Egitura eta Laguntza programa garrantzi ertainekotzat jo izana —bertan dago Berdintasunerako Administrazio Unitatea—.

Programen % 100ek dute generoarekiko garrantzi handia eta ertaina.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

61. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

OSASUNA		
4111. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	58.039
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
4113. Osasun Publikoa	Genero-politiketako berdintasun- eta prebentzio-ekintzak	10.000
	Haurdunaldirako, erditzerako eta puerperiorako laguntza-materialen edizioa	18.565
4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza	Emakumezko ikertzaileak bistaratzea	1.262.400
4116. Adikzioak	Generoari eta adikzioei buruzko azterketak	10.600
	“Euskadi eta drogak” inkestaren ustiapena eta analisia	24.900
	Genero-ikuspegiari eta adikzioei buruzko mintegia	5.000
	GUZTIRA	1.394.504

Sailak asko gehitu du berdintasun-politika espezifikotara zuzendutako aurrekontua, batik bat emakumezko ikertzaileak bistartzeko proiektuaren ondorioz —proiektu horretara bideratuko da berdintasun-politika espezifikotara zuzendutako aurrekontu osoaren % 90—.

Ez dira 2019ko ekitaldian gauzatzea aurreikusten diren eta berdintasun-klausulak dituzten kontratuei, hitzarmenei, diru-laguntzei eta bestelako laguntzei buruzko datuak eman.

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Programetako bakar batean ere ez dira aurrerapenak egiaztatu.
- ❖ Neurri zuzentzaile hauek planteatu dira:
 - 4111. Egitura eta Laguntza programa. Berdintasuna lortzea helburu duten programa urrietako bat da. Edonola ere, alderdi hauek erantsi edo alda daitezke:
 - Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin landuko dira eta pixkanaka gehituko dira.
 - Erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia sustatuko da.
 - Gizonek seme-alabak zaintzeko eszedentzia eta mendeko pertsonak zaintzeko eszedentzia baliatzea erraztuko da.
 - 4112. Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa programa. Hasierako memorian sektore arteko proiektu sozio-sanitarioak aipatzen dira (emakumezkoen mutilazio genitala, genero-identitatea, ijito-herria eta genero-indarkeria), baina gero ez dira helburu eta/edo ekintza gisa garatzen. Bestalde, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotzen diren helburu eta ekintza inplizituek esplizitu gisa agertu beharko lukete.
 - 4113. Osasun Publikoa programa. Osasun Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitatearen arabera, giza papilomaren birusaren aurka txertoak jartzearekin lotzen diren ekintza inplizituek esplizitu gisa agertu beharko lukete. Aztertu beharko litzateke mutilek hartzea giza papilomaren birusaren aurkako txertoa —beste herrialde batzuetan jada egiten ari den bezalaxe—, haiek transmititzen baitute birusa. Aurkako ingurumen-faktoreek gizonengan eta emakumeengan duten eraginari buruzko azterketak eta neurketa-adierazleak erantsi beharko dira.
 - 4114. Osasun Ikerketa eta Plangintza programa. Genero-analisia kontuan hartzen da aurreikusitako analisi eta azterketa gehienetan, baina programan ez da inolako aipamenik egiten. Etorkizunean agertu beharko luke. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotzen diren ekintza inplizituek esplizitu gisa agertu beharko lukete.
 - 4115. Farmazia programa. “Farmazia” programa idaztean hizkuntza zaindu beharko litzateke.

6.9. TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren helburu nagusien artean daude Euskadi erreferentziazko turismo-helburu gisa finkatzea, merkataritza sustatzea, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko politikak planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea; eta Merkataritza Ganberak. Horretarako, 4 aurrekontu-programa ditu Sailak, taulan deskribatzen den moduan banatuta:

62. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	AURREKONTU BATERATUA
4431. Kontsumoa	5.660.543
7510. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Egitura eta Laguntza	3.346.182
7511. Turismoa	15.496.857
7612. Barne Merkataritza	16.663.418
GUZTIRA	41.167.000

Aurrekontu osoaren zati bat Basquetour sozietate publikora eta Kontsumobidera transferitzen du.

Kontsumobide —Kontsumoko Euskal Institutua— Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitzen zaion erakunde autonomo bat da, eta haren helburu nagusiak dira kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren eta babesaren arloko gobernu-politikak definitzea, planifikatzea, sustatzea eta gauzatzea.

Hurrengo taulan Sailaren aurrekontu bateratu gabea ikus daiteke, eta horri Kontsumobideren aurrekontua batzen zaio.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Horrenbestez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren kasuan —Basquetourri transferitutakoa kenduta—, aztertu beharreko aurrekontua 33.644.445 €-koa da, hau da, Sailaren aurrekontu osoaren % 82.

Hurrengo taulan aurrekontua ikus daiteke, programen arabera banakatuta.

63. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK	GENEROAREKIKO EGOKITASUNA	
7510. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Egitura eta Laguntza	2.769.406	BAI
7511. Turismoa eta Ostalaritza	7.475.621	BAI
7612. Barne Merkataritza	16.663.418	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
4432. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua	6.736.000	BAI
GUZTIRA	33.644.445	% 100

Guztira 4 aurrekontu-programa, hurrengo ataletan aztertuko direnak.

Kontsumobideri dagozkion datuak, egokitasunari zein garrantziari buruzkoak, P18-Gen formularioan egindako balorazioak dira, 2019ko aurrekontuetarako ez baita formulario hori eman. Bi balorazio horiek egin ostean, balorazioak ez lirateke zertan aldatu; hori dela eta, baliozkotzat jotzen dira txosten honen analisirako.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Tauletan ikus daitekeenaren arabera, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokitzen da.

64. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK	GENEROAREKIKO EGOKITASUNA	
7510. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Egitura eta Laguntza	2.769.406	BAI
7511. Turismoa	7.475.621	BAI
7612. Barne Merkataritza	16.663.418	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
4432. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua	6.736.000	BAI
GUZTIRA	33.644.445	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

Hurrengo taulan ikus daitekeenaren arabera, aurrekontuaren % 100ek generoarekiko garrantzi handia edo ertaina du. Hortaz, Sailaren politika publikoen mende dauden kolektiboetan, eragingarria izan daiteke emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

65. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO				
AURREKONTUA ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
7510. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa. Egitura eta Laguntza	2.769.406	6		
7511. Turismoa eta Ostalaritza	7.475.621	5		
7612. Barne Merkataritza	16.663.418		4	
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
4432. KONTSUMOBIDE – Kontsumoko Euskal Institutua	6.736.000	5		
GUZTIRA	33.644.445	% 50	% 50	% 0

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da.

66. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK	AURREKONTUA (€)
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	57.700
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	5.000
Berdintasunaren arloko prestakuntzarako partida	1.500
Turismoa: berdintasuna lortzera zuzendutako ekintzak inplementatzeko erreserbatutako partida	150.000
Merkataritza: enpresa-ekimenerako laguntza (udaletarako eta enpresetarako ekintzailletza)	500.000
GUZTIRA	714.200

Sail horretan nabarmentzen da, halaber, Zerbitzu Zuzendaritzak bertako langileak berdintasunaren arloan prestatzeari ematen dion garrantzia, horretarako partida espezifiko baten erreserba egiten baitu.

Bereziki interesgarriak dira:

- ❖ Lehen aldiz berdintasun-unitateari bere aurrekontua esleitzea. Guztira 5.000 €.
- ❖ Enpresen titularrak emakumeak diren enpresei edo titulartasunaren % 50, gutxienez, emakumezkoen eskutan duten enpresei zuzendutako 500.000 €-ko diru-laguntza.
- ❖ Turismo-programaren arloan berdintasun-ekintza espezifikoak inplementatzeko 150.000 €-ko erreserba.

Politika espezifikoetara zuzentzen den Sailaren aurrekontu osoa aurrekontu bateratuaren % 1,73 besterik ez da. Ildo horretan, kontuan izan behar da, halaber, kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez berdintasun-klausulekin zuzentzea aurreikusten den aurrekontua. Guztira, 10.640.932 €-koa da, hau da, Sailaren aurrekontu bateratuaren % 26. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldiari behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

67. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	15	1.491.713
Aurreikusitako hitzarmenak	48	1.184.200
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	15	7.965.019
GUZTIRA		10.640.932

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresetan eta merkataritzan lan egiten duten emakumeen eta gizonen lan-baldintzei buruzko azterketa kontratatzea hartu da aintzat, baina oraindik ez da horretarako aurrekontu espezifikorik esleitu.

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Ahalegin handia egin da programetako helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- ❖ Turismo-sektorean, arlo publikoan zein pribatuan, lan egiten duten eta/edo sektore horretako jarduerak egiten dituzten pertsonen arteko genero-desberdinkeriak aztertzen ditu. EUSTATen eta INEren iturriei erreparatuta, 2017an, 3.588.045 pertsona ziren (turistak barne) —toki-erakundeetan, eskualde-erakunde pribatuetan eta publikoetan, turismo-elkarteetan, enpresa-elkarteetan, ostalaritza-enpresetan, turismo-ostatuko enpresetan, turismo-bitartekaritzako enpresetan (bidaia-agentzia, eta abarretan), turismo-gidetan, biltzar-antolatzaileetan, turismo aktiboko enpresetan eta abar—. Bi ondorio nagusi ateratzen dira:
 - Turismo-sektorea feminizatuta dago, batez ere hoteletan eta bestelako janari-zerbitzuetan, baita bidaia-agentzietan ere, baina kolektibo maskulinoak baino lan-baldintza okerragoak ditu. Turismo-sektorean emakumeen presentzia gizonen presentzia baino handiagoa da erantzukizun-postuetan. Haatik, emakumeen kolektiboak gizonen kolektiboak baino behin-behinekotasun

handiagoa du, kontratazioan zein lanaldia-partzialtasunean, eta egoera hori are larriagoa da, kontuan hartzen badugu emakumeek gizonen baino ordainsari txikiagoak dituztela batez beste.

- Desberdinkeriarik handiena emakumeen eta gizonen arteko soldata-arraila da. Horrek lan-merkatuko desberdinkeriak eta diskriminazioak islatzen ditu, eta agerikoa da ordainsarietako zuzeneko diskriminazioan zein sexu bateko edo besteko pertsonen nagusiki betetzen dituzten lanpostuen balorazio desberdinean.
- ❖ Aurrekontu espezifikoak zuzkitzearekin indartu egin da berdintasun-unitatea.
 - Berdintasunerako batzordeetan eta lantaldeetan parte-hartze handiagoa egiaztatu da.
 - Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzan, herritarrek orotariko prozeduren bitartez bete beharreko txantiloi guztiak berrikusi dira (laguntza-eskabideak, jarduera egikaritzeko erantzukizunpeko adierazpenak, eta abar), datu guztiak sexuen arabera banakatuta jaso daitezten eta ustiatu ahal izan daitezten.
 - P19-Gen formularioa betetzeaz arduratzen den pertsonetako batek HAEK antolatzen duen aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko prestakuntza-ikastaroa egin du. 2019ko ekitaldian Saileko beste pertsona batzuek ere prestakuntza hori bera egitea aurreikusi da.
- ❖ Kontratuaren sartutako klausula baten bidez, kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua eskuratzean, lanbide-sailkapenean, promozioan, kontratu-amaieretan, ordainsarietan, lan-arloko kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan. Era berean, kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak neurriak hartuko ditu kontratua gauzatzera esleitutako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatu ahal izan ditzaten.
- ❖ 10 langile baino gehiagoko enpresei eskatuko zaie txerta ditzatela sexu-jazarpenari eta sexuaren araberako jazarpenari aurrea hartzeko neurriak, betiere kontratua gauzatzeari esleituko zaizkion langileei dagokienez.
- ❖ Turismo Sariei buruzko Aginduan “turismo jasangarriaren” arloko sari bat sartzea aurreikusi da: ekimen arduratsua eta jasangarria alderdi sozialean (bertako biztanleen aldeko ekintzak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldekoak eta lurralde-garapenearen aldekoak), ingurumenekoan (jarduera garatzen den jardun-esparruan ingurumenaren aldeko ekintzak) eta ekonomikoan (enpleguaren sorrera, baterako erantzukizuneko lan-kontziliazioa, prozesuak eta prozedurak).
- ❖ Autonomoen, enpresen eta udalerrien ekintzailetzarako aginduan, diskriminazio positiboko klausula hartu da barnean.

6.10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari honako jardun-arlo hauek dagozkio:

- ❖ Hizkuntza-politika
- ❖ Euskararen sustapena.
- ❖ Ondare historikoa eta artistikoa kudeatzea eta babestea; museoak, liburutegiak eta artxibategiak.
- ❖ Jarduera artistikoak eta kulturalak eta horien hedapena.
- ❖ Kirolak.
- ❖ Gizarte-hedabideak, irratietxeen baimenak ematea eta maiztasunak esleitzea.

Horretarako, 6 aurrekontu-programa ditu Sailak, taulan deskribatzen den moduan banakatuta:

68. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	AURREKONTU BATERATUA
4511. Kultura eta Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	4.032.579
4512. Kirolak	8.537.850
4513. Kulturaren Sustapena	32.310.429
4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	22.748.488
4515. Gizarte Hedabideak	135.772.745
4711. Hizkuntza Politika	56.734.909
GUZTIRA	260.137.000

Baliabide horien % 55 transferitzen dizkie EITBri, Etxepare Euskal Institutuari, Euskadiko Orkestra SArri eta EHko Gazte Orkestra eta Basque Team fundazioei. "4515. Gizarte-hedabideak" programa osorik transferitzen zaio EITBri.

Lehentxeago azaldu den bezalaxe, txosten honetan soilik aztertzen dira aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena. Horrenbestez, aztertu beharreko aurrekontua 116.199.543 €-koa da, hots, Sailaren aurrekontu osoaren % 45.

69. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
4511. Kultura eta Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	3.303.079
4512. Kirolak	7.118.450
4513. Kulturaren Sustapena	20.861.391
4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	21.573.488
4711. Hizkuntza Politika	19.495.135
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
4713. HABE. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	43.848.000
GUZTIRA	116.199.543

HABEren erakunde-helburua da helduen euskalduntzea sustatzea eta, horretarako, euskara-ikastaroak ematea, nola euskaltegietan aurrez aurre, hala hizkuntzak irakasteko eta ikasteko beste modalitate batzuen bitartez (osorik edo zati batean baliabide digitaletan oinarritzen diren modalitateen bitartez hain zuzen ere —e-learning edo b-learning—).

Aztertu beharreko aurrekontua 2018ko aurrekontuen gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenean aintzat hartutakoa baino nabarmen txikiagoa da. Izatez, orduan ez zen EITBri egindako transferentzia kendu (4515. Gizarte-hedabideak programa).

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Aurreko txostenetan bezalaxe, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokia da.

70. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA GENEROAREKIKO EGOKITASUNAREN ANALISIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
4511. Kultura eta Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	3.303.079	BAI
4512. Kirolak	7.118.450	BAI
4513. Kulturaren Sustapena	20.861.391	BAI
4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	21.573.488	BAI
4711. Hizkuntza Politika	19.495.135	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
4713. HABE. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	43.848.000	BAI
	116.199.543	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

71. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
4511. Kultura eta Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	3.303.079	5		
4512. Kirolak	7.118.450	6		
4513. Kulturaren Sustapena	20.861.391	6		
4514. Ondare Historiko eta Artistikoa	21.573.488		4	
4711. Hizkuntza Politika	19.495.135	5		
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
4713. HABE. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea	43.848.000	5		
GUZTIRA	116.199.543	% 81	% 19	% 0

Aurrekontuaren % 100 garrantzi handikotzat edo ertainekotzat jotzen da. Horrenbestez, eragin adierazgarria izan dezake haren politikaren mende dagoen populazioan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko garaian.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikotarako identifikatutako aurrekontua banakatu da:

72. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA		
4511. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	61.572
	Sailaren berdintasun-plana inplementatzeko aurrekontua	40.000
	Berdintasunaren arloan prestatzeko ikastaroak	6.000
4512. Kirolak	Kirolaren arloan berdintasuna benetan lortzera zuzendutako ekintzetarako aurrekontua	70.000
	Euskadiko kirol-federazioetarako diru-laguntzen programaren barruan berdintasunera zuzendutako ekintzetarako funts-erreserba	100.000
4513. Kulturaren Sustapena	Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten proiektuak finantzatzeko erreserbatutako partida	50.000
	Kultura- eta sormen-industrietako profesionalen artean berdintasuna sustatzea	10.000
4711. Hizkuntza Politika	Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzan Sailaren berdintasun-plana garatzeko aurrekontua	123.500
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuegoak:</i>		
HABE	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	58.039
GUZTIRA		519.111

Berdintasun-politika espezifikoetara zuzendutako aurrekontuaren gehikuntza nabarmentzen da. Sailean egindako gogoeta-prozesu trinko baten emaitza da, eta, prozesu horri esker, hobekuntza-esparru zehatzak detektatu ahal izango dira.

Politika espezifikoetara zuzentzen den Sailaren aurrekontua, beraz, aztertutako aurrekontuaren % 0,45 besterik ez da.

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 177.535.930 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 68. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

73. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	5	2.606.664
Aurreikusitako hitzarmenak	1	130.933.582
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	41	11.813.684
HABE		
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	2	32.182.000
GUZTIRA		177.535.930

- ❖ Nabarmen gehitu da (5.000 €-tik 40.000 €-ra) Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontua. Aurrekontu hori erabiliko da Sailaren prozeduretan genero-ikuspegia barnean hartzeko. Horrez gain, aurreikusi da Sailaren sailburuordetzak eta zuzendaritzak beste aurrekontu-partida bat esleitzea lan-arlo bakoitzarekin (kirolarekin, hizkuntza-politikarekin, kulturarekin eta ondarearekin) lotzen diren berdintasun-jarduerak ezartzeko eta garatzeko.
- ❖ Hiru berdintasun-talde sortu dira aurrekontuak, besteak beste, genero-ikuspegiarekin prestatzeko.
- ❖ Ahalegin handia egin da programetako helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- ❖ Ahalegin handia egin da sailaren politiketan genero-ikuspegia sustatzeko, aurrekontuak tresna gisa erabilia. Horretarako, Berdintasunerako Administrazio Unitateak 4 saio (guztira 8 ordu) antolatu ditu Zuzendaritza bakoitzeko, eta saio horietan Euskal Herriko Unibertsitateko adituek ere hartu dute parte. Prestakuntza horrek gabeziak hautemateko eta, hartara, hobekuntza-neurriak ezartzeko aukera eman du. Hobekuntza-neurri horien artean daude:
 - Kirolak programa:
 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan lantalde bat sortuko da programa guztietan zeharkakotasuna lantzeko.
 - Lantaldeak zuzeneko diru-laguntzak eta izendunak aztertuko ditu, eta berdintasun-irizpideak ezarriko ditu. Berdintasunerako Administrazio Unitateak antolatutako berdintasunari buruzko prestakuntza egingo da.
 - Federazioei berdintasunaren arloko prestakuntza eskainiko zaie.
 - Berdintasuna sustatzen duten federazioetarako partida bat (100.000 €) erreserbatu da.
 - Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan genero-ikuspegia barnean hartzeko estrategia garatzera zuzenduko den aurrekontua esleitu da.
 - Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza:
 - Genero-ikuspegia kontuan hartuko da sortzen ari den Euskadiko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzugileen erregistro berrian.
 - Proposatzen da zerbitzugile guztiei bidaltzea Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak argitara emandako dokumentazioa: “Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako autoerregulaziorako kode deontologikoa Euskadin” eta “Euskadiko publizitate-agentzien eta komunikabideen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza-material osagarria”.
 - Hizkuntza Politika:
 - 123.500 €-ko aurrekontua esleitu da hizkuntza-politikako berdintasun-plana garatzeko.
 - Inkesta soziolinguistikoaren analisia genero-ikuspegitik egingo da.
 - Generoari eta hizkuntzari buruzko azterketak sustatzeko diru-laguntzen beste deialdi bat irekiko da.
 - Hizkuntza-politikaren arloko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa egingo da.
 - Emakunderekin elkarlanean, feminismoaren hiztegia egin eta hedatuko da.

- “Egitura eta Laguntza” programa:
 - Lan pertsonalean genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko lau ikastaro antolatzea proposatzen da. Horrez gain, berdintasunaren arloko sentsibilizazio-prestakuntza espezifiko eskainiko da Sailaren politikekin eta sektoreekin lotzen diren gaitan: kulturari, kiroletan eta hizkuntza-politikan.
 - Honako kontratu honetan berdintasun-klausulak txertatzea proposatzen da: Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aplikazio guztiak zuzentzeko, garatzeko eta hobetzeko mantentze-lanak egitea.
 - Estatistika ofizialetan genero-ikuspegia txertatzeko ekintzak aurreikusi dira.

❖ HABEri dagokionez:

- Berdintasunerako Administrazio Unitatea sortu da 213/2007 Dekretuaren 3. artikulua¹⁵ indarrez —213/2007 Dekretua, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako Saitan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen—.
- HABEren berdintasun-plana egiteko diagnostikoa egingo da, eta, horretarako, 9.559 €-ko aurrekontu espezifiko sortu da.
- Ahalegin handia egin da programetako helburuak aurrekontu-mailan banakatzeko.
- Berdintasunaren arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatuko da.

¹⁵ 213/007 Dekretua. 3. artikulua: Unitate administratiboak organismo autonomo eta erakunde publikoetan.

1.— Sail bakoitzeko unitateez gain, ondorengo organismo autonomo eta erakunde publiko hauetan ere berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura izango duten unitate administratiboak egongo dira: besteak beste, HABE - Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundean.

6.11. SEGURTASUN SAILA

Segurtasun Sailaren erantzukizuna da gizartearentzat segurtasun-maila egokia lortzea eta zaintzea, betiere Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorrean jaso diren eta herritarren bizitza normalean eragina duten aldagai guztietan. Horretarako, 7 aurrekontu-programa ditu Sailak, taulan deskribatzen den moduan banakatuta:

74. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA SEGURTASUNA	AURREKONTU BATERATUA
2211. Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	5.178.336
2221. Trafikoa	12.482.673
2223. Ertzaintza Zerbitzuan	625.576.701
2231. Larrialdiei Aurre Egitea	4.630.242
4611. Hauteskundeak	5.240.116
5512. Meteorologia eta Klimatologia	3.239.664
6113. Joko eta Ikuskizunak	1.867.268
GUZTIRA	658.215.000

Kontuan izanik txosten honetarako aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena aztertzen dela, Segurtasun Sailaren kasuan aurrekontu osoaren % 99 izango litzateke.

Zati txiki bat, % 2,7, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari transferitzen zaio.

75. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA SEGURTASUNA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
2211. Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	4.331.336
2221. Trafikoa	12.482.673
2223. Ertzaintza Zerbitzuan	604.496.933
2231. Larrialdiei Aurre Egitea	4.630.242
4611. Hauteskundeak	5.110.116
5512. Meteorologia eta Klimatologia	3.239.664
6113. Joko eta Ikuskizunak	1.867.268
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	17.860.000
GUZTIRA	654.018.232

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia da Euskadiko segurtasun publikoaren prestakuntza-zentroa, eta, bere garaian, funtsezko pieza izan zen euskal autogobernuaren garapenerako eta Ertzaintzaren sorrerarako. Akademiaren helburua da segurtasunaren arloko prestakuntza eskaintzea, modu integralean eta zeharkakoan, Ertzaintzako kideen eta Euskadiko polizia-kidegoetako kideen prestakuntzatik hasita, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sisteman barnean hartzen diren profesionalen eta boluntarioen prestakuntzara.

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Akademiak lehen aldiz aurkeztuko du formularioa, hori ere azter dadin. Gainerako programak egokiak dira generoarekiko, 2018ko aurrekontuetarako genero-inpaktuaren txostenean bezalaxe. Horrenbestez, aztertu beharreko Sailaren aurrekontuaren % 100 da generoarekiko egokia.

76. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

SAILA SEGURTASUNA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
SEGURTASUNA	654.018.232	% 100
2211. Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	4.331.336	BAI
2221. Trafikoa	12.482.673	BAI
2223. Ertzaintza Zerbitzuan	604.496.933	BAI
2231. Larrialdiei Aurre Egitea	4.630.242	BAI
4611. Hauteskundeak	5.110.116	BAI
5512. Meteorologia eta Klimatologia	3.239.664	BAI
6113. Joko eta Ikuskizunak	1.867.268	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	17.860.000	BAI

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

2018ko aurrekontuetarako txostenean, “2223. Ertzaintza Zerbitzuan” programak soilik zuen garrantzi handia. “5512. Meteorologia eta Klimatologia” programak eta “6113. Jokoak eta Ikuskizunak” programak garrantzi txikikotzat jotzen ziren. Hortaz, atsegin handiz ikus daiteke orain Sailak garrantzi handiagoa ematen diela bere programei, oraingoan bere aurrekontuaren % 99,7 garrantzi handikotzat jotzen baitu.

77. taula. Generoarekiko garrantziaren analisisa. Saila

SEGURTASUNA				
AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZIA		
		HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
2211. Segurtasuna. Egitura eta Laguntza	4.331.336	5		
2221. Trafikoa	12.482.673	5		
2223. Ertzaintza Zerbitzuan	604.496.933	6		
2231. Larrialdiei Aurre Egitea	4.630.242	5		
4611. Hauteskundeak	5.110.116	5		
5512. Meteorologia eta Klimatologia	3.239.664	5		
6113. Joko eta Ikuskizunak	1.867.268		3	
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
2224. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	17.860.000	6		
GUZTIRA	654.018.232	% 99,7	% 0,3	% 0,0

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikoetarako identifikatutako aurrekontua banakatu da.

78. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

SEGURTASUNA		
Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	57.861
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	7.000
Akademia	Berdintasun Planaren ekintzak inplementatzeko aurrekontua	15.000
	GUZTIRA	79.861

Aurrekontuak izandako gehikuntza nabarmentzen da; Sailaren Berdintasun Planaren ekintzak inplementatzeko aurrekontu espezifikorako egindako erreserbaren ondoriozkoa da gehikuntza hori.

79. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

SEGURTASUNA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako hitzarmenak	3	60.000
GUZTIRA		60.000

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 60.000 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 0,01.

Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldiari behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

AURRERAPENAK ETA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ Formularioak betetzeko garaian izan den jauzi kualitatiboa nabarmentzen da. Ahalegin handia egin da programen helburuak eta berdintasunaren arloko agindu programatikoak eta arau-emeleak alderatzeko, baita jardunen mende dauden kolektiboenak ere.
- ❖ 2211. Egitura eta Laguntza programa.
 - Emakumezko ertzainen ordezkartza oso txikia da maila horizontalean zein bertikalean, kontuan izanik 4 emakumezko komisario eta emakumezko intendente bakarra dagoela. Hortaz, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIA-LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETAKO LEGE-AURREPROIEKTUAN berdintasunarekin lotzen diren neurri hauek jaso dira:
 - Emakumeak polizia-kidegoetan mailaz igotzeko planak. Emakumezkoen azpiordezkartza zuzentzeko polizia-lantaldean izan beharreko emakumezkoen ehunekoa ezarri beharko da.
 - Hautespen-batzordeetan parekotasun orekatuari buruzko arauak txertatzea.
 - Emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak: txanda libreko sarrerako hautespen-prozeduretan emakumeek estali beharreko plazen kopurua zehaztuko da (inoiz ez deitzen den plazen % 40ren gainera eta, planik ezean, % 25en azpitik). Aurrez ezarritako ehunekoa lortu ezean, emakumezkoek izango dute lehentasuna. Neurri hori behin-behinekoa izango da, emakumeen presentzia % 33koa edo txikiagoa ez den artean.
 - Polizia-kidegoetan emakumeen barne-promoziorako oztupoak ezabatzea, eta seme-alaben edo familiakoen zaintzagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzian daudenak barne-promozioan parte hartzeko aukera izatea.

- Ikuskizun Publikoen eta Jolas Jardueren Araudian, genero-ikuspegia duen azterketa zorrotza egin da eta arlo horretako zenbait neurria txertatu da (sexuaren arabera prezio bereziak ezartzeko debekua, metodo antikonzeptiboen azalpena, eta abar).
- Emakumeek Ertzaintzan parte har dezaten sustatzera zuzenduko diren kanpainak berrikusiko ditu Ertzaintzaren Berdintasun Taldeak, eta ikuspegi ez-estereotipatua bermatuko du (sustapenerako bideoak, txartelak eta diptikoak, enplegu-azoketan eta ikastetxeetan hitzaldiak, eta abar).

❖ 2221 Trafikoa programa.

- 2016ko genero-ikuspegiari eta bide-segurtasunari buruzko txostenean ondorioztatzen zen bide-segurtasunean balio maskulinoak nagusitzen zirela. Hori dela eta, gizonaen beharrak emakumezkoen beharrak baino gehiago jasotzen dira.
- 2015-2020 aldiko Bide Segurtasunerako eta Mugikortasun Segururako eta Iraunkorrerako Plan Estrategikoa prestatzean, Segurtasun Saileko berdintasun-teknikariaren laguntza eskatu zen. Serie estatistikoetan, datuak bereizi egiten dira, iturriak ahalbidetzen duen heinean. Zehazki, 2018. urtearen hasieratik, Trafiko Zuzendaritzak eta Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzak konpromiso argia dute aplikazioak hobetzeko eta sexuaren datua barnean hartu ahal izateko.
- 2018an sexuaren eta adinaren arabera bereizi dira trafikoko eta bide-segurtasuneko araudia urratzen dutenen datuak.
- Bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaroak ematea helburu duen kontratua esleitzeko lehiaketa-publikoan jasotako esleipen-irizpideen artean, balioztatu da gizonaen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko etengabeko prestakuntza eskaintzea ikastaroak emango dituzten zentroetako hezitzaileei.
- 2019ko ekitaldirako aurreikusten diren 2019rako gastu-aurrekontuaren eta genero-ikuspegia duen analisiaren helburuak, ekintzak eta adierazleak azalduko dituen memoria elkarrekin prestatzeko ekin zaio.
- 2015eko ekitaldian, MURGIBE, S.L. enpresari agindu zitzaion bide-segurtasunari eta genero-ikuspegiari buruzko azterketa egitea, 12.100 €-ko aurrekontuarekin.

❖ 2223 Ertzaintza Zerbitzuan programa.

- Emakumeek Ertzaintzan parte har dezaten sustatzera zuzenduko diren kanpainak berrikusiko ditu Ertzaintzaren Berdintasun Taldeak, eta ikuspegi ez-estereotipatua bermatuko du (sustapenerako bideoak, txartelak eta diptikoak, enplegu-azoketan eta ikastetxeetan hitzaldiak, eta abar).
- Kontratazioari dagokionez, administrazio-agirietan berdintasun-klausulak gehitu dira eta agiri teknikoetan ere barnean hartzeko lan egiten ari da.
- Ingurune fisikoa, giza ingurunea eta erakunde-ingurunea hobeto ezagut daitezkeen eta, jardun-esparru bakoitzaren barruan, delinkuentziaren kausak hobeto ezagut daitezkeen, herritarrekin eta erakunde

publikoekin eta pribatuekin harremanetan jartzeko eta itunak adosteko programak garatuko dira. Hizkuntza ez-sexistari buruzko gida sortu, argitaratu eta hedatu denez gero, Ertzaintzaren komunikazio guztietan aurrerapen handiak egin dira hizkuntza ez-sexistaren eta estereotipo sexistez libre dagoen hizkuntzaren erabileran.

- Giza baliabideen eta baliabide materialen erabilera eraginkorragoa eta efizienteagoa lortzera zuzendutako politikak inplementatzeko eta, hortaz, informazioko, etengabeko ebaluazioko eta jarraipeneko sistemak ezartzeko jardunaren barruan, aurrerapenak egin dira analisi estatistikoetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez.
- Tramitatu beharreko kontratuetan genero-ikuspegia txertatzeko jardunaren barruan, gehitu egin da genero-ikuspegia benetan barne hartu duten kontratuen kopurua.
- Polizia-erabilerako ekipamenduen diseinu berrien azterketan, eta horiek ertzaintzaren kolektiboan duten ezarpen efektiboan, genero-ikuspegia aintzat hartzen jarraitzeko jardunaren barruan ere aurrerapenak egin dira, bai emakumezko ertzainen behar espezifikoak aintzat hartuta, bai Ertzaintzaren uniformeetan emakumeentzako babes-elementuak eta jantziak aintzat hartuta.
- Laneko arriskuen prebentzioko zerbitzua zuzentzeko eta kudeatzeko jardunaren barruan, Ertzaintzan sexuagatik edo sexu-arrazoiagatik, edo sexu-orientazioagatik edo -identitateagatik, lanean izan daitekeen jazarpenaren aukako protokoloa landu da. Protokolo hori onartzeke dago.
- Lan-kontratudun langileen prestakuntza kudeatzeko jardunaren barruan, aurrerapenak egin dira berdintasun-ikastaroetan gizonak benetan parte hartzearen eta parte-hartze hori sustatzearen arloan.

❖ 2231 Larrialdiei Aurre Egitea programa eta 5512 Meteorologia eta Klimatologia programa. Hobetzeko esparrutzat honako hauek antzeman ditu:

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren berdintasunarekiko konpromiso-mailari eustea, espresuki aurrekontu-memoria idaztean eta formularioa prestatzean.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko ezinbesteko eskakizun gisa, langileen prestakuntzan eta trebakuntzan aurrera egitea.
- Arlo guztietako estatistiketan —zuzendaritzako adierazleetan barne— sexuen araberako datu bereziak biltzen aurrera egitea, eta datuak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak identifikatzeko moduan ustiatzea eta neurri zuzentzaileak hartzea.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ematen duen prestakuntzan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egitea.
- Larrialdiak Koordinatzeko Zentrorako bisitaldietan genero-ikuspegia aintzat hartzea.
- Larrialdi Planak prestatzean eta berrikustean genero-ikuspegia aintzat hartzen aurrera egitea.
- Protokoloetan eta prozeduretan genero-ikuspegia aintzat hartzen aurrera egitea.
- Kontratuetan, hitzarmenetan eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzen aurrera egitea.

- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren egoitza elektronikoko tramiteen digitalizazioak genero-ikuspegia barnean hartzen duela zaintzea.
 - Genero-arraila murriztea, boluntarioen artean zein sare sozialen erabileran.
- ❖ 4611 Hauteskundeak programa. 2017an “Demokrazia paritaria Euskadin” txostena idatzi zen eta bertsio laburtuan eta hedatuan aurkeztu zen 2017. urtearen amaieran eta 2018. urtearen hasieran. Lan horri amaiera emateko, Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroen barruan, “Demokrazia eta sexua bateragarri” ikastaroa egin zen.

Txosten horretan, emakumeek hauteskunde adierazgarrietan izan duten presentziari eta parte-hartzeari buruzko datu ugari bildu da, eta deitzen diren hurrengo hauteskundeetan ildo horretako txostenak egiten jarraitzeko oinarri izango den metodologia ezarri da. Hori oso lagungarria izango da emakumeek hauteskundeetan duten presentziaren ebaluazioaren argazki zehatzagoa lortzeko, baita alderdi horiek arautzen dituzten Estatuko eta autonomia-erkidegoko legediek arlo horretan duten eragina aztertzea ahalbidetuko duen oinarri zientifikoago bat lortzeko ere.

Ildo horretan, 2019. urtean gutxienez hiru hauteskunde batera egingo direla baliatuta, aipatutako metodologia berehala aplikatuko zaie hauteskunde horiei; gainera, hauteskundeetako datu-basea eguneratzen duten programa informatikoak aldatu egin dira intereseko datuak seguruago eta azkarrago ustiatzeko.

Demokrazia paritaria Euskadin 2001-2016, Segurtasun Sailak EHUren laguntzarekin prestatutakoa eta argitara emandakoa:

<http://www.euskadi.eus/informacion/informacion-elecciones-en-euskadi-democracia-paritaria-en-euskadi/web01-a2haukon/es/>

Programa horretan hobekuntza-neurri hauek proposatu dira:

- Hauteskundeetako web-gune orokorrean, eta hauteskunde bakoitzerako berariaz diseinatzeko diren web-guneetan, genero-ikuspegiko gero eta datu estatistiko gehiago sartzea.
- Diru-laguntzei buruzko araudian, alderdi politikoen barruan berdintasunaren aldeko neurriak sartzeko aukerari buruz gogoeta egitea.

6.12. LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Lan eta Justizia Sailari eginkizun hauek dagozkio: lan-harremanen arloko lan-legeria betearaztea; ekonomia soziala; enpresen erantzukizun soziala; Botere Judizialarekiko harremanen ardura; Justizia Administrazioa funtzionatzeko baliabidez hornitzea; espetxeen antolaketa eta funtzionamendua; adingabe arau-hausleen arloko eskumenak betearaztea; eta notarioak eta jabetza-erregistratzaileak izendatzea. Horretarako, 5 aurrekontu-programa ditu Sailak, taulan jasotzen den moduan banakatuta:

80. taula. Aurrekontu bateratua. Saila

SAILA LANA ETA JUSTIZIA	AURREKONTU BATERATUA
1411. Justizia Administrazioa	143.831.608
1412. Justizia	37.629.490
3110. Lana eta Justizia. Egitura eta Laguntza	2.860.795
3112. Lana	27.942.917
3212. Gizarte Ekonomia	5.126.190
GUZTIRA	217.391.000

Kontuan izanik txosten honetarako aurrekontu bateratu gabea eta atxikitako erakunde autonomoena eta partzuergoena aztertzen dela, Lan eta Justizia Sailaren kasuan aurrekontu osoaren % 98 izango litzateke, taulan ikus daitekeen bezalaxe.

Zati txiki bat, % 7 inguru, OSALANi transferitzen zaio.

Programak OSALANen jardura hartzen du barnean, haren erantzukizunaren arloan. Euskal Autonomia Erkidegoko laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan botere publikoek ezartzen dituzten politikak kudeatzen ditu OSALANek, zehazki laneko berezko arriskuak jatorrian ezabatzeraz edo murrizteraz zuzentzen direnak eta lan-osasunaren sustapenera zuzentzen direnak.

Horrenbestez, hau da azertu beharreko aurrekontua:

81. taula. Aztertu beharreko aurrekontua. Saila

SAILA LANA ETA JUSTIZIA	AZTERTU BEHARREKO AURREKONTUA
1411. Justizia Administrazioa	138.345.084
1412. Justizia	37.629.490
3110. Lana eta Justizia. Egitura eta Laguntza	2.061.392
3112. Lana	15.722.917
3212. Gizarte Ekonomia	5.126.190
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>	
3113. OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	14.387.000
GUZTIRA	213.272.073

AURREKONTU-PROGRAMEN EGOKITASUNA GENEROAREKIKO

Aurreko txostenetan bezalaxe, aurrekontuaren % 100 generoarekiko egokia da.

82. taula. Generoarekiko egokitasunaren analisia. Saila

SAILA LANA ETA JUSTIZIA		
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GENEROAREKIKO EGOKITASUNA
1411. Justizia Administrazioa	138.345.084	BAI
1412. Justizia	37.629.490	BAI
3110. Lana eta Justizia. Egitura eta Laguntza	2.061.392	BAI
3112. Lana	15.722.917	BAI
3212. Gizarte Ekonomia	5.126.190	BAI
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
3113. OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	14.387.000	BAI
GUZTIRA	213.272.073	% 100

AURREKONTU-PROGRAMEN GARRANTZIA GENEROAREKIKO

Egokitasuna kalifikatu ostean, hurrengo urratsa izango da generoarekiko garrantzia aztertzea, betiere helburu-populazioaren irizpideen arabera eta aldaketa-ahalmenaren arabera. Irizpide bakoitzari 1 eta 3 arteko balioa emango zaio. Garrantzi maximoa izango dute 6ko balioa lortzen duten programek.

2018ko aurrekontuen gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenean aurreratu zen moduan, Sailak bere programen analisia sakondu du. Hortaz, genero-garrantziari dagokionez egin diren balorazioak jaso ditzakegu.

83. taula. Generoarekiko garrantziaren analisia. Saila

AURREKONTU-PROGRAMEK GENEROAREKIKO DUTEN GARRANTZIAREN ANALISIA				
AURREKONTU BATERATU GABEA, ADMINISTRAZIO OROKORRA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK		GARRANTZI HANDIA	GARRANTZI ERTAINA	GARRANTZI TXIKIA
LANA ETA JUSTIZIA	213.272.073	% 100	% 0	% 0
1411. Justizia Administrazioa	138.345.084	6		
1412. Justizia	37.629.490	6		
3110. Lana eta Justizia. Egitura eta Laguntza	2.061.392	6		
3112. Lana	15.722.917	6		
3212. Gizarte Ekonomia	5.126.190	6		
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>				
3113. OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea	14.387.000	6		

Aurrekontuaren % 100 garrantzi handikotzat jo da. Hau da, ahalmen handia du genero-desberdinkerien murrizketan eragina izateko eta, bere politiken bitartez, berdintasunaren lorpenean aurrera egiteko.

BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK

Ondoren, berdintasun-politika espezifikotarako identifikatutako aurrekontua banakatu da.

84. taula. Berdintasun-politika espezifikoak. Saila

LANA ETA JUSTIZIA BERDINTASUN-POLITIKA ESPEZIFIKOAK		AURREKONTUA (€)
4511. Egitura eta Laguntza	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	56.150
	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen politikak sustatzeko aurrekontua	46.000
3112. Lana	EAEko enpresetan berdintasun-ekintzak sustatzeko aurrekontua	425.000
<i>Sailari atxikitako erakunde autonomoak eta partzuergoak:</i>		
3113. OSALAN	Berdintasunerako Administrazio Unitatearen kostua	62.000
	OSALANen Berdintasun Planaren ekintzak inplementatzeko aurrekontua	140.000
		729.150

Kontuan izanik Sailak aurrez berdintasun-unitatearen kostua soilik hartzen zuela aintzat, oso handia da aurrekontuan izan den gehikuntza.

OSALANen kasuan, zehazki, berdintasuna lortzera bideratutako baliabideak aurrekontu osoaren % 1era iritsi dira. Berdintasun Planaren berdintasun-ekintzak inplementatu beharreko partida berri gisa erregistratzen dira.

Bestalde, 2019rako, Sailak aurreikusi du berdintasun-klausulak dituzten kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak sinatzea; 9.295.159 €-ko zenbatekoa izango dute, hau da, aurrekontu bateratuaren % 26. Edonola ere, eta kontuan izanik datu horiek data jakin batean egindako aurreikuspenak direla, pentsa daiteke handiagoa izango dela berdintasun-klausulak dituzten kontratuen, hitzarmenen, diru-laguntzen eta bestelako laguntzen bidez azkenean gauzatzen den aurrekontua. Emakundek eskatuta, Sailak aldian behin egiten duen ebaluazioan emango dira horren kontuak.

85. taula. Berdintasun-klausulak. Saila

LANA ETA JUSTIZIA	Kopurua	Zenbatekoa, eurotan
	Berdintasun-klausulak dituztenak	
Aurreikusitako kontratuak (kontratu txikiak kanpo)	11	3.863.435
Aurreikusitako hitzarmenak	3	1.532.989
Aurreikusitako diru-laguntzak eta bestelako laguntzak	7	3.898.735
GUZTIRA		9.295.159

- ❖ Nabarmentzekoa da formularioak betetzean egin den jauzi kualitatiboa eta Sailean berdintasun-politikek izan duten bultzada.
- ❖ Ahalegin handia egin da programen helburuak eta berdintasunaren arloko agindu programatikoak eta arau-emaileak alderatzeko, baita jardunen mende dauden kolektiboenak ere.
- ❖ Jardunen mende dauden kolektiboak sexuen arabera bereizten saiatu da.
- ❖ 2018an sortu zen Lan eta Justizia Saileko Berdintasunerako Administrazio Unitatea; eta 2019an, unitate hori finkatzea aurreikusi da, berdintasunerako ekintza zehatzak gauzatzeko aurrekontu-partida espezifiko bat esleitura.
- ❖ OSALAN: aurrekontu-programak aintzat hartzen du OSALANen berdintasunerako urteko plana gauzatzearen ondoriozko programak eta zerbitzuak hobetzea. Plan horretan, honako jardun hauetara zuzenduko diren ekintzak jaso dira: erakundeko langileek berdintasunaren arloan duten prestakuntza hobetzera; prebentzioaren kultura sustatzeko programa berrikustera; prestakuntza-materialak genero-ikuspegitik berrikustera; datuak sexuen arabera hobeto biltzera; generoari eta arriskuaren aurreko portaerei buruzko azterlana egitera; laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak ezartzera; eta abar. Jardun horiek garatzeko OSALANen aurrekontu osoaren %1eko aurrekontu baliokidea zuzkitu da. Ekintza horiek hautemandako arrailak murriztera zuzentzen dira, baina horien eragina ez da berehala hautemango; izatez, arrail horiek ezabatuko badira, lan iraunkorra eta denboran jarraitua egin behar da, eta, gainera, arrail horiek ez daude aurrekontu-programa honen mende soilik. Kontuan izan behar da lan-merkatuko aldaketek, eta lan-balditzen hobekuntzak edo txartzeak eragin zuzena dutela adierazitako desberdintasun horietan.

2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-etxearen zerbitzura lan egiten dutenen egoerari buruzko azterketa amaitzen ari dira. Azterketa hori amaitzen denean, erakundearen ohiko bideetatik hedatuko dute.

7. ONDORIOAK

Aurrekontuak genero-ikuspegiarekin prestatzeko prozesua kostu handikoa eta luzea bada ere, agerian daude prozesu hori finkatu dela adierazten duten sintomak. Lehen aldiz, Sail guztiek parte hartu dute P-Gen formularioa betetzeko lanetan, eta zenbait aurrekontu-memoria egokitu dituzte, horiek ere genero-ikuspegia txerta dezaten; era berean, Sailetan gogoeta-prozesuak ireki dira, lantaldeak sortu dira, prestakuntza sustatzen ari da eta aurrekontu espezifikoa ere sustatzen ari dira, xehetasun eta zuzentasun handiagoz aztertu ahal izateko politika publikoek zer heinean duten eragin desberdina pertsonen bizitzan, ...

Dena dela, bide luzea dugu aurretik. Hauek dira bide horretan urrats irmoak egiteko funtsezkoak diren neurrietako batzuk:

- ❖ Genero-ikuspegia duten diagnostikoak eta azterlanak edukitzea, betiere aukera emango dutenak zuzentzen ari gatzazkion kolektiboa nolakoa den ezagutzeko eta gaur egun zer genero-arraile dauden jakiteko eta, ondorioz, neurri zuzentzaileak ezartzeko.
- ❖ Plangintza hobetzea eta aurrekontu-memoretan izango duten isla hobetzea, zuzen daitezen desberdinkeria ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu globalera.
- ❖ Datuak sexuen arabera bereiztea, ahal den guztietan.
- ❖ Kontratuetan, hitzarmenetan, diru-laguntzetan eta bestelako laguntzetan berdintasun-klausulak txertatzen aurrera egitea.
- ❖ Langileak prestatzen jarraitzea, baita kargu publikoak betetzen dituztenak ere.
- ❖ Aurrekontu espezifikoa izanik, berdintasuna lortzera zuzentzen diren ekintzak identifikatzeko eta ekintza horien jarraipena egiteko aukera emango duten mekanismoak sakontzea.
- ❖ Politika publikoak hobetzea, genero-ikuspegia txerta dezaten.
- ❖ Langile guztien koordinazioa eta konpromisoa.
- ❖ P-Gen tresna Administrazioaren errealitatera egokitzea eta Sailentzat baliagarria izatea.

Administrazioa murgilduta dagoen hobekuntza-prozesu horrek isla du, halaber, aurrekontuetan generoak duen inpaktuari buruzko txostenean bertan. Sailek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera berariaz zuzentzen den aurrekontua gehitu dute. Era berean, nabarmendu behar da berdintasun-unitateek haien sailetan berdintasun-politikak sustatzeko gaitutako partiden gehikuntza. 2018ko ekitaldian beste bi Berdintasunerako Administrazio Unitate eratu dira, bata Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean eta bestea HABE erakunde autonomoan. 2019ko ekitaldirako, beste Berdintasunerako Administrazio Unitate bat sortzea aurreikusi da, oraingoan HAAE erakundean.

Azkenik, aurrekontu orokor guztiak genero-ikuspegitik pixkanaka aztertzeko bide horretan, premiazkoa da aurrekontu orokorren gaineko genero-inpaktuari buruzko txostenean Osakidetza ere barnean hartzeko prozesua abian jartzea, Osakidetza aurrekontu orokorraren % 25 hartzen baitu.

Sin.: Hernando Lacalle Edeso Aurrekontuko zuzendaria Aurrekontu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila	Sin.: Zalao Urbizu Sierra Berdintasunerako Administrazio Unitatea Zerbitzu Zuzendaritza Ogasun eta Ekonomia Saila
---	--